

Goienkaria

2008ko otsailaren 29a > Egubakoitza > VIII. urtea > 322. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Animaliak eta pertsonak hiltzen dira hesi-efektuek sortutako istripuetan"

Migel Mari Elosegi
Biologoa > 09



G2a

Taun Taun txotxongilo taldea, Indian > 43-44

ABIADURA HANDIKO TRENA
Jaurlaritzaren "propaganda" salatu du AHT Gelditu! Elkarlanak > 05

BERDINTASUNA
Gazteen artean tratu egokia bultatzeko komikia, Arrasaten > 19

ELKARTASUNA
Sahararen aldeko jai handia izango da bihar, zapatua, Eskoriatzan > 26

INGURUMENA > KUTSADURA

Araztegiak lanean hasi eta bost urtera garbi egongo da erreka

SAILBURUA Esther Larrañaga
Ingurumen sailburuak Epeleko araztegira asteon egindako bisitan egin du baieztapen hori

AIREA ETA LURRA Ibarreko lurren eta airearen kutsatzaile nagusiak dira zirkulazioa eta industria

IBARREKO EGOERA Kutsadura hiru mailatan banatuz gero Debagoiena bigarrenean egongo litzateke > 02-03

ARRASATE > MERKATARITZA

Merkealdi azoka Arrasaten

Zapatu eta domekan izango da, Uarkapen, eta herriko 23 dendak hartuko dute parte > 05

Fagor Ederlaneko bi instalazio berri inauguratu ditu lehendakariak

Fagor Ederlanek, Fagor taldeko automobilgintzako enpresak, Edertek Teknologia Zentroa eta burdina galdaketako lantegi berria inauguratu ditu; lehena, Garaia Berrikuntza Gunean eta bigarrena, Markuleten. Edertek zentroak 10 milioi euroko aurrekontua izan du eta galdaketa lantegiak, 50 milioikoa. Biak dagoeneko lanean zeuden arren, inaugurazio ekitaldia atzo, eguna, egin zuten Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta MCCko Kontseilu Orokorreko presidente Jose Mari Aldekoak, besteak beste. > 04



AURRESKUA Ezkerretik eskuara: Iñaki Telletxea, Ino Galparsoro, Juan Mari Palencia, Juan Jose Ibarretxe, Jesus Mari Aldekoa eta Mikel Uribeetxebarria. M.A.

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarritzeta > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 298

ARETXABAleta TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

SEIN
grupostaldea

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran



SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkaleku

INGURUMENA > KUTSADURA

Ibarreko lurren eta airearen kutsatzaile nagusiak zirkulazioa eta industria dira

IBARREKO EGOERA Kutsadura hiru mailatan banatuko bagenu, Debagoina bigarrenean lego ke sailburuaren esanetan; kasu batzuetan, baita okerrago ere

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA Epeleko araztegira egin du bista asteon Esther Larrañaga Ingurumen sailburuak. Uraren kutsadurari aurre egiteko neurri ona dira araztegiak, eta sailburuak ibarreko kutsadura ere izan zuen hizketarako gai Epelen. Debagoina industriagunea dela kontuan hartuta, aire kutsadurari dagokionez zein mailatan dagoen galdetuta hau esan zuen: "Arrasate inguruan badaude parametro batzuk kezkagarriak direnak, gehienak dira partikulei dagokienak. Partikulen iturriak dira ibilgailuen zirkulazioa, obrak eta hainbat enpresa. Kasu honetan, zirkulazioa oso garrantzitsua da. Hortaz, kalitatea hiru mailatan banatuko bagenu, bigarrenean lego ke, eta zenbait parametrotan, okerrago ere bai".

NEURGAILUA LAUBIDE PLAZAN Airearen kalitatea neurtzen duen aparailu finko bat dauka Arrasateko Laubide plazan Eusko Jaurlaritzak. Neurgailuak egunero jasotzen ditu datuak: partikulei, karbono monoxidoari, nitrogeno dioxidoari, ozonoari eta sufre dioxidoari dagozkionak, bestekarriak beste. Parametro horiei errepasatuta nahi da ahal den neurriaren airearen kalitatea hobetzera eta herritarrei eta Europako Komisioari datuen berri ematea; betiere, aireko substantzia kutsagarrak eragin ditzaketen ondorioe iurre egiteko.

Rafa Ugarte Arrasateko Udaleko Ingurumen teknikariak esan digunez, "parametro batek onar-garritasun maila gaindituz gero, Spainiako Estatua behartuta dago diagnostika eta ekintza plana egitera. Arrasaten 2004-2005ean egin zen diagnostika eta bertan azaltzen zen Arrasateko kasuan maila gainditzen zela hautsaren eraginez, eta hauts horren eragi-le zirela inguruko enpresak, ingu-

NEURKETAK Arrasateko Laubide plazan airearen kalitatea neurtzeko aparailu finkoa dago; Aretxabaletan mugikorra ipini zuten maiatzean

ruko harrobiak eta zirkulazioa. Bidali ziguten egoera horri aurre egiteko ekintza plan bat. Bertan, oinarrizko gauzak baino ez dira agertzen. Esaterako, hautsa bada kutsaduraren eragile, obrak egiten dituztenean kontrolatu beharko da ea sortzen den hautsa eta lokatza garbitzen den; zirkulazioa ere bada kutsaduraren eragile, eta hora gutxitzea da irtenbidea. Hori esatea erraza da, egitea da zaila".

AZTERKETA PUNTUALA MARKOLEN Arrasateko neurgailua finkoa bada ere, egin da airearen kutsaduraren gaineko beste azterketa-rik ibarrean. Aretxabaletan, hain zuzen ere, Markoleko bizilagunek auzoan, atmosferan, elementu kutsatzaileak izan zitezkeenak sumatzen zituztelako, kezka azaldu zuten. Horren harira, Aretxabaletako airearen kalitateari buruzko azterketa egin du Euskal Herriko Unibertsitateko talde batek. Helburua izan da guneko ezaugarri atmosferikoak zehaztea eta ebaluatzea.

Ikerketa egin duen taldearen arabera, "hiriguneetako airearen kalitatea erabat lotuta dago bertako jarduerekin. Hiri ingurunean dauden kutsatzaile atmosferiko garrantzitsuenen fokua zirkulazioa eta etxeetako igorpenak dira, nahiz eta ingurune zehatz batzuetan industria jarduerek era berezi eta garrantzitsuan eragin dezaketen arnas-ten dugun airearen kalitatean".

Kutsatzaile atmosferiko batzuk osasunarendako oso kaltegarriak izan daitezkeela diote adituek eta airean horien presen-tzia kontrolatzeko Europar Batasunak kutsatzaile batzuendako mugak ipini ditu. Esaterako, aireko PM₁₀ partikulendako.

Ibarreko gainontzko herri-tako udaletarra jo dugu gai horren gainean azterketarik egin duten

LURRA Ibarrean potentzialki kutsatutako lurren kopurua handia bada ere, denak ez daude kutsatuta eta lanak hasi aurretik aztertzen dituzte

galdezko eta esan digute ez dutela airearen kalitatea neurtze-ko aparteko ikerketarik egin. Horren eskumena Eusko Jaurlaritzarena dela azpimarratu digute batzuetan.

LUR KUTSATUEN PLANA Airearen kutsadura zantzuak ez ezik, lurrenak ere sumatzen dira gurean. Industria lurrik izan-dakoetan aurkitzen da kutsadura. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Kutsatuta-ko Lurren Plana aurkeztu du. Helburua da industria lur horietako kutsadura arintzea gune horietan beste ezer eraiki aurretik.

Plangintza horretako datuen arabera, gure ibarrean badira potentzialki kutsatutako lurrik: Antzuolan 44; Aretxabaletan 57; Arrasaten 116; Bergaran 184; Elgetan 45; Eskoriatzan 53; Leintz Gatzagan bi; eta Oñatin 96.

Rafa Ugartek argitu digu kutsatuta egon daitezkeenak dire-la, baina ez dutela zertan egon:

"Arrasaten kutsadura maila gainditzen da enpresek, harrobiak eta zirkulazioak eragindako hautsarengatik"

"Hiriguneetan arnasten dugun airearen kalitatea erabat lotuta dago bertako eta inguruko jarduerekin"

Markoleko bizilagunek airearen azterketa luzatzea eskatu dute

EHUKO Zientzia Kimikoen Fakultateko Ingeniaritzako Kimikako taldea arduratu da Aretxabaletako atmosferako elementu kutsatzaileen azterketaz. Lanaren egile Lurdes Canton eta Miguel Angel Barreiro doktoreek aurkeztu zituzten emaitzak, eguztenean, Markoleko bizilagunen eta Udaleko ordezkarien aurrean.

Markoleko bizilagunen kezkarri erantzuteko eskatu zuten azterketa. Euren kezka zen inguruko industriak elementu kutsagarriak isurtzen dituela. Markoleko gunean maiztatzen 9tik ekainaren 7ra bitartean airearen kalitatea neurtzeko Eusko Jaurlaritzaren unitate mugikorra ipini zuten. Aztertu zituzten aireko partikulak eta horien metal edukia. Bestalde, unitate mugikorrak kutsatzaile nagusienak aztertu zituen.

Azterketaren ondorioen arabera, Aretxabaletako atmosferan antzemendako PM₁₀ partikulen mailak (31,3ug/m³ batez beste) edozein ingurune hiritarretan daudenak dira, betiere laginketa epe bera kontuan

hartuta. Bestalde, antzeman dute astero jokabide ziklikoa dela: lanegunetan daude maila gorenak eta aste bukaeretan jaitsi egiten dira. Kutsatzaile nagusiek ez dituzte indarrean dagoen legeriak ezarritako mugak gainditzen.

Hala ere, kontuan hartu behar da azterketa denbora tarte laburrean egin dela. Hortaz, urteko beste saso batetan egingo balitz, baldintza klimatologikoak ezberdinak lirateke eta horrek eragina izango luke emaitzetan. Hori izan zen, hain zuzen ere, Markoleko bizilagunek aipatu zutena: hego haizea dabilenean sumatzen dute batez ere aire zikina, eta maiztzean ez zen hego haizerik izan. Hortaz, eskatu zuten azterketa urte osoan egitea, emaitzak oso bestelakoak izango liratekeela ikusteko.

Alkateak jakinarazi zuen aztertuko dutela ea aukerarik dagoen azterketa luzatzeko, baina Eusko Jaurlaritzak ipini behar dituela baliabideak.



TRAFIKOIA Ibarreko enpresetarako joan-etorrian da



biltzan ibilgailuak dira besteak beste airearen kutsaduran eragin nabarmena dutenak.

OXEL ARRIETA

sa potentzial modura. Horrek ez du esan nahi enpresa hori egon den lurra kutsatuta dagoenik, eta balego ere, ez du zertan bere osotasunean kutsatuta egon. Esaterako, esaten da Arrasatek ehu-neko zehatz bat kutsatua duela. Baino datu horiek adierazten dute zenbat enpresa dauden eta herriari dagokionez zenbat azalera hartzen duten industria lurrek. Horrek ez du esan nahi denak kutsatuta daudenik. Adibidez, Zerrajerako eremuak dihardugunean, azalera guztia markatzen da eta hor daude aparkalekuak, esaterako, kutsatua egon daitezkeenak edo ez. Gainera, goiko geruza kenduta nahikoa izaten da, normalean, lurra saneanatzeko".

Ibarreko gainontzeko herrietan ere neurri berdintsuak hartzent dituzte. Aretxabaletako Ingurumen koordinatzaile Ana-bel Diezek esan digunez, "lehen fabrikaren bat zegoen tokian erakin berriren bat egin behar bada, lurra azterzen da ikusteko kutsadura zein mailatakoa den, zenbat

urtetan egon den industria, zein motatakoak den, eta, kutsadura egonez gero, garbitu egiten da". Antzuolako alkate Pedro Iturbek esan digu Antzuolan ere proiektu zehatzentzaurraren egiten dela lurren azterketa.

KUTSADURA ESKORIATZAN

Eskoriatzan, Santa Marinan, etxebizitzak eraiki behar diren eremuako lurretan kutsadura zantzuak aurkitu zituzten. Kutsadura mai-la txikia zela jakin ostean, erretiratu egin zituzten. Hiru puntutan aurkitu zituzten lur kutsatua: Santa Ana auzoko aparkalekuaren albo batean; orubearen erdi-aldean eta Isasmendin.

Eusko Jaurlaritzako Orubide taldea lurra aztertzeko kudeaketa lanak egiteaz arduratu zen. Cespa Conten eta Terranova enpresak, aldiz, azterketa egin ahal izateko laginak ateratzeaz.

Arrasaten ere, Zerrajeran, babes ofizialeko etxebizitzak eraiki behar dituzten lur saila kutsatua dagoenez, hondeaketa lan bereziak egin dituzte.

Airea eta lurra kutsatzeko arrazoirik nagusienak trafikoa eta industria dira gure ibarrean, aditu-en arabera. Arazoari aurre egiteko zein neurri hartu behar diren jakinekoak dira, baina neurri horiek ez errespetatzeak sortzen ditu herritarren kezkak. Denon eskura dago kutsaduraren aurka jardutea, bai herritarren eta baita erakundeen esku ere.

SSANGYONG ACTYON 4x4 BERRIA

Mercedes-Benz Motorrekin: 200 Xdi 141 ZP

22.960 €-tik aurrera



SSANGYONG

VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

Esther Larrañaga > Ingurumen sailburua

"Lanak amaitu eta bost urtean Deba ibaia garbi egon daiteke"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Ingurumen Sailburuak ibarrera egindako bisita aprobetxatuz, Deba-goieneko kutsaduren gainean galduen genion.

Debagoinenari dagokionez, nola dago kutsatutako lurren egoera?

Bi gauz esango nituzke potentzialki kutsatuta dauden lurrei buruz: Arrasaten eta Euskal Autonomia Erkidego osoan 70eko hamarkadan eraikitako industriekeez zuten barneratzen ingurumena, oraindik legerik ere ez zegoen. Ondorioz, industria zaharrek eragin dute potentzialki kutsatua izan daitezkeen lurak egotea. Arrasaten, Zerrajera inguruaren, orain dela hiru urte egin zen ikerketa da horren adibide. Bestalde, errealtitatea hori izanik, errealtitatea aurre egin behar zaio, eta, ildorretatik, Eusko Jaurlaritzatik, lur kutsatua legeaz gain, plangintza berezia argitaratu dugu. Helburua da kutsatuta egon daitezkeen lurak berreskuratzea.

Berreskuratze horren ekinbideak zein izan beharko lirateke?

Legeak arautzen du noiz eta nola egin behar den. Oso zaila da pentsatzea bat-batean dena garbiten dela eta ez dela kutsadura barriatzen. Horiaz, azterketa egin behar dira. Potentzialki kutsatutako lurren artean bi motatakoak daude: batetik, erabiera urbanistikoa dutenak. Horietan beharrezko da zerbait egin aurretik azterketa sakona egitea; bestetik,

badira beste lur batzuk: esaterako, zabortegi zaharrak. Akein, adibidez, egin genuen berreskuratze prozesua. Horiek ere berreskuratu behar dira. Bi lerro horien bitartez lortuko dugu lur kutsatuei aurre egitea. Lur kutsatuek batez ere osasunean eta ekosistemetan izan dezaketen eragin kaltegarriari egin nahi diogu aurre.

Noiz izango da Deba ibaia garbi?

Gauzak bukatu egin behar dira. Debarroa berreskuratzeko egin zen plangintza; horrek aurreikusi zituen bost araztegi eta saneamendu koneksioa. Bat falta da, Epeleko, Madril-ek egin behar zuena. Lanak amaitzen direnean eta benetan denon artean errekarri uzten badiogu bere bidea hartzen, bost urtean Deba ibaiak beste itxura bat izan dezake.

Ibarrean enpresa batzuek onartutako kutsadura maila gainditzen dute-lazabalduda. Neurririk hartuko duzue?

Kontua ez da kutsadura maila gainditzen dutela. Egiaztatua EAEn badau dela zenbait enpresa materia zehatzak egiten dituztenak, baina ez dute onartutako baino gehiago kutsatzen, legeak ahalbidetzen duena baizik. Industriak eta bestelako ekintzak eragina dute ingurumenean. Legeak gero eta zorrotzagoak dira eta EAEn 300 enpresa inguru, batzuk ibarrekoak, baimen berezi baten barruan daude. Bai-maren barruan gero eta zorrotzagoak gara neurriak jartzerakoan, eta horiek bete egin behar dituzte.



GOIENKARIA

EKONOMIA > FAGOR EDERLAN

Fagor Ederlaneko bi instalazio berrieik 140 lanpostu zuzen sortu dituzte

Lehendakariak
inauguratu zituen atzo
Fagor Ederlan
Taldearen Edertek
Teknologia Zentroa eta
Markuleteko burdin
galdaketako lantegia

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE
Fagor Ederlanek, Fagor taldeko automobilgintzako enpresak, Edertek Teknologia Zentroa eta Markuleteko burdin galdaketako lantegi berria inauguratu ditu, eta, denetara, 140 lanpostu kualifikatu zuzen sortu dituzte bi instalazio horiek: 40 Edertek-ek, eta 100, Markuletek. Biak dagoeneko lanean zeuden arren, inaugurazio ekitaldia atzo, eguna, egin zuten Juan Jose Ibarretxe lehendakari eta Mondragon Korporazioko Kontseilu Orokorreko presidente Jose Mari Aldekoak.

Edertek zentroak 10 milioi euroko inbertsioa izan du, eta Markuleteko lantegiak, 50 milioikoak. Bi instalazioak Arrasaten daude; Edertek Garaia Berrikuntza Gunean dago, eta hango lehenengo teknologia zentroa da. "Bi proiektuek Fagor Ederlanek berrikuntzarekin eta, bestetik, enplegu kualifikatu eta kooperatiboa sortzeko duen konpromisori erantzuten diete", azaldu zuen Mikel Uribeetxeberria Fagor Ederlan Taldeko Kontseilu Errektoreko presidenteak egutenean; egun horretan eman zuten Fagor Ederlaneko ardurdunek bi instalazioon berri zehatz. Uribeetxeberriak gaine-



ZINTA MOZTEN Ezkerretik eskumara: Ino Galparsoro, Juan Mari Palencia, Juan Jose Ibarretxe eta Jesus Mari Aldekoa. M.A.

ratu zuenez, Fagor Ederlanen helburuen artean dago lanpostu horiek izaera kooperatibokoak eta iraunkorrik izatea, eta Euskal Herrian izatea.

EDERTEK ETA MARKULETE

Edertek Teknologia Zentroak 2.500 m²-ko hedadura hartzen du, eta bi eraikinetan banatuta dago: lehenengoan, ingeniaritzaz eta ikerketa lanak egiten dira, eta bigarrenean, Industrializazio Modulu Aurreratua (IMA) deitzen denean, egiten diren produktuak industrializatu ahal izateko probak eta egiaztapenak egiten dituzte. Edertek berrikuntza

zentroa den neurrian, bezeroendako garapen bereziak egiten dira: zehazki, garatutako pieza berehala aplikatzen da auto-egilearen ibilgailuan. IMAk injekzio zelula integral bat dauka, eta, horri esker, zentroak autonomiaz jardun dezake injekzio teknologietan industrializazio probak eta prototipoak egiteko. Horrela, bezeroarekin batera garatu ditzakete balio teknologiko handiko piezak.

Beste instalazio berria Markuleten dagoen burdin galdaketako lantegia da. 15.902 m² hartzen ditu, eta lehentasunezko bi alderdi bezala, laneko segurtasun-

na eta ingurumena aipatu zituzten Fagor Ederlaneko ardurdunek. Segurtasunari dagokionean, eginbehar asko makina bidez egiten dira, eta, Fagor Ederlan Taldeko zuzendari orokor Juan M. Palenciaren hitzetan, "seguruenik, orgatilarik erabiltzen ez duen munduko galdategi bakarra izango da"; horrela, lan-arriskuak sainesten dira.

Ingurumen aldetik, fatxadak eta makinak intsonorizatu dira, eta lehengaien kontsumoa %10 murriztu da; fusio laba bereziak aukeratu dituzte, ingurumenean eragina murrizteko; eta ura %60 aurrezten da.


Bestalde, Markuleteko labean kontrol automatizatu zorroztzak ipini dituztela azpimarratu zuten Ederlaneko ardurdadunek.

AURTEL, 718 MILIOIKO SALMENTAK
MCCko Talde Industrialean, Mondragon Automobilgintza ataleko enpresa da Ederlan Taldea, eta bi negozio unitate ditu, chassis eta powertrain direlakoak, ibilgailuen balazta-esekidura eta motor-transmisio funtzioak ezagutzean eta menperatzean oinarrituak. Iaz, Fagor Ederlan Taldeak 682 milioi euro fakturatu zituen, eta 3.927 langile zituen. 2008rako, 718 milioi euroko salmentak eta 4.000 langiletik gora izatea espero du. Inbertsioei dago kienez, 2007an 50 milioi euro inbertitu zituen, eta aurten 46 milioiko inbertsioa aurreikus-ten dute.

Espaniako Estatuan, Fagor Ederlan Taldea automobilgintzako osagaien lehenengo galdaketa taldea da, eta Europan, mangeta-era maileen eta balazta-diskoen lehenengo hiru ekoizleen artean dago; gainera, balio-kate osoa hartzen duen bakarra da, hau da, diseinutik produktu bukatutaino, mekanizazioa ere kontuan hartuta.

IKERLAN, LKS...

Garaia Berrikuntza Gunean inaugurazio edo eraikuntza lan hasiera gehiago egongo dira urtean barrena. Hala, esaterako, Ederteketik ez oso urrutti, Ikerlanek eraikina egiten hasteko asmoa du aurten, eta LKS, Isea Teknologia Zentroa, Mondragon Unibertsitateko laboratorio batzuk eta beste zenbait ere Garaian ezarriko dira.



IKERKETA Ederteken teknologia ikerketa gunea.


LEIRE KORTABARRIA

DATUA
60
MILIOI EUROKO INBERTSIOA

Fagor Ederlan Taldeak 50 milioi euro inbertitu ditu Markuleteko galdara egiteko, eta 10, Edertek Teknologia Zentrorako. Edertek Garaia Berrikuntza Guneko lehenengo teknologia zentroa da.

"Instalazio berrieik Fagor Ederlanek dituen bi konpromisori erantzuten diete: berrikuntza eta enplegua sortzea"

Mikel Uribeetxeberria > Ederlaneko Kontseilu Errektoreko presidente



MODULUA Industrializazio Modulu Aurreratua, piezak garatu eta probatzeko. L.K.



ESKORIATZA Saharako bandera.

SAHARAR ERREPUBLIKA

Bihar da Sahararen aldeko jaia Eskoriatzan

Eguaztenean
Saharar Errepublika
sortu zeneko 32.
urteurrena bete zen

A.E. > BERGARA

Bihar, zapatua, ospatuko da Saharar herriaren aldeko jaia Eskoriatzan. Otsailak 27 koordinadorak antolatuta, Euskal Herriko sahararren lagunak elkartuko dira Eskoriatzan. Modu horretan, Fronte Polisarioak Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) sortu zuela 32 urte bete direla ospatuko da. Jaieren helburua, urteurrena ospatzearaz gain, Saharar herriak bizi duen egoera salatzea ere izango da. Bazkariko txartelak 10 eurotan salgai daude Eskoriatzako Azkoaga Enea hotelean, Inkernu tabernan eta koordinadoran bertan.

SAHARAKO BANDERA

Eguaztenean bete ziren 32 urte Saharar Errepublika sortu zela; hala, Otsailak 27 koordinadorak eskatuta, Saharako bandera jarri zuten hainbat udaletxetako balkoietan.

Martxoak 1, zapatua

11:00etan

Jaiaren hasiera herriko plazan. Zaki magoa, tea, musika...

13:00etan

Saharar herriaren berri emateko hitzaldia herriko plazan.

14:30ean

Herri bazkaria pilotaleku. Txartelak 10 eurotan salgai Eskoriatzako Azkoaga Enea hotelean, Inkernu tabernan eta Otsailak 27 koordinadoran.

GARRAOA > AHT GELDITU!

AHT Gelditu! Elkarlanak salatu du Jaurlaritzaren "propaganda"

Eguaztenean Donostian egin zuten agerraldian, proiektua lehenbailehen gelditzeko eskatu zuten

Mila Elortzaren esanetan, "gero eta jende gehiagok eskatu du informazioa" AHTren gainean

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak eguztenean batu ziren Donostian, "Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua AHTren inguruaren egiten ari diren propaganda" salatzeko. Elkarlanaren ustetan, Abiadura Handiko Trenak "ez du irudi onik" Hego Euskal Herrian. Hala, proiektuaren aurrean bi erkidegoetako gobernuak "egiten ari diren propaganda" salatu gura izan dute modu horre-

tan. AHT Gelditu! Elkarlanaren ustetan, "gezurretan ari dira". Gainera, "diru publiko mordoa gastatzen ari dira propaganda egiterakoan", gaineratu du Mila Elortza AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak.

"SALDUEZINA DA"

"Salduezina dena saldu gura dute, eta ez dute AHTri buruzko eztabaida sozialik ireki gura", esan zuen AHT Gelditu! Elkarlanak

eguztenean emandako prentsauurrekoan. Hori dela-eta, "proiektua gelditzeko" eskatu zuten plataformakoek, eta jendarteari proiektua "ez ezartzeko" ere eskatu zuten. Bi arrazoi argudiatu zituzten: alde batetik, "ingurumen aldetik ez dela iraunkorra" esan zuten eta bestetik, "sozialki ez dela justua".

Bestalde, gaineratu zuten diru aldetik "gehiegizko gastua" dagoela proiektuan.

Gainera, Mila Elortzak esan du gero eta jende gehiagok eskatu duela ATHri buruzko informazioa; trena pasatu behar ez den herrietak jendea ere mobilizatzen hasi den seinale dela esan du Elortzak. Hala, eguzteneko agerraldian hainbat talde batu ziren AHT Gelditu! plataformari babesera erakusteko.

DESJABETZEAK LASTER

Horretaz gain, gobernuak lurren jabeekin akordioak lortu guran dabilzala dio plataformak; hori, "gizarteak edo udalek edozein jarrera ez hartzeko asmoarekin" egiten dabilzala salatu dute.

Mila Elortzak gaineratu du Lemoan martxoan hastekoak direla lanekin: "Ibarreko herrietan oraindik ez dute esan zer egingo duten". Abuztuan zabaldu zuten martxan apelazioak jartzeko epea.

Bestalde, ELAk salatu du AHTk ez duela esaten den beste-ko merkantziarik garraituko. Eusko Jaurlaritzak egin duen txostenaz aztertu eta gero jakinarazi du, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan merkantzien %2 beserrik ez duela hartuko AHTk.

EKONOMIA > BANKU ETIKOA

Banku etikoak herritarrendako "banku-eredu" bihurtu gura du

Fiare banku etikoak bi bulego iraunkor ditu, Bilbon eta Bartzelonan, eta horrez gainera, Donostiako, Gasteizko eta Iruñeko bulegoak astean egun baten zabaltzen du

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE
Elkarhezitzen-ek antolatuta, Fiare banku etikoaren proiektuaren aurkezpen hitzaldia egin zuten eguztenean Mondragon Goi Eskola Politeknikoan. Fiareko ordezkari Alberto Minguezek banku etikoaren helburuak eta ezaugarriak azaldu zituen, besteak beste. Banku etikoaren helburua da "herritarrendako banku-eredu" bihurtzea".

JARDUERA BERRITZAILEAK

Fiare banku etikoak finantzatzen dituen jarduerak berritzai-leak izan behar dute gizartearen barruan. Hortaz, dirulaguntza eman aurretik proiektua zehatz-mehatz azertzen da. Alde batetik, proiektuaren ezau-garri etikoak eta sozialak azter-tzen dira, eta, beste alde batetik, proiektua bideragarria den zehazten da.



HITZALDIA Argazkian, eguzteneko hitzaldiko une bat.

MIREIA BIKUÑA

ditugu aukeran, 1.000 edo 3.000 eurorekin zabal daitezkeenak. Gainera, gure bulegoa Bilbon dagoen arren, Euskadiko Kutxa-ren bidez zabal daitezke libretak", esan zuen Minguezek. Bi bulego iraunkor ditu banku etikoak: Bilbon eta Bartzelonan.

"Donostian, Gasteizen eta Iruñean ere bulegoak ditugu, baina astean egun baten bakarrik zabaltzen ditugu.".

Fiare banku etikoaren inguru informazio zehatzagoa gura duenak www.proyectoifiare.com webgunean begira dezake.

HAUTESKUNDEAK 08 > KANPAINA GUREAN

Bere "proiektu propioa" zein den azaldu zuen EAJk

Egibarren esanetan, "iritsiko da eguna non EAJ ez den Espainiako kongresurako hauteskundeetara aurkeztu beharko"

JASONE ZABALA > BERGARA
EAJk, hauteskunde kanpainaren barruan, gurean egin zuen ekitaldi politikoa joan den astelhenean. Bergarako Aroztegi aretoan, Markel Olano, Joseba Egibar eta Jose Ramon Beloki izan ziren.

PROIEKTU PROPIOA
Euskadin bizi naiz ni. Zu, non bizi zara?, horixe da EAJk martxoaren 9an egingo diren hauteskundeetarako aukeratutako leloa eta pasa den astelhenean Bergaran egindako ekitaldi politikoan azpimarratutako ideia. Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusia hauxe azpimarratu zuen: "EAJk Euskadiarentzako proiektu propioa du eta herriz herri eta

lurraldez lurralde gauzatu dugu". Jose Ramon Beloki Kongresurako zerrendaburuaren ustez, "martxoaren 9an egingo diren hauteskundeek Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularraren arteko hauteskundeak dirudite. Gogorarazi nahi dut, alderdi horiez gain, beste alderdi batzuek ere hartuko dutela parte hauteskundeotan".

Egibarrek, Gipuzko Buru Batzarreko lehendakariak, ondorengoa esanaz itxi zuen ekitaldia: "1981. urteko estatu kolpeak militarki huts egin bazuen ere, haren espirituak bizirik jarraitzen du", eta "iritsiko da eguna non gure alderdia ez den Espainiako Kongresurako hauteskundeetara aurkeztu beharko".



EKITALDIA Egibar, Beloki eta Olano astelheneko ekitaldian. J.Z.



HAUTAGAIAK Larrañaga Debagoieneko EAko hautagaienkin. J.Z.

Epeleko araztegiko lanen atzerapena salatu zuen EAk

Esther Larrañaga, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburua, Debagoieneko EAko beste hautagaienkin batera egon zen Arrasaten

JASONE ZABALA > ARRASATE
Hauteskunde kanpainaren barruan, EAk Arrasateko Epeleko araztegia aukeratu zuen joan den astelhenean kanpaina ekitaldia egiteko. Bertan, Esther Larrañaga Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburua egon zen.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
Larrañagak salatu zuen Espainiako Gobernuak bi urteko atzerapena daramala proiektu horretan. Ekitaldian bere alderdiarentzako botoa eskatu zuen, "EAk Euskal Herriaren izaera eta erabakitzeko eskubidea defendituko dituelako Madriden". Bide batez, EAren Debagoieneko hautagaiak aurkez-

teko aprobetxatu zuen ekitaldia: Amaia Larrañaga, Pedro Urizar, Pedro Mendieta, Lore Martinez (argazkian falta da) eta Juan Carlos Bengoa, hain zuzen ere.

EAk kanpainaren barruan egingo dituen ekitaldien artean, berriz, gaur, egubakoitza, 15:30ean, Arrasateko industrialde Joseba Azkarraga Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua etorriko da. Martxoaren 5ean, berriz, 11:00ean giza eskubideei buruzko ekitaldi bat egongo da Arantzazun, Begoña Errazti eta Nekane Altzelarekin, eta 19:30ean, berriz, Arrasateko Kulturaren hitzaldia Nekane Altzelai eta Karlos Garaikoetxearekin.

Ezker Batuak ezkerreko eredu baten alde egiten du

Errepublika eta federalismoa ardatz hartzea proposatzen du Ezker Batuak

J.Z. > ARRASATE
Pasa den eguztenean ekitaldia egin zuen Ezker Batua-Berdeak alderdiak Arrasateko Seber Altube plazan. Bertan, Isabel Lopez Aulestia Gipuzkoatik Kongresurako zerrendaburua egon zen, eta harekin batera Senaturako eta Kongresurako hainbat hautagai; horien artean, Carmelo Perez de Almaraz, Oñatioko zinegotzia eta senaturako hautagaia.

HIRU ARDATZ
Isabel Lopez Aulestiaren hitzetan, "hauteskunde hauetarako Ezker Batua-Berdean ardatzak hiru izango dira: errepublika, federalismoa eta gizartearentzako beharrezko den ezkerreko eredu bat".




HAUTAGAIAK Irudian EBko hautagaiak. J.Z.

"Inposizioari aurre egitera" deitu du ezker abertzaleak

Abstentziorako arrazoia azaldu eta independentzia eskatu zuten

J.Z. > ARRASATE
Ezker abertzaleak ekitaldia egin zuen pasa den eguztenean Arrasateko Herriko Plazan.

Botorik ez emateko eskaezaren arrazoia azaldu eta Euskal Herriaren independentziaren alde egin zuten ekitaldian. Ino Galparsoro Arrasa-



EKITALDIA Argazkian, Miren Legorburu. J.Z.

teko alkateak, Miren Legorburuk eta Enrike Letonak egin zuten berba. Galparsoro Estatuaren inposizioari aurre egiteko dei egin zuen ekitaldian.

BESTE EKITALDI BATZUK
Datozen egunetarako, bestalde, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur, egubakoitza, bertso triki-poteoa egingo da Arrasaten eta ondoren afaria. Eta biharko, bestalde, Iruñean abstentzioaren alde egingo duen manifestazio nazionalera joateko deia egin dute.



Ezker-zaleen botoa eskatu zuen Aralarrek. J.Z.

Aralarrek atzo egin zuen ekitaldia Bergarako plazan. Bertan, besteak beste, Aser Lertxundi Senaturako Gipuzkoako zerrendaburua eta Rebeka Ubara Gipuzkoako batzarkidea egin ziren. Lertxundiren ustez, "Gipuzkoako gizartea ezker-zalea, abertzalea eta bakezalea da eta hiru berezitasun horiek ondoen aldarrikatzen dituen alderdia Aralar da".

Jose Mari Altube > Ehiztaria

"Ehiza-esparruetan lan egiten dutenak lan barik geratuko dira lege berria onartzen bada"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Espainiako Gobernuak ehiza mugatzeko esku artean dituen lege-proiektuen aurka protesta egiteko manifestazioa egingo dute Madril-en, bihartu. Protesta ekitaldian parte hartuko dute ibarreko ehiztarie-tatik, Jose Marti Altube oñatiarra-rekin egin dugu berba.

Zenbat lagun zoazte Debagoie-nik Madrilera?

Izena emateko epea zabalik egon den artean 32 lagun apuntatu gara. Dena dela, Debagoie-netaik irtengo den autobusean tokia dago, azken orduan norbait animatzen bada ere.

Gipuzkoatik zortzi autobus goaz Madrilera, eta Espania osotik 800 autobus inguru. Hortaz, antolatzaleen aurreikuspenak betetzen badira, 100.000 ehiztari inguru elkartuko gara bihartu.

Alderdi Sozialistak ehiza murrizteko dituen lege-proiektuen aurka protesta egingo duzue. Zeintzuk dira lege horiek?

PSOEk jarri nahi dituen murrizketa guztiak aipatzea ia ezinezkoa da. Baina, besteak bes-te, eper-ehiza, kontrapasa eta untxi-ehiza debekatu nahi dituzte. Une honetan, kostaldean kontrapasa garaia da, baina ehiztari-ek ezin dute ehizan egin.

Era berean, abuztuan egiten den ehiza ere debekatu egin nahi dute. Euskal Herrian galeperrak ehizatzen ditugu.

Dena dela, momentuz ez dute urritik otsailera arteko ehiza denboraldian mugari ipini.

Madrileko protesta ekitaldian ze aldarrikatuko duzue?

Gu ados gaude ehiza kontro-latu egin behar dela diotenean. Baina uste dugu legeak egiteko orduan ehiztarion iritziak kontuan hartu beharko lituzketela. Bestalde, lege-proiektuekin murriztu gura dutenaz gain, indarrean dauden beste lege batzuk alda daitezela eskatuko dugu Madrileko protesta ekitaldian.

Ze ondorio ekarriko ditu ehiza murrizteko legeak indarre-an jartzen direnean?

Euskal Herrian ehizan ibil-tzen garenok zaletasun modura egiten dugu. Baina Espanian 65.000 lagun inguruk dute ehiza ogibide, besteak beste, Andaluzia, Extremadura eta Toledo aldean. Toki haietan ehiza-esparru asko daude, eta lagun askok egiten du lan bertan. Ehizaldiak antolatzen diren bakoitzeko, ehiza-eraiki-tzaile (ojeadorea) askok egiten duten lan, dena ondo irten dadin. Hortaz, Alderdi Sozialistaren lege-ek aurrera egiten badute, lagun asko lan barik geratuko da.



Argazkian, Jose Mari Altube.

GOIENKARIA

"Eper-ehiza, kontrapasa eta untxi-ehiza debekatu nahi dituzte lege berriarekin"

"Espanian 17 lizentzia ezberdin daude, autonomia erkidego bakoitzeko bat"

"Martxoko hauteskunde ondoren ez dakigu zer geratuko den lege horiekin"

Gipuzkoako Ehiza Federazioak kaleratutako idatziak dio "ehiza gaietan Europako lege-riarik murriztaileena" duzuela. Ze arlotan?

Hauxe da biharko manifesta-dian egingo dugun beste aldarri-kapena. Duela urte batzuk Espanian ehizan egiteko lizentzia bakarra behar zen. Baina, badi-ra urte batzuk, autonomia erkidego bakoitzak lizentzia propioa duela: guztira, 17 lizentzia ezberdin daude Espanian. Hortaz, ehiza-egun nahi dugun herri bakoitzari dagokion lizentzia atera

behar dugu. Gainera, tokiko fede-racio bakoitzak bere arauak, pre-zioak eta debekuak ditu.

Ehiza-esparruak eta baserrita-ren lurruk zaintza erakunde-en bidez kudeatu nahi ditu Espainiako Gobernuak.

Erabaki oso larria dela uste dugu ehiztarioi. Alde batetik, baserritarrauk lur barik geratu-ko lirateke, eta beste alde batetik, ehiza-esparruak haien esku geratzen badira, ehiza galdu egin-go litzateke, duda barik.

Ehiza-esparruetan ibiltzen garen ehiztarioi zaindu egiten ditugu lekuak. Adibidez, eperrak ehizatu gura baditugu, ehiza-esparruan eperrak egoteko zain-keta lanak egiten ditugu, besteak beste, janaria bota eta leku txukundu. Baina, ehiza-esparruak administrazioaren esku geratzen badira, ehiza hil egin-go da.

Martxoaren 9ko hauteskun-deetako emaitzek gobernu aldaketa ekarriko balute, legea bertan behera geratzeko auke-ra legoke?

Egia esan, ez dakigu zer ger-ta daitekeen. Ehiza murrizteko lege-proiektua PSOErenak dira, eta ez dakigu PPk ze iritzi duen.

kontsumoa



Familia ugariek lagunza gehiago jasoko dituzte.

GOIENKARIA

Estatuan dauden familia ugariek lagunza gehiago jasoko dituzte

GOIENKARIA > BERGARA

Milioi eta erdi familia baino gehiago dira Espainiako Estatuan familia ugarien kategorian sartzen direnak. Euro-parekin alderatuz, oraindik ere lagunza gutxi jasotzen dituzte Estatuko familia ugariek. Hala, Europaren Barne Produktu Gordinaren (BPGd) %2,1 ematen da, eta Espainiako Estatuan %0,85 ematen da. Hala eta guztiz ere, esan behar da halako familiei ematen zaizkien laguntzak nabarmen ugaritu direla. Autonomia erkidegoka aztertuz, esan daiteke lagunza handienak Euskadi, Nafarroa, Kantabria eta Kataluniako familia ugariek jasotzen dituz-tela, eta beste gune batuetan lagunza horiek oso txikiak dira. Bestalde, jakin behar da legeak gaur egun familia ugariek bi motatan banatzen dituela: alde batetik, famili-a ugari bereziak. Familia horiek bost seme-alabaz edo gehiagoz osatuta daude; eta bestetik, familia ugari oro-korrik. Maila horretan gainerakoak sartuko lirateke.



Farmaziako gastua %6,19 igo zen urtarrilean



Lan egiten duten gazteen %47k dute kontratu mugagabea

Farmazia gastua urtarrilean %6,19 igo zen, 1.036 milioi euroraino. Autonomia erkidegoka begiratzen baldin badugu, farmazia gastua gehien igo ziren autonomiak Kantabria (%12,29), Gazzela-Mantxa (%8,47), Errioxa (%8,19), eta Ceuta (%8,72) izan ziren.

Aldiz, farmaziako gastu gutxiengoei egin zuten autonomien artean Katalunia (%2,63), Melilla (%3,45), Euskadi (%3,62), Galizia (%3,71), Nafarroa (%4,28) eta Asturias (%4,36) aurki ditzakegu.

Enpleguaren behin-behine-kotasuna da Estatuko gazteentzako funtsezko arazoa. Espainiako Gazteen Kon-tseiluaren (EGK) arabera, lanean dabiltzan gazteen %47k bakarrik daukate kon-tratu mugagabea, eta ego-rea horrek gizon eta emaku-meengan du eragina. Esan behar da adin maila zenbat eta gorago, kontratu mugagabeen portzentajea orduan eta handiagoa dela. Horrela, 25 eta 29 urte bitarteko langileen %44k oraindik ere aldi baterako kontratuarekin egiten dute lan.

gure artekoak

MITSUBISHI MONTERO > Mitsubishi etxeak Montero modeloaren laugarren belaunaldiko automobila atera zuen merkatura orain urtebete. Oñati Amets kontzesionarioko Nikolas Igartua erakutsi digu autoa.

Nikolas Igartua > Amets kontzesionarioko arduraduna

"Berme osoa eskaintzen duen marka da Mitsubishi autoa"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Orain urtebete merkaturatu zuen Mitsubishi etxeak Montero berria, laugarren belaunaldiko autoa, hain zuen. Batez ere, diseinuan egin diote aldaketa. "Bai kanpo eta bai barne diseinua aldatu diote", azaldu du Nikolas Igartua Amets etxeko arduradunak.

Baina, aldaketa handiena motorrean jasan du Monteroak: "intsonorizatu egin dute motora", gaineratu du Igartuak.

LUR OROTARIKOEN GORAKADA

Gipuzkoako datuak hartuz, gure ibarrean saltzen da lur orotariko auto gehien. "Denerako era biltzen den autoa da; bai mendi- eta joateko eta, baita hiriko joan etorriak egiteko ere. Auto altuak dira eta horrek segurtasuna ematen dio gidariari. Hala, horrelako autoa probatzen duenak gustuko izaten du", dio Igartuak.

Montero berriak bi motor aukera eskaintzen du. Dieseleko bat: 3.2 DI-D turbodiesela eta, gasolinazko beste bat: 3.8 V6 MIVEC 24. Dieseleko motorrak edozein lekutara iristeko ahalmena ematen dio autoari. "Modu azkarrean, leunki eta, gainera, isilik", dio Igartua Amets etxeko arduradunak. Bost martxatako aldaketa kaxa automatikoa du



Nikolas Igartua Berezao auzoan, Mitsubishi Monteroarekin.

A.E.

Montero 3.2 DI-D 165 ZP

Prezioa	38.500 euro
Luzera	4,39 metro
Zabalera	1,87 metro
Maletategia	415 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	9,3 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	177 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	12,1 seg.
CO2 isurketa	246 g/km

- (1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

autoak. Gainera, Mitsubishi markak ematen duen bermea izugarria da: "Merkatuan oso ondo kokatuta dagoen marka da. Tailerrean arazo gutxiem ematen digun marka da", azaldu du Igartuak Mitsubishi aipatzean.

ZAZPI PERTSONARENDAKO LEKUA

Gaur egun merkatuan dagoen puntako teknologia dena du, segurtasunari dagokionez.

Ateei dagokienez, hiru edo bost ateko aukera dago. Bost ateko autoa luzeagoa da eta atzeko aulkia ipiniz gero, zazpi plaza-ko autoa bihurtzen da.

begi-bistan

**Parrokiara sartzeko
baranda (Oñati)
2008/02/27**

Argazkia: Mireia Bikuña.
Testua: Mireia Bikuña.

Mikel Goiaingeruaren parrokiara hiletak sartzen diren atearen ondoan hiru baranda jarri dituzte: hain zuen, Txurruka tabernako arkueetan eta plazatik jaitsi behar diren eskaileraren alboan.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoak
bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

etxeko leihotik

Goiatz Arana > GOITBko erredaktore-burua

Hitzik ez, egiteko gai garenak ikusita

Beltza, oso beltza izan da pasa berri den martitzena, bai behintzat genero indarkeriaren ikuspuntutik begiratuta. Lau emakume hil ziren egun hartan, bikotekideen esku, Spainiako Estatuan: Valentzian, Cadizen, Madrilen eta Valladoliden. Horrenbestez, 17 dira aurten genero indarkeriaren ondorioz hildako emakumeak. Bainan hori gutxi ez, eta eguztenean Mallorcan eta Galizian izandako beste bi erasoren berri jaso genuen. Orain gutxi irakurtzen nuen, bestalde, gora egin duela gurasoen kontrako indarkeriak ere, amaren aurkakoak, batez ere. Eta gogoa an dut oraindik nola, hilabete hasieran, sei nerabek 15 urteko neska bati sekulako jipoia eman zioten Ermuan: burdinazko barra batekin jo, ilea erre eta txiza egin zioten gainera. Hori, beste gauza batzuen artean.

Antzerako kasu gehiago ere aipa ditzaket, zoritzarrez; aldiz, ez naiz gai zergatia azaltzeko. Neure buruari ere galdeztzen diot zer bultzatzen ote duen pertsona bat halakoak egitera, zer pentsatzen ote duen, nola geratzen ote den egindakoa egin eta gero... Askotariakoak izango dira erantzunak; nik ez dut bat bera ere.

> 'Astelehenak'

komikia kaleratu du
asteon Arrasateko
Udaleko Emakume
Sailak 14 eta 16 urte
bitarteko gazteentzat,
tratu egokien aldeko
jarrerek bultzatzeko. Ea
ongi ikasten duten.

> Martxoaren 8an

ospatuko da Emakumeen
Nazioarteko Eguna,
eta egun horretan itxi
egingo dugu etxeko
taberna. Emakumeek
ateratzen dugu aurrera,
eta egun hori ospatu
egingo dugu.

izen propioak

**Gose
taldea**
MUSIKA TALDEA



**Aritz
Aranburu**
SURFLARIA



**Beñat
Etxabe**
ATLETA

Otsailaren 23an
ospatutako Euskadi Sei Orduetan
toki berezia eduki
zuen Arrasateko
Gose taldeak. Haien
azken diskoko kan-
tuak eskaini zizkien
Antonio Elortza
belodromora hulbi-
dutako zaleei. Pis-
tan protagonistak
Risi eta Marvulli
izan ziren.

Aita oñatiarra duen
surflariak WCT liga-
ko lehen proba utzi
beharra izan du,
belaunean eta orka-
tilla bihurritu ditu-
eta. Oraindik ez
dute zehaztu zer
daukan, baina lesio
larri dela dirudi.
hortaz, litekeena da
WCT ligako hurren-
go probari uko egi-
tea.

Infantil mailan
urrezko domina jan-
tzi zuen Arrasateko
atletak Amurrian
jokatutako Euskadi-
ko kros txapelketan.
Bestalde, betera-
noen mailan, Jabier
Mentxakak zila-
rrezko domina
eskuratu zuen, eta
Cesar Diezko bron-
tzezkoa.

Migel Mari Elosegi (Leitza, 1970) biologoa eta basozaina da. Iaz, CAF-Elhuyar saria eroan zuen

ubideetan hiltzen diren anima- liei buruzko ikerketa lan batekin. Astelehenean Oñatin egon

zen Ingurumen Asteko lehen hitzaldia egiten. Bestek beste, gizakiak eraikitako hesiek ani-

maliengana sortzen duten ondorio larrien inguruan egin zuen berba Natur Eskolan.

Migel Mari Elosegi > Biologoa eta basozaina

"Animaliak eta pertsonak hiltzen dira hesi-efektuek sortutako istripuetan"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Migel Mari Elosegik gizakiak eraikitako hesiek animaliengana sortzen duten efektuaren gaineko adibide garbiak jarri zituen astelehenean, Oñatiko Natur Eskolan. Hitzaldia hasi aurretik egin genuen berba harenkin.

Hesi-efektua faunarengan da Oñatin egin duzun hitzaldia-ren izenburua. Baino zer da hesi-efektua?

Hesi bat zer den denok dakin-gu, alegia, mugimendua oztopaten duen zerba. Eguneroko bizitzan oztopo natural asko daude, mendikateak esaterako. Baino gaurko hitzaldian batez ere gizakiak sortzen dituen hesiekin buruz egin dut berba; hain zuzen, hesi horiek animalien artean sortzen duten efektuari buruz.

Zeintzuk dira gizakiak eraiki dituen hesi handienak?

Egia esan, asko daude. Esaterako, autobideak, ubideak, trenbideak edo parke eolikoak. Denak hesiak dira animaliendako. Orein edo triku batendako oso zaila da A-8 autobidea gurutzatzea. Bestalde, ubideetan ere animalia asko hiltzen dira, eta berdin pasatzen da parke eolikoetan.

Bestalde, zentral hidroelektrikoek sortzen duten hesia gaindi ezina da arrainendako. Nafarroa iparraldean zentral asko daude, eta ura desbideratzeko ubideak egiten dituzte ondoren argia egi-teko. Baino prozesu horretan ez dituzte animaliak kontuan har-tzen. Hala, amuarra-nak isolatuta geratzen dira, eta ez dute elkarren arteko hartu-emanik.

Ze ondorio ekar ditzake hesi-efektuak?

Ondorioak larriak dira. Animaliekin sortzen diren istripuetan animaliak hiltzen dira, baina pertsonak ere bai.

Estatistiketako diote Espainiar Estatuaren urtero 10 milioi orno-dun hiltzen direla. Zifra horretan sartzen dira, besteak beste, oreinak, trikuak, txakurrak eta basurdeak; baina pertsonak ere bai.

Hesi-efektuak duen beste ondorio bat da animaliak isolatuta geratzen direla, eta espezie bereko taldeek ez dutela elkarren arteko harremanik eduki-tzen. Hortaz, talde bereko kideen artean gurutzatzen dira, eta horrek espeziearen degenerazioa dakar. Espainian katamotzarekin antzerako zerba gertatu da.



Migel Mari Elosegi, Oñatiko Natur Eskolaren barrualdean.

MIREIA BIKUÑA

Taldeka isolatuta geratzen dira hiru irrlatan, eta ez dute elkarren arteko hartu-emanik.

Euskal Herrian badugu halako arazorik?

Hemen arazoa ez da hain larria. Gure parajeak oso menditsua da, eta, nahi eta nahi ez, erre-pideak egiteko orduan tunelak eta ubideak egin behar dira. Hortaz, esan daiteke animaliek bideak topatzentzela. Edozelan ere, gauzak asko hobe daitezke. Irurtzun eta Altsasu arteko bide zaharra hesi gaindiezina izan da urte askoan orkatzendako, eta erre-pidearen alde batean bakarrak bizi ziren. Orain, bada, hesia gurutzatzeko bidea topatu dute, eta arazoa zerba konpondu dela esan daiteke.

Hortaz, zein da arazo honen-dako zuk planteatzen duzun irtenbidea?

Hasieratik hasi behar da. Egia da autobidea edo trenbidea egiten duen arkitektuak ez dituela

ISOLATUTA

"Hesiekin animaliak isolatuta geratzen dira eta ez dute taldeen arteko hartu-emanik izaten"

BIDEAK

"Errepide berriak egiten direnean animaliendako bideak ere egin behar dira"

EUSKAL HERRIAN

"Hemengo parajeak tunelak eta ubideak eskatzen ditu; hortaz, arazoa ez da hain larria"

animaliak kontutan hartzen. Errepide berri bat egiten denean animaliendako bideak egin behar dira: errepidearen gainetik edo azpitik. Hala, animaliak errepidearen bi aldeetan bizitzeko aukera izango du. Horrek guztiorek inbertsio handia eskatzen du, baina posible da.

Teoria guztiok ulertzten dugu, baina praktikan jartzea posi-ble al da?

Bai, posible da. Adibidez, halako zerba egin zuten Kandan. Banff, Jasper, Yoho eta Gla-ciar parke nazionaleran turista asko ibiltzen da. Hala, agintariekin autoak ibiltzeko errepidea zabaldut eta autobidea egin zuten. Hildako animalia kopuruak gora egin zuen eta horri aurre egiteko aditu talde bat kontratatu zuten. Animaliendako bideak egin zituzten parke nazionaleran eta gauetan kamerak jarri zituzten. Horregatik guztiagatik, hamar urteotan istripu kopurua %90etik %10era jaitsi da.

Arazoa konpontzea posible dela erakusten duen beste adibe-de bat Tarifan gertatu zen. Zen-tral eoliko asko daude bertan, eta era berean hegaziendako migra-zio toki ikaragarria da. Hegazi asko hiltzen zenez ikerketa bat jarri zuten martxan, eta kontu-ratu ziren hegaziak zentral eoli-ko batzuetan bakarrik eta ordu zehatz batzuetan hiltzen zirela. Hala, enpresek dirua galdu arren, ordu batzuetan haize-errotak gel-ditzeko erabakia hartu zuen enpresak.

Hegaztiei dagokienez, espezie-en bat galtzeko arriskuan dagoela esan daiteke?

Duda barik, bai. Estatistiketako diote urtero ehunka sai erre hil-tzen direla. Kasu honetan, arazoa ez da hain larria, sai erreak badaude-eta.

Baina ugatzaren kasua larria-go da, espezie horretako anima-lia gutxi daude-eta. Dena dela, orokorrean espezie guztiak zain-du behar ditugu.



zabalik

Eneida Iturbe

Silvia

Sei hilabeteko kontratu prekarioa izan eta gero, lan barik egon nintzen duela hilabete batzuk. *Ezer egin barik* egoteak sortzen didan egonezinak eraginda, hamaika ekintzatan apuntatu nintzen. Astegunak betetzearekin nahikoa ez eta zapatu goiztan Irakaskuntzaren Gaitasun Agiria lortzeko klasetara joaten hasi nintzen.

Joan zen zapatuko klasean artikulu bat irakurri genuen. Goi mailako ikasketadun jende asko eta esku-langile gaitu gutxi ditugula zioen. Batxilergoa bukatzen duten gaztetxoek lan mundurako gertatzen dituzten ziklo formatiboa baino nahiago omen dituzte lau (edo bost, sei, zap...) urteko karrerak.

Egun berean, Silvia ezagutu nuen. Silviak Kazetaritza ikasi zuen, baina, ez zuela lanik topazten eta, Valentziara joan zen. Itxura denez, han takada batean gidatzeko baimen guztia ateradaitezke. Eskaintza berezia, ordaindu bat eta bi (edo, hiru, lau bost...) eraman. A, B, C, D... denak edukita, ezin bada autoarekin konformatu; trailerra gidatzen du Silviak.

Errepidean ematen ditu orduak eta orduak Silviak. Domeketan, baina, trailerra bide ertzean laga, beti aldean daraman bizikleta tolesgarria hartu eta Europako herriak ezagutzen ibiltzen da.

Bidaia berezi bat antolatzen dabil Silvia, oraingo honetan, trailerra denbora baterako laga eta urrunago joateko asmoa dauka: "Zeelanda Berrira joango naiz, *gufin egitera*". Gu... zer? Google-i lagunza eskatu eta gufin delakoa *wooing* dela jakin dut: nekazaritz organikoa egiten duen baserri batera joan eta ordu batzuk lan egitearen truke jana eta ostatua ematen dizkiute.

Bera han den bitartean, nik ordenagailu aurrean lanean jarraituko dut eta beste titulu bat gehituko diot nire curriculumari.

Goienkaria

Argiraratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Esteban Plazaola **Zuzendaria** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belaustegi **Saietakor arduradunak** Leire Kortabarria (Herrrik), Aitziber Aranburuza (G2a), Kabi Urzelai (Kirola), Alex Azkarate (Siseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuria, Arantza Ezkibel, Iñaki Agirrezaideg **Oinarriko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundináin, Zlortza Martín, Iñaki Berezibar, Fausto Berazadi **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarin, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

OJD erakundeak
ikuskatutako asteakaria

LAGUNTZALEAK



herritarak galdezka

MUNDUMIRA JAIALDIAREN GAINKE INFORMAZIOA

Horixe eskatu digu asteon irakurle batek. Erredakzioa bidali-tako e-postan, Mundumira jaialdiaren gaineko zehaztasunak eskatzen ditu irakurle horrek.

Debagoieneko Mankomunitateko Turismora jo dugu erantzun bila, eta jaialdian ze ekitaldi, musikari... egongo diren aukeratzen diharduten arren, oraindik ere ez dute ezer lotu. Hortaz, oraingoz ez dute ezer aurreratu nahi izan. Informazio hori emateko moduan Aste Santu ostean egongo direla ere azaldu dute.

Jaialdian parte hartuko duten artisten izenik aurreratu ez arren, badira jakinekoak diren hainbat gauza. Esaterako, Bergaran izango dela aurtenago edizioa, ekainaren 6tik 8ra bitartean.

Bestalde, jaialdiak atal ezberdinak izango dituela ere aurreratu dute Mankomunitatetik. Hain justu, egongo dira: mundu osoko musika, kontzerto eta tайлerrak, erakusketak, mahai-inguruak, haurrendako jolasak, mendia eta senderismoko azoka –men-

di irteerak ere egingo dira-, ibilaldi gidatuak, artisautza azoka, boulder txapelketa, Euskal Herriko gobernuz kanpoko erakundeen topagunea eta abar.

Antolatzaileak dira Debagoieneko Mankomunitateko Turismo eta Kultura sailak eta *Euskal Herria* aldizkaria. Eta lagun-tzaileak dira: Aldundiko Kultura eta Berrikuntza eta Jakintzaren Gizartea sailak eta Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaie-

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu-

zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxe: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

tako Saila eta eskualdeko hainbat eragile.

Mundumirarekin Mankomunitatearen helburua da eskaintza integrala, Debagoienaren irudia Euskal Herrian barrena zabalduz eta, aldi berean, turismo eta aisiaidiko eskaintza kulturala zabaltzea.

ONATIKO DUATLOIAN IZENA NOLA EMAN DAITEKE?

Irakurlebatek bidalitako e-postan galdera hau egin digu: "Badakit aurreko asteluhenean argitaratu zenutela, baina ez nuen albistea irakurri. Hortaz, esango didazue non eman behar den izena?"

Izena emateko bide bakarra dago: Euskadiko Triatlo Federazioaren webgunean (<http://www.triatlo.org>). Bertan dagoen izenemate orria bete behar da lehenengo, eta, gero, Kutxan eta Euskadiko Kutxan ireki dituzten kontuetan ordainketa egin. Federatuek 20 euro ordaindu beharko dituzte eta ez federatuek, 30 euro. Federatuek martxoaren 12ra arte dute izena emateko eta ez federatuek, berriz, 7ra arte.

marrakiz

Unai Busturia

URRE BELTZA - URRE BERDEA



Hauteskundeak eta bipartidismoa

Iban Perez
<http://goiena.net/blogak/leihoa>

Atzo askok herritar askok luzaroan itxarondako eztabaidea egin zen. Datorren martxoaren 9ko bi hautagai nagusien artekoa izan zen, alde batetik Jose Luis Rodriguez Zapatero Alderdi Sozialistak eta beste alde batetik Mariano Rajoi Alderdi Popularrekoa. Bizi nuen zer zen eztabaidea bat.

Orain dela 15 urte ez nuen aukerarik izan Gonzalez eta Aznarren artekoak ikusteko.

Baina oraingo honek deitzen zidan, hasieran duda asko izan nituen non ikusi, argi eta garbi dago eskaintza zabala zegoela. Bai telebisten aldetik, kate batean baino gehiagotan zuzenean emango zelako, baita irratien aldetik ere, irratsaio bereziak prestatu zituztelako Espainiako hainbat komunikabidek.

Azkenean Cuatro katean ikustea erabaki nuen. Igerilekutik iritsi nintzen entrenamendu saio gogor bat egin eta gero eta sofan etzan nintzen

eztabaida noiz hasiko zain. Eta iritsi zen gaueko hamarrak.

Eztabaida ez zitzaidan iruditu beste munduko ezer. Bi alderdietako kideak bata besteari erantzuten edo ibili ziren, zer egin zuten ondo eta besteak zer egin zuten gaizki esanez. Hortaz aparte ez nuen ezer berezirik sentitu. Ondoren entzun nuena irratian izan zen hausnartzera eraman nindueña.

SER katea piztu nuen ohean sartu nintzenean, ordu erdi bat egon aditzen irratsaio berezia. Gonbidatu bezala Jose Bono alderdi sozialistakoa eta Angel Acebes, alderdi Popularrekoak.

blog

plazara

Asteon, otsailaren 27an hain justu, 32 urte bete dira Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa eratu zela. Hala eta guztiz ere,

sahararrek Aljeriako basamortuan jarraitzen dute. Horri lotsagarria deritzo Jon Andueza Bubisher elkarteko kideak, eta lotsa-

garria deritzo, baita ere, Spainiako Gobernuaren jarrera pasibo eta interesatuari. Interes ekonomiko eta estrategikoak ei daude.

Jon Andueza *

Lotsagarría!

Lotsagarría, bai. Lotsagarría da 32 urte igaro eta gero, oraindik ere, Saharar herriak Aljeriako basamortu lehor eta miserablean jarraitu beharra izatea. Lotsagarría milaka familia saharar indarrez banatuta bizi direla jakitea eta, hala ere, Espaniako Gobernuak ez duela ezer egiten ikustea.

Zein zerikusi dauka Espaniako Gobernuak honen guztien erdian? Jo dezagun historiaria:

Otsailaren 27an, 32 urte bete ziren Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa eratu zela. Hiru hilabete lehenago, 1975eko azaroaren 31n, Franco bere azkenetan zegoenean, Espaniak Mendebaldeko Sahara utzi eta Marokok lurrardearen inbasioari ekin zion. Inbasio krudel bezain bortitza ihesi joan behar izan zuten milaka saharrentzat.

Ordura arte, Espaniak kolonizatuta zuen Mendebaldeko Sahara. Espania zen, eta gaur egun ere oraindik bada, Mendebaldeko Saharen potentzia kolonizatzalea. Bai juridikoki eta bai legalki.

Espaniak bizkarra eman zien duela 32 urte sahararrei eta gaur egun ere berdin jarraitzen du. Lotsagarría!

Bitartean, kondenatuta jarraitzen dute 200.000 saharar inguru Tindoufeko kanpamentuetan. Beste hainbeste edo gehiago mundu osoan zehar ihesi eta sakabanatuta. Eta, beste asko Marokok okupatuta daukan eta sahararrena den lurradean.

Bizi baldintza krudel eta irain-garriak kanpamentuetan. Torturak eta errepresioa Marokok okupatuta duen lurradean. Miseria eta gertuko hutsunea munduan zehar sakabanatutako artean.



MIKEL ARROIABE

Baina... Zergatik da Sahara horren tentagarria? Zergatik nahi du Marokok lurralde hori bere gain izatea? Zergatik ez du Espaniak behar adina errekurso eta indar jartzen hau guztia konpontzeko?

Interes ekonomiko eta estrategikoak:

Batetik, Mendebaldeko Sahara aberatsa da bai arrantza aldetik baita fosfato aldetik ere. Espaniak ilegalki urtero 500.000 tona fosfato inguru importatzen dituela salatu dute Saharen aldeko hainbat erakundek. Importazio hauek ilegalak dira, ateratzen diren errekurso natural horiek ez baitira Marokorenak, ilegalki okupatuta dagoen lurralde batekoak baizik.

"Espaniak bizkarra eman zien duela 32 urte 200.000 sahararri eta gaur egun ere berdin jarraitzen du"

"Zapaterok duela lau urte esan zuen 'Mendebaldeko Saharako gatazka sei hilabetean konponduta' dagoela"

Bestetik, Espaniari ez zaio komeni Marokorekin dituen harremanak okertzea. Espaniari Marokorekin harreman onak izatea komeni zaio. Maroko eta Mendebaldeko Sahara gune estrategikoan daude, bai arlo ekonomikoan baita politikoan ere (Ceuta eta Melilla, arrantza, immigrazio...). Betiko kontua. Arrain handiak txikia irensten du.

Bitartean, ehunga gizon, emakume, haur sahararrek desagertuta jarraitzen dute. Oraindik ere, 500 pertsonatik gora daude desagertuta. Bestalde, Marokok lurralde okupatuak babesteko eraikitako 2.500 km-kopu hormaren inguruan 7 milioi mina baino gehiago daude lurperatuta. Mina horiek, orain arte, 2.000 sahararren bizitza hondatu dute.

2005eko maiatzaren 21etik, Marokok okupaturik duen lurraldetan errepresioean dauden biztanle sahararrak manifestatzen hasi dira egoera jasangaitz hau salatzeko. Baino Marokoren errepresioa gogortu besterik ez da egin eta gaur egun badira 4.500 pertsonatik gora kartzelan sartu, desagertu edota torturatuak izan direnak.

Hau guztia ezkutatu nahian Espaniako Gobernu, ZP eta Maroko ditugu.

Bukatzeko, orain dela 4 urte zera esan zuen Zapatero: "Mendebaldeko Saharako gatazka sei hilabetean konponduta dago". Lotsagarría.

Bisitatu: <http://www.afapredesa.org/>

*Jon Andueza, sahararen aldeko Bergarako Bubisher elkarteko kide da

zer deritzozu?

www.goiena.net

Sinisten
duzu
tenporetan?

BAI	%75
EZ	%25

> **BAI**
Nik bai. Gainera, irakurri nuen aurreko astean tenporen harira Joxe Landak zioena eta zelako poza hartu nuen. Eguraldi ona egingo du ekainera bitartean. Chapeu!
Mikel

> **EZ DAKIT BA**
Sunistu, sinistu, ez dakit egiten dudan, baina tenporek eguraldi ona egingo duela esanez gero, horrekin geratzen naiz.
Haritz

> **EZ**
Egia esan, gehiago fidatzen naiz Euskalmetek eman dezakeen eguraldiarekin. Eta horrekin ere, ez gehiegi.
Aitor

> **BUENO...**
Bueno... Egia esan halako gauzei kasu larregirik ez diet egiten. Dena den, iruditzen zait mendeetako jakindurian oinarritutako igarpenei egi apur bat izango dutela.
Amaia

**DATORREN ASTEKOAK:
Martxoaren 9an botoa
ematera joango zara?**

Eman zure iritzia
www.goiena.net atarian.
Datorren astean
argitaratuko ditugu
hemen erantzun
interesgarrienak.

koplak

Manex Agirre

Debatea

Perla eder bat aditu nuen Pako Aristori ahotik hain zuzen ere asteleheneko debatearen aurretik.

Raxoi ta Zapatero ahazteko; izan baitzen nabarmena bere garaian Kennedyk eta Nixonk egin zutenak.

JFK agertu omen zen lasai, energiaz, lerden aurrez maitaleakin bi aldiz larrutan egin ondoren.

Begiak distiran zituela hasi omen zen berriketan eta horrek jarri omen zuen Nixon izerdi patsetan.

ZPK ta Raxoik hobe omen berdin egitearekin esango zutenak garaipenik ez baitzekarren berekin.

Telebistetan geroxeago agertu ziren nolanahi... begiak ilun, triste, opako ta noski, hitzak ere bai.

Erantzukizun
urrieki eta etika
ugariegi

Luis Aranberri 'Amatiño'
<http://eibar.org/blogak/amatino>

Gaztetxoen artean arazo, istilu, iskanbila edo erasoren bat denean, badirudi mundu guztia dela errudun, horrelakorik egin dutenek edo izan ezik. Edo gurasoak dira erdipurdikoak, edo eskola ez da behar beste arduratu edo erakundeak. (...)

Noski bakoitzak beren hautagaiak irabazi zuela esan zuten. Ondoren inkesten emaitzak eman zuten eta argi eta garbi Zapatero jaunak irabazi zuela adierazten zuten. Baino gehien harritu ninduena Llamazaresen sarrera izan zen telefonoz. Baztertu egin zutela eta eztabaidak iraun zuen ia bi orduak alderdien iragarki dohain bezala ikusi zuela.

Zati batean ados nago Ezker Batuko hautagaiarekin. Ezin da onartu Estatuko Hauteskunde orokorrean non alderdi bat baino gehiagok osatzen duten Espaniako parlamentua, bi alderdien artean soilik eztabai-

da dohain bat ematea. Baino beste alde batetik adierazi nahi dut geroz eta gehiago hurbilten ari garela Estatu Batuen hauteskunde sistemara. Hau da bipartidismora. Inkestek alde batetik inoiz baino boto gehiago ematen diotela bi alderdi nagusiei. Hori askok ez dugu nahi, baina aldi berean Italian gertatzen dena, pluralismoaren muga eta ondoriozko kaosa sistema parlamentarioan, ere ez dugu nahi gertatu dadin. Beraz zein da irtenbidea?

Momentuz gero eta gehiago hurbiltzen gara Estatu Batuera Italiara baino.

Nire bozka...

Garikoitz Iturbe

Aretxabaleta

Oraingoan ere hauteskunde antideokratiko batzuen aurrean gaude. Euskal jendartaren zati bat ordezkaritza gabe utzi dute berriz ere. Jai demokratiko bezala irudikatuko duten martxoaren 9ko egun horretara begira, alderdi abertzaleak hasi dira jada egoera normalizatua balitz bezala botoak eskatzen.

PNV negozioan bizi da. Ups, lapsus bat izan dut, Euskadin bizi da. Hauxe kampainarako aukeratu duten leloa. Beraien diskurso bat entzun eta ikusiko duzue zenbat aldiz esaten duten *Euskadi* hitza. Hau ez da kasualitate hutsa, beraien diskurso guztia euskal autonomia erkidegora zuzentzen dute. Euskal Herria terminoak ez du tokirik beraien hitzetan. Baino are agerikoagoa da, ozen esaten baitute, Madrilera autogobernua defenditzera eta garatzera doazela. Konstituzio barruan Euskal Herriak tokia baduela. Gezurra. Euskal Estatuak ez du konstituzioan tokirik, ukatua zaigu aske izateko aukera. PNVk Euskadi maite du, berak ematen dion botere politiko eta ekonomikoa. Bitartean bere indar armatuak kaleetan ezker abertzalearen aurkako gurutzadan egurra ematen dihardu. Nik zuek ez bezala Euskal Herrian bizi nahi dudalako, ez dizuet botorik emango.

EAK txisteratik bozgorailua atera eta independentziaren aldarrikapena ozen oihukatu nahi omen du Madrilen. Beraiek bakarrik izan behar omen dira Euskal Herriaren hitza Madrilen defendatuko dutenak. Hitz hauekin ANVren bazterketa politikoa ontzat ematen dute. Beste kontu batzuetan off botoia sakatuta hitz egiten duen alderdi honek, teorian esaten dutena praktikara noiz eramanago duen zain nago. PNVri sumiso izan den alderdi honi ere nik ez diot botorik emango.

Hor daude ere Aralarrekoak. Zibil eta zabalak. Ezker Abertzale politikoa. Besteak militar itxiak omen. Desobedientzia zibilaren apologia zale sutsuak, baina egiazen orduan printzipio hau baster batera uzten dutenak. Hor Aretxabaletako kasua. Herriaren aurrean ANVri Loreg legea aplikatuz alkatezta emango ziola esan eta alkatezta kargua hartu ostean hitzak haizeak eraman. Gainera, Aralar alderdia bera izan zen ANVren parte-hartzea Alderdieng Legearen baldintzen arabera zehaztu nahi izan zuena. Horretarako nahikoa dira Espainiako Estatuko fiskalak. Nik zuei ere ez dizuet botorik emango.

Ezin aipatu gabe utzi, alderdi abertzale hauek, Nafarroan NABAI formatuan, PP eta PSOEkin batera indar errepresiboen aldeko eta Estatuko epaileen aldeko aldarrikapen bat sinatu zutela. Bai irakurleok, ondo irakurri duzue. Torturen aurka, legez kanportzeen aurka behin eta berriz agertzen diren alderdi hauek babez osoa eman zieten neurri hauek bultzatzen dituztenei. Nola da posible? Hau onartezina da! Hitzak ez dato bat praktikan egiten duzuenarekin.

Aipatutako arrazoia medio, nik abstentzioaren aukera bat egingo dut.

Jekyll eta Hyde?

Arrixu Oliden

(Aretxabaletako EAJren zinegotzi taldearen izenean)
Aretxabaleta

Beldur naiz, jaun-andreak, beldur, ez ote garen Jekyll doktorea eta Hyde jaunaren kasu berri baten aurrean egongo. Beldur naiz bai, Aretxabaletako Udaleko junta municipala ez ote den gau ilunetan munstro zital batean bihurtuko, eta egunez bizi izandako gertaera dardo zorrotzak bailiran, beraien arerio politiko-ei pozoa bidaliko gaiztotutako hitz biziak. Gure aurrean Jekyll doktore irribarretsuarena eginda, eztaba politikorako gune propioa den udalbatzan ez dago inolako erantzunik gure argudioentzako, baina gero, alajaina, gerokoak. Hyde jauna irten da eszenatokira, ai-ai-ai, eta hitz zekenez hitz egiteko ordua bukatu denean, guk ibilitako argudioak zikintzen saiatzen da. Baino, jaun-andreak, zalantza bat daukat: eleberrian lez, Jekyll doktorea eta Hyde jauna pertsona bera ote, edo beharbada gure kasuan bertsioa berrituz Hyde beldurgaria beste norbait ote? Ez dakit...

Edonola, jo dezagun aurrera, hain gaizki hartuak izan diren gure esandakoak argitzera gure Hyde misteriotsu hau haserretu ez dadin.

1. Bai, 2008ko aurrekontuek 2007koen kopia dirudite. Hiru partida aurkitu ditut ezberdinak: 100.000 euro arrisku kapitalerako, 100.000 euro ekintzailetzarako eta 20.000 euro udal aldzkarirako (ez dakit oraindik Udalarenaren den, edo Udal Gobernuarena bakarrak). Beste partida batzuetan gorabeherak daude, batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago, eta beste modu batera ordenatua dago aurrekontua. Gogora dezagun Aralarrek ezezkoa eman ziela 2007ko aurrekontuei, eta EA, nahiz eta sinesgaitza izan, gurekin koalizioan zegoela.

Hau honela, ezinezkoa gertatzen zaigu guk aurrera ateratako proiektuak jasotzen dituen aurrekontuei ezetza ematea; baina gutxienez parodoxikoa dirudi proiektu hauei ezetza eman zien alderdiak momentu honetan bereak egitea. Agian beste ideiarik ez?

2. Dirua eta adreilua: Alderdiari, edo niri pertsonalki, dirua eta adreilua bakarrik gustatzen zaizkigu. Etxebizitzari buruz ari dira? Erreka osteko promozioari buruz ari badira, esan dezagun garbi: Aretxabaletan inoiz eman den promozio publikoko ekintza-plan garantzitsuena. Zenbat babes ofizialeko etxebizitzeta egin ditu Aralarrek gure herrian? 0. Eta EAk? 28. Eta EAJk? 100. Zenbat tasatu Aralarrek? 0. Eta EAk? 0. Eta EAJk? 187.

Edo etxebizitzeta hutsak merkaturatzeko Jaurlaritzaz sinatutako Bizigune Programari buruz ari dira. Edo adreilua da kultur etxea, egoitza berria, Urkuluko jarduera-plana, kirol etxea, Otalora kalea, Herriko Plazako proiektu, Duranako pasabidea...?

3. Aurrekontuak egiteko prozedura: urtarriaren 23an eman ziguten eskura gobernuak prestatutako aurrekontuen zirriborroa. Hiru ordu laurden iraun zuen Ogasun batzordeak eta otsailaren 11n aurrekontuak onartzeko plenoa egiteko asmoa zutela esan zitzagun, hau da, bi aste pasatzoko denbora. Oposizioan gauden hiru alderdi politikoek plenoa atzeratzea eskatu genion Inaxiori, eta honek otsailaren 14an finkatu zuen data. Greba zela-eta, azkenean otsailaren 18an izan zen plenoa, hiru aste pasatxo zirriborroa eman zitzagunetik.

Denbora honetan, batzar bat egin genuen gure proposamenak aurkezteko EAJko bi zinegotziok, Inaxiok eta Lorek. Hurrengo egunean idatziz aurkezu genituen proposamen hauetan Udalean. Hortik aurrera jasotako deialdiak izan dira: e-posta pasatu gaur goizean udaletik esanez eta geratu bost minutu batzar baten ostean proposamenei erantzuna emateko. Azkenean arratsalde batean 15:00etatik 15:30era egon ginen, ahoz gure proposamenei erantzunak eman zizkigutenei idatziz eskatu guk. Idatzia eta gero aurrekontuan benetan jaso dena ez dator guztiz bat.

4. Gobernu programa: Bai, egia da gobernu programa eman zigutela (edo Olentzeroi eskutitza). Azken bi orrietan inbertsio zerrenda bat jaso dute, ondo zenbatu badut 19 ekintza planekin. Horietatik 8 ez dira eurenak propio, eta 7 EAJk martxan jarritakoak dira. Eta gainera gobernu programari ekarpenak egitea eskaini

ziguten (gehiago?). Edozein modutan, azpimarratzeko da zaharren egoitzaren kasua, nola Aralarrek bere gobernu programan sartu duen guk kudeatu eta martxan jarrita utzitako proiektu estrategiko hau, aurreko legealdian proiektu honen aurka publikoki mozio, prentsurreko bidez, hain argi eta nabarmen azaldu eta gero.

Jarraitzea badaukat, baina uste dut oraingoz nahikoa dela. Sekula ez da gure estiloa izan komunikabideetan polemikarik sortzea, nahiz eta kritika gogorrak jaso iraganean, askotan pertsonalak, uste dugulako ez diola inolako onurari ekartzen ez guri alderdi politiko bezala, ez herriari eta ez politikagintzari orokorrean ere. Eta etorkizunean honetan jarraitu nahi genuke, baina udalbatzan isildu eta periodikotan iskanbila sortzen dutenei erantzun egin nahi genien itxuraz entzuten dakitzen modu bakarrean.

Ezkiak

Ramon Ugaldet Gorostiza

Arrasate

Irakurri berri dut Nafarroa etorbideko tiloak bota egin behar dituztela, eta haien ordez "bertako zuhaitzak" landatuko dituztela, hau da haritzak, pagoak eta astigarra. Berri hau emateko prentsurreko bat eman dute Arrasateko Udaleko hiru teknikarik eta zerbitzuako ardura duen zinegotziak. Harritu egin nau hori irakurtzeak, ezkiak bertako arbolak ez balira bezala... Tiloa edo ezkiak Europako arbola mota bat da, eta euskarazko leku izenetan ere ugariak dira ezki zuztarra daramaten toponimoak: Ezkiaga, Ezkioga...

Tilook botatzeko beste arrazoietako bat zera omen da: tamaina handiko ibilgailuek kalteak eragiten dizkietela. Baino tamaina handiko ibilgailuek eragindako kalteak inausketa egoki batekin konpondu daitezke. Beste arrazoi bat urbanizazio lanek kalteak eragindo dizkietela eta espaloia aurreikusita bezala egiten baditzute, espaloia erdian geratuko liratekeela. Hain zaila al da espaloia beste modu batera diseinatzea eta ezkiak errespetatzea? Zergatik lehenetsi behar du Arrasateko Udalak babes ofizialeko etxebizitzen urbanizazioa eta ez denonak diren ezki eder eta sendo horiek?

Beste "arrazoi" bat, orain dauden bezala zuhaitzen "segurtasun maila jaitsi egin dela". Ez dakit zein izan daitekeen zehazki segurtasun mailaren jaitsiera hori. Ezkiak adar txiki batzuk botatzen dituzte, baina inori kalte egiten ez diotenak.

Segurtasun mailaren gabeziak aztertzeko badauket non begiratu Arrasateko Udaleko teknikariek.

Babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntzan ezkiok edo tilook kalte asko jasan dutela ere aipatzen dute. Honen inguruan gogorarazi nahi diot Arrasateko Udalari arbola horietan eragindako kalteen erantzulea Visesa dela eta ez Arrasateko herria. Arrasateko Udalak erantzukizunak eskatu behar dizkio babes ofizialeko etxeen sustatzaileari. Garbi dago, bestalde, Arrasateko Udalak ere bere funtzio ikuska-tzailea ez duela ondo bete. Visesari expediente bat ireki beharrean urbanizazio lanak ordainduko dizkio. Honek ez du inongo zentzurik.

Niretako eta mondragoetar askorendako tilo horiek dira inguru zatar eta zakar hori edertu eta arintzen duten elementu bakarrak. Edertasunaz aparte beste arrazoi ugari ere badaude arbola horiek ez botatzeko: oxigenazioa, CO2ren gutxitzea, emango duten gerizpea, balio afektiboa, historikoa, looren usain gozo eta lasaigarria, industrializazioaren eta baten lekukotasuna... Baino urbanizazioaren ikuspuntutik ere tiloak haritzak eta pagoak baino egokiagoak dira, zuztarrak hobeto sartzen dira lurrean batez ere lur sendoetan, eta nekezago jasotzen dituzte baldosak. Pagoek sekulako zaintzak behar dituzte horrelako inguruan behar bezala hazteko (hezetasuna eta temperatura egokia...). Pagoen zuztarrek kanpora ateratzeko joera dute gainera. Eta zenbat denbora behar dute arbola horiek itxura baten hazteko? Beraz, Arrasateko Udaleko Zerbitzuetako zinegotziari zera eskatzen diot:

1. Ez ditzala Nafarroa etorbideko ezkiak moztu.

2. Eska dezala txosten informatibo bat teknikari ahalik eta inpartzialiei, ahal bada udaletxekoak izango ez direnak, ezkien bertakotasunaz eta hiri esparruetan sartzeko egokieraz.

3. Eska dezala txosten informatibo bat, pagoaz, haritz eta azkarraz, ea egokiak diren hiri eremuetan, espaloi ingurueta landatzeko...

4. Eska dezala txosten juridiko bat babes ofizialeko etxeen sustatzaileak egindako kalteak neurteko eta erantzukizunak argitu eta Mondragoeko hirriari dagokigun kalteordaina pagarazteko.

5. Azter dezala Arrasateko Udaleko teknikariengandik jaso duen informazio teknikoa eta ondorioak atera ditzala.

6. Espaloien diseinu berri bat eska dezala eta kontuan hardezatela diseinu alternatiboan anbulatoriore iristeko oinezkoendako modu egokienak.



'08 mm merke^{merkaua}

Arrasateko merkealdien azoka

MARTXOAK 1-2
10:30 - 21:00
Uarkape pilotaleku kantxa

- * Sarrera: 1 €
Sarrerarekin 1.000 € banatuko dira saritan
- * Ordainketak: eskudirutan

Ludoteka zerbitzua: 11:00-14:00 / 17:00-19:00

SUGAR gazte arropa (neska) ARRASATE	HIKA osagarriak ARRASATE	JOSLE lentzeria eta konponketak ARRASATE	MAINEKO ume eta gazte arropa ARRASATE	ELKORO bitxiak, osagarriak eta arropak ARRASATE																					
NOTHING WITHOUT skate-snow eta gazte arropa / ARRASATE	LORAMENDI KIROLAK kirol arropa eta osagarriak / ARRASATE	BEINKE larropa, bisuteria eta osagarriak ARRASATE	MABEL gizon eta emakume arropa ARRASATE	MARRUBI altzari, bitxiak eta osagarriak ARRASATE																					
HAURTXOA ume arropa ARRASATE	CASA CECIAGA lentzeria ARRASATE	KORO ZABAleta emakume oinetakoak ARRASATE	LOS VAQUEROS gazte arropa ARRASATE	UME ume eta gazte arropa ARRASATE																					
KILI KOLO emakume arropa ARRASATE	KAPIKUA opari eta osagarriak ARRASATE	OSKARBI oinetakoak ARRASATE	TROKO emakume arropa ARRASATE	GARRAXI gazte arropa ARRASATE																					
TTIKITTO ume arropa ARRASATE	KLAS gazte arropa ARRASATE	UARKAPEKO KANTXA / STANDEN BANAKETA																							
MONTE TABERNA ARRASATE	 ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MÓNDRAGON <small>■ Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Sailea</small> 	① SUGAR	② Hika	③ JOSLE	④ MAINEKO	⑤ ELKORO	⑥ NOTHING WITHOUT	⑦ LORAMENDI KIROLAK	⑧ BEINKE	⑨ MABEL	⑩ MARRUBI	⑪ HAURTXOA	⑫ CASA CECIAGA	⑬ KORO ZABAleta	⑭ LOS VAQUEROS	⑮ UME	⑯ KILI KOLO	⑰ KAPIKUA	⑱ OSKARBI	⑲ TROKO	⑳ GARRAXI	㉑ TTIKITTO	㉒ KLAS	㉓ MONTE TABERNA	㉔ TABERNAKO TERRAZA



Aurten 84 milioi euro inbertituko ditugu Gizarte Ekintzan. **Aditurek esaten digute gure irudia hobetu egingo litzatekeela kanpaina mediatiko zirraragarri baten bidez. Bainaz ezagutzen gaituzu.** Guk nahiago zuri Instituto Onkologiko berrirako lanak erakutsi.

125 urte gizarteaaren ongizatearen alde lanean
Gizarte Ekintza, kutxaren izateko arrazoia.



www.kutxa.net

 **kutxa**

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Biona taberna ezagunari despedida jaialdia egingo diote > 18



> **OÑATI**
Kasablankako etxeetarako izena emateko bulegoa zabalik dago > 33



> **ANTZUOLA**
Pibote mugikorrak ipiniko dituzte Kalebarrenen eta Herriko Plazan > 36



> **ELGETA**
Baltxongua denda itxi egingo dute Agirre ahizpek bihar > 37

ARRASATE > MERKATARITZA

Hiru erosketa-txeketan 1.000 euro zozketatuko dituzte Merkemerkauan

MERKEALDI AZOKA

Zapatu eta domekan egongo da zabalik Merkemerkaua azoka

HERRIKO 23 DENDA

Arropak, osagarriak, zapatak, altzariak... eramango dituzte Arrasateko 23 dendak

ZOZKETA

Bisitarien artean, 500, 300 eta 200 euroko txekeak zozkatuko dira

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Denboraldi bukaerako arropak, osagarriak eta bestelakoak, bes-te denboraldi batzuetatik geratu diren produktuak eta datorren denboraldiko batzuk oso prezio baxuan erosko aukera egongo da bihar, zapatua, eta etzi, dome-ka, Arrasateko Udalak antolatu-tako Merkemerkaua merkealdi azokan. Atzo eta gaur goizean ziren dena muntatzeakoak, eta hala, Uarkape pilotalekuau, pos-tu bana izango dute Arrasateko 23 dendak, eta azoka eten barik zabalik egongo da 10:30etik 21:00ak arte.

BERRITASUNAK

Iazkoarekin alderatuta, berrita-sun batzuk daude. Hala, adibidez, sarrera kobrautu egingo dute: euro bat, 18 urtetik gorakoek; adin txikikoak doan sartu ahal izan-go dira. Garmendiak dioenez, "prezioa sinbolikoa da; helburua ez da hortik dirua ateratzea, bai-zik eta jakitea zenbat jende dato-ren". Ez hori bakarrik: sarrera-en atzealdean, iritzia emateko aukera izango da.

Atzealdean ere, norbere datuak ipini eta zozketa baten parte hartzeko aukera egongo da, prezioa ordaindu behar iza-naz konpentsatzeko: "Domeka ilunkaran, parte hartzen duten



BIGARRENA Aurtengo bigarren Merkemerkaua izango da; argazkian ikusten den moduan, iaz jende asko erakarri zuen merkatuak.

JOSETXO ARANZABAL

LABUR

> ORDUTEGIA

Zapatuan eta domekan 10:30etik 21:00etara egongo da zabalik Merkemerkaua, Uarkape pilotaleku kantxan.

> SARRERA

Euro bat kobrautuko diete sarrera 18 urtetik gorakoek; prezio sinbolikoa da.

> SARIAK

Sarrera-txartela kutxa batzuetan sartuta, 500, 300 eta 200 euroko erosketa-txeke banaren zozketan parte hartu ahal izango da.

> LUDOTEKA

Azokaren azpi-azpian, doako ludoteka zerbitzua egongo da, 10 urtera arteko umeendako.

> TABERNA

Uarkapeko tabernaz gain, beste bat prestatuko dute.

19:00etara egongo da zabalik. Horrekin batera, propio merkaturako prestatutako taberna ere egongo da, Uarkapeko tabernaz gain, azken hori itxita egongo da eta domekan. Jatekoak eta edatekoak salduko dituzte han.

MERKATARIAK, POZIK

Iaz egin zuten lehenengo Merkemerkaua, eta arrakasta handia izan zuen; Arrasateko Udaleko Lan eta Enplegu teknikari eta Merkemerkauko antolatzaila Marga Garmendiak dioenez, "merkatariak esan ziguten oso ondo saldu zutela, eurek uste bai-no hobeto". Hala, aurten, merkatariendako izenemate epea zabaldu eta "bi egunetan" bete zen kupoa. Iaz, azken unera arte ez zen kupo hori bete, eta Bergarako eta Aretxabaletako denda batzuekin bete zuten azkenean; aurten, ordea, ez dute inolako arazorik izan. Muga bakarra Uarkapeko kantxaren neurriek ipini

dute; iaz, neurria hartuta ere, Uarkape bete-beteta egon zen merkatuak iraun zuen artean. Debagoinetik ez ezik, kanpotik ere etorri ziren erosleak.

Parte hartuko duten denda gehienak arropa-dendak dira, helduena, gazteena eta "umeen-dako arropa-denda dezente", esan du Marga Garmendia antolatzai-leak. Horiez gain, oinetako-den-dak ere egongo dira; baita moda-osagarrienak, altzarienak, etxe-rako osagarrienak eta kirol denda bat ere.

Produktuek zenbateko behe-rapena izango duten merkatari bakoitzak finkatuko du, baina "oso merkeak, dendetan egoten diren baino merkeagoak" izango direla esan du Marga Garmendiak. Horrez gain, xehetasunak, kasu bakoitzean, merkatari bakoitzari galdeztea gomenda-tzen du Udaleko teknikariak: adi-bidez, produktu bat bueltatu egin gura bada.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapata, 1	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Domeka, 2	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Astelehen, 3	Amezua	Santamarina, 32	943 79 09 74
Martitzena, 4	Español	Arabako etorbidea, 14	943 79 18 65
Eguaztena, 5	Ruiz	Nafarroa etorbidea, 1	943/791409
Eguena, 6	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Egubakoitza, 7	Azkoaga	Ferreras, 1	943 79 15 15

BERGARA

Zapata, 1	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Domeka, 2	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Astelehen, 3	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Martitzena, 4	Urrutikoetxea	Oixondo, 4	943 76 11 74
Eguaztena, 5	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 6	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 7	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63

ONATI

Zapata, 1	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 2	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehen, 3	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 4	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 5	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 6	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 7	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28

ARETXABAleta

Zapata, 1	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 2	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Astelehen, 3	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 4	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 5	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 6	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 7	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udalatxingoak	
Antzuola.....	943 76 46 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

GARRAOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 76 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hildegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritzan garbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakidegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Onati.....	943 78 03 67
Kiroldegia	
Aramai.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Onati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramai.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramai.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Bitez, Legarre, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregón, Obeñerrea, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obeneñereka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.	

BERGARA

San Lorenzo/San Juandiel irteerak	
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Gera-lekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martxoko, Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluze), Matxategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martxoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonomo-koan) eta Zabala jatetxeak.	
Labegarieta/Olabarrenetik irteerak	
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Gera-lekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martxoko, Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluze), Matxategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martxoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta, Zubiaurre, Martxoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta, Zubiaurre	

kale inuesta

Oscar sariak eman berri dituzte. Gustuko duzu zinema?



Socorro Sevillano
Langilea
Oñati



Miren Plazaola
Langilea
Oñati



Miren Bikúña
Langilea
Oñati



Tomás Lizarralde
Langilea
Oñati



Alicia Feijoo
Erretiratua
Oñati

Zinea gustatzen zait, baina ez naiz joaten. Pelikularren bat gustatzen bazait, etxeen ikusten dut. Gaztetan joaten nintzen, baina orain ez. Jen de asko joaten da hiriburueta zinera.

Zinea gustatzen zait, baina ez izaten dut joan, umeagatik. Umeentzako zinea dagoenean joaten naiz, eta herrian aukera baldin badaukat ere joaten naiz, eta bestela, hiriburueta zinera.

Umeekin joaten naiz beraien gustuko den pelikula ikustera batuetan, baina niri ez zait zinea gustatzen. Zinera joatea baino nahigo izaten dut liburu bat irakurri, gehiago gustatzen zait eta.

Ez naiz zinera joaten. Duela 30 urte joaten nintzen. Orain nahiago iza ten dut menditik buelta bat ematera joan. Orain, telebistarekin, bertan ematen dituzten pelikulak ikusten ditut.

Zinea gustatzen zait, baina mota batzuetako pelikulek urduri jartzen naute. Nahiago izaten dut mendira edo hondartzara joan. Gazteago nintzean sarriago joaten nintzen.

txistuak



GOIENKARIA

Jendea kexu da ipini duten hesiarekin



Bergarako Santa Marina zubiaren ostean ipinitako hesiak harridura sortu du hainbat herri-tarrengan. Herriko jendea ohituta zegoen handik pasatzen, eta askok ez dute ulertzen zer-gatik ipini duten hesia, baina bertan autoak daude aparkatuta eta arriskutsua izan daiteke oinezkoentzat. Oinezkoek bidea pasatzeko eman behar duten buelta handiagoa da orain.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlitzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

48

Horixe da Oñatiko Otadui Zuhaitzia kalean eraikiko dituzten etxebizitza tasatuen kopurua. Etxe horietakoren bat eskuratu nahi duenak dagoeneko zabalik du bulegoa Kale Barriko 30. zenbakian, beheko solairuan.

Zinegotzi sozialistak testuan aurrera egin ahala pleno aretoan geunden hainbatetan aurpegia aldatzen zihoazen; tartean nirea, eta nire ondoan eserita zeuden bi kazetarie-na, biak emakumezkoak.

Badakit hauteskunde garaia dela eta politikariek edozein aukera aprobetxatzen dutela politika egiteko. Baina sozialisten mozioak egindako Martxoaren 8aren eta, era berean, emakumearen erabilera lotsa eman zidan. Diskurtsoa erabat partidista eta elektoralista zen. Emakume izaera horren gainetik dago.

5 galdera...

Maribi Muxika

Oroiore hileta beilatokiko Bergara

1. Zein da Oroiore beilato-kian eskaintzen duzuen zerbitzua?

Norbait hil dela abisatzen diguten momentutik pertsona hori hilobiratzea edo erraustu arteko pauso guztiak. Horrek esan nahi du familiari azaldu egiten diogula nondik nora doazen pauso guztiak, eta behar dueña eskaintzen diogu. Lagunza moduko bat gara gu, psikologo antzerakoak, eta behar duen guztia eskaintzen diogu familiari.

2. Halako momentu gogo-rretan, zer da jendeak behar duena?

Nire kasuan, ikusten dudana da jendea oso galdua egoten dela halako momentuetan. Niri gustatzen zait familiar bozeramaile bat egon dadila, beste guztiek asko sufrizten baitute. Hari azaltzen diogu gauzak nondik nora doazen, halako momentu gogo-rretan, jendea oso galdua egoten da-eta.

3. Esaten da ekonomikoki hileta bat nahiko gares-tia dela. Hala dela uste duzu?

Jendeari erraztasunak eman behar zaizkio zer nahi duten aukeratzeko, eta prezioak esan, eta gero haiei utzi aukeratzen, beste edozein lekutan moduan. Niretzat ez da garestia, baldin eta familiartekoei ondo aholkatzen badiezu momentu horretan.

4. Beilatokietan ere agin-tzen dute moda kon-tuek?

Ez. Hemen ez dauka zerikusirik zeinek zein baino gehiago eraman behar duen, nork eramaaten duen koroa handiena, edo hil-kutxa dotoreena. Garrantzi tsuena ez da hori. Hemen importa dena tartean hildako bat dagoela da, eta azkeneko momentu horretan harekin egotea eta familiari laguntzea.

5. Zuen zerbitzuak nahi izanez gero, non aurki zaitzakete?

Gu Bergaran gaude, eta gure-gana etorri nahi duen edonork Amillaga auzoko 27. zenbakian aurkituko gaitu.



Des-Kontrol, Aggressive Combat, Never Surrender eta The Clash taldeek joko dute

"Gorputzak eutsi arteko" jaia egingo dute domeka goizaldera arte

53 urteko historia izan du Biona tabernak

UBANE MADERA > ARRASATE
Oraingo asteburu hauxe da azkena 53 urtez zabalik egon den Biona taberna bisitatzeko. Hiru eguneko agur-jaia egin ostean, atea itxi egingo ditu. Edozelan ere, merezitako agurra emango diote taberna mitiko horri. Gaur, egubakoitzta, pintxoak banatuko dituzte. Bihar, berriz, Bionako langile, langile ohi eta lagunez osatutako 40 bat pertsonako taldeak bazkaria egingo du Udalaren (Larrinetxen) eta 18:00ak aldera Bionako atea zabalduko dituzte, azkeneko aldiz. Orduantxe hasiko da benetako jaia. "Festibala egongo da, honako taldeek parte hartuko dute: Never Surrender, Aggressive Combat, Des-Kontrol eta The Clash interpretatzen duen talde batetek [Teklas]. Gero karaokea egongo da, eta goizaldean, txokolatada. Horrik aurra, gorputzak eutsi arte!", dio Sagra Lopezek, 1977a ezkerro tabernako ugazaba izan denak.

TABERNA BEREZIA
Historia eta oroitzapenerako ugari utzikio ditu atzean eta arrasatear askoren gogoan Bionak, berezia izan delako. Hala ikusten du Lopezek: "Bionak giro propioa dauka, oso beroa, solidarioa eta progresista. Uste dut jende gaztearendako, batzuetan behintzat,

GIZARTEA > BIONA TABERNA ITXI EGINGO DUTE, ASTEBUKAERAN

Oraingo eta betiko lagunek agur esango diote Bionari



AZKEN AGURRA Urte luzez Bionako bezero, lagun eta langile izan direnak Biona tabernan, oroitzapenerako argazkian.

U.M.

etxea modukoa izan dela; eurek ez dute leku askorik eta Bionan aurkitu dute euren leku: etxea".

"Gazteak sartzen ziren San Juanetan, gauean lehenengo aldiz irten zirenean. Gero hasten ziren asteburuetan; 18-15 urterekin zen hori. Gero 17 urterekin askok jarraitzen zuten eta beste askok beste taberna batzuk aukeratzen zituzten. Dena den, Biona zen eskolatik irten eta lehenengo pausoa", dio Jaiok, 15 urtez zerbitzari. Jaiok berak eta Jaio moduan ez horren gaztetxo diren askok ere igarriko

du, baina, Bionaren falta: "Ez da izango gaua bera. Orain kalera irten eta badaukazu leku bat, badakizu non batu zaitezkeen lagunekin, edo zerbitzariarekin. Hori desagertu egingo da".

ORDULARIA, ZUBIZARRETARENA

Jakina, anekdotak ere baditu Bionak, mordoxka bat. Adibidez, barra atzean urte hauetan guztietan iku si dugun paretako ordularia Andoni Zubizarreta atezaiznak eta haren emazte Ane Miren oparia da. Eguneroko jardunarekin lotutako

en artean, berriz, Jaiok zera du gogoan: "Hasieran dena zen txikitoea: Zerrajeratik irten eta txikitoea, etxera joan, baziak, lane-ra joan, irten eta berriro txikiteoa. Gainera, atetik sartzen ikusi eta segituan atera behar genituen txikitoeak. Denborarekin izugarriko aldaketa gertatu zen: garagardoa agertu zen eta bat-batean... dena zen garagardo!"

Bestalde, musika arloan ere berritzalea izan da Biona. "77-78an, 60ko hamarkadako musika ipintzen hasi ginen. Izugarrizko

arrakasta izan zen hura. Akaso, musika ipini zuen lehenengo taberna izan zen hau. Sasoi batean, leihoak apurtu egiten ziren, jendea ez zelako kabitzen. Hori musikaren eragina zen", gogoan du Sagrak. Eta jakina, ezin ahaztu zenbat taldek jo duten Bionan: Cicatriza, Rip, Kortatu, Korroskada... "gaztetxe gutxi zegoen-eta."

Agur esateaz bat, Sagrak zera azpimarratu gura du: "Oso gustura egon naiz jendearekin, afektiboki oso beroa izan da. Asko ikasi dut".

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

AHTk Arrasaten izango duen ibilbidea ezagutzeko ekimenak

Bihar, zapatua, ibilaldia egingo dute; horrez gainera, ibilbidea erakusten duen CDA egin dute

U.M. > ARRASATE

Abiadura Handiko Trenak Arrasaten egingo duen ibilbidea eta trenak izango dituen ezaugarriak (zubiak, tunelak...) ezagutarazteko hainbat ekimen izango dira.

Adibidez, AHT Gelditu Elkarlanak deitura, bihar, 10:00etan Herriko Plazan hitzordua egin dute. Hitzaldia egingo dute, azaltzeko "zer den trena eta zein ondo-

rio izango dituen", aditzera eman dute Elkarlanekoek. Handik Garagartzia ingurura joko dute eta Udalatxerako bidea hartuko dute "proiektatuta dauden Udalatxeko hiru tunelen gainekoak azaltzeko". Bidean esplikatuko dituzte trena egiteak izango duen eragina (kamioien joan-etorría...) eta, besteak beste, Gesalibarko auzotar batek esplikatu-


ko du auzotarren egoera, ikuspuntu eta beste. Bukatzeko, Garagartzan salda eta txorizoa banatuko dituzte.

CD-A, ERDIKO TABERNETAN

Trenaren ibilbidea eta eragina modu grafikoan azaltzeko asmoarekin, Balen Tramon gesalibartarrak argazki-muntaia egin du: "Erdialdeko tabernetan banatu dut, gura duten herritarrek esku-rira dezaten", azaltzen du. Gaineratu du auzotarrak kezkatuta daudela kontu horrekin: "Gezurretan dabiltza eta desinformazioen. Lurren jabeoi ez digute esan ez noiz, ez nola eta ezta zer egingo duten ere. Plano ofizialetan ere gezurretan dabiltza. Adibidez, ez dute irudikatu Gesalibarren tre-na sartuko denik egundoko zubia-ren bitarbez, eta, besteak beste, trenbidea hirukoitzu egingo denik hemen; sortu behar dituzten bi zabortegiak betetzeko 120.000 kamioikada beharko dituztela, baserri bideak apurtuko dituztela, eta abar".



- biaduktoa
- lurrazaletik
- tunela



- tunela
- lurrazaletik
- biaduktoa
- obretarako sarrerak
- desmonteak
- hondakindegia

MUNTAIA AHTren ibilbidea erakusten duen muntaia egin dute.

BERDINTASUNA > GAZTEEI ZUZENDUTAKO KOMIKI BERRIA

Gazteen artean tratu egokiak bultzatzeko komikia

'Astelehenak' izenburuarekin, 1.000 ale argitaratu dituzte, 14 eta 16 urte bitartekoei zuzenduta; Unai Busturiak eta Julen Ribasen egindakoa da

T. MADINA/U. MADERA > ARRASATE

Indarkerian oinarritutako harremanak, indarkeria bakoak, lesbianismoa, emakumeen segurtasun falta, Interneteko pornografia eta emakumeen aurkako indarkeriareni aurrean gizartearen erantzuna dira, besteak beste, aurkeztu duten *Astelehenak* komikiak lantzen dituen gaietako batzuk.

Hainbat jarrera eredu azaltzeaz gainera, ekimena bultzatu dutenek ez dute esan gura zein egoera den egokia eta zein ez, gazteren artean eztaba sortza da-eta

komiki horren helburu bat: "Azaltzen da gazteen artean sortzen diren harreman sentimentaletan gerta daitezkeen egoerak, eta gazteen artean egoera horien gaineko eztaba eta hausnarketa bultzatu gura dugu", azaldu du Oihana Aranburu, Udaleko Emakume Saileko arduradunak.

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako plataformaren ekimenetan landutako proiektua da *Astelehenak*: "Emakumeen kontrako biolentziaren aurkako plan orokorrean jasotakoaren arabera, ikusi genuen garrantzitsuak



EMAKUME TXOKOA Maite Barreña eta Oihana Aranburu, *Astelehenak* komikia aurkezten, Emakume Txokoan.

TXOMIN MADINA

direla hezkuntzan gaztekin egin beharreko lanak. Biolentzia mota hori ezabatzeko eta beste harreman motak sortzeko saikeran, prebentzio arloan, importantea da gazteen artean hausnarketa egotea, debatitzea", gaineratu du Maite Barreña, Emakume Saileko teknikariburuak.

Gazteengana hurbiltzeko, komiki formatua aukeratu dute la azaldu zuen Oihana Aranburu

zinegotziak: "Komikia modu errazagoa izango zela pentsatu genuen. Eta egileen bitartez [Unai Busturia eta Julen Ribas], horretan ahalegindu gara, Arrasateko irudiak erabiltzen eta Arrasateko euskara erabiltzen".

Astelehenak komikia ikastetxe guztietan banatu dute. Horrez gainera, liburutegian, gazte txokoan eta gazte bulegoan ere bada eskuragarri.

MARTXOAREN 8KO KARTELA

Astelehenak aurkezteaz gainera, aurkeztu dute, baita ere, Martxoaren 8a iragartzeko aukeratu duten kartela. Lehiaketara aurkeztu diren 17 kartelen artean, Haritz Iñurritegi 26 urteko arrasatearraren aukeratu dute. *Gurea dugu giltza, zabal ditzagun ateak* da leloa. Hala, irudi hori erabiliko dute aterako dituzten 150 kartel eta 8.500 eskuorrietaan.

INGURUMENA > ZUHAITZ EGUNA 2008

Haritzak eta gaztainondoak sartuko dituzte Garagartzan

150 ikaslek parte hartuko dute Zuhaitz Egunean eta erretiratuak ere gonbidatu dituzte

U.M. > ARRASATE

Gaur zortzi, martxoaren 7an, ospatuko dute Zuhaitz Eguna. Udal Ingurumen Sailak deituta, herriko ikastetxeetako 150 ikaslek eta 10 irakaslek (LHko seigarren mailakoak) parte hartuko dute. Horrez gain, erretiratuei ere dei egin die Udalak, parte hartzeko; "asko eskertzen dugu haien laguntza", azpimarratu du Pello Garaik, Ingurumen Saileko udal teknikariak.

10:00etan egin dute hitzordua, Garagartzan. 11:30erako-edo bukatzea espero dute.

OPARITXOA ETA HAMARRETAKOA
200 zuhaitz landatuko dituzte: 150 haritz eta 50 gaztainondo. "Iazko toki berean landatuko ditugu, Lete izenez ezaguna den tokian", azaldu du Garaik. Eta gaineratu du hamarretakoa eta oparitxo bana emango dizkie-tela parte-hartziale guztiei.

HISTORIA > BITERI ESKOLAK

Biteri Eskoletan ibili ziren ikasleen bila dabil Udala

1936a baino lehen Biteri Eskoletako ikasle izandakoenei testigantzak batzen dabilta

U.M. > ARRASATE

Pedro Biteriren urteurrenaren harira, haren ohorezko ekimen multzo bat prestatzetan dabilta.

Tartean, Biteri Eskoletako ikasle ohiak bideoz elkarrizketatzen hasi ziren joan den astean. "1936ra arte Biteri Eskoletan ikasten ibili zirenak gabiltza elkarrizketatzen. David Artzamendi (93 urte) eta Flora Arregi (91 urteroa) elkarriketatu ditugu oraingoz", kontatu du

Juan Ramon Garaik, elkarrizketak egiten dabilenak. Baino hark gaineratu du zaitasunak dituztela gehiago lortzeko: "88 urtetik gorako pertsonak dira. Batzuk ezagutzen ditugu, beste batzuk ez. Dozena bat-edo izango dira, eta, ahal badugu, gehienekin egon gura dugu". Beraz, dei egin dute berbalagun gehiago lortzeko. Norbait gertu balego, Kultura Sailera jo behar du eta Jon Garairengatik galdu.

> JAIA

Andaluziako Eguna ospatuko dute gaur eta Bihar, Musakolan

Atzo, eguna, hasi zituzten Andaluziako Eguna ospatzeko ekitaldiak. Al-Andalusen aretoan zabaldutzen Sevillako Aste Santuaren gainezko argazki erakusketa eta Al-Andalus abesbatza errozieroak Andaluziako ereserkia abestu zuen.

Bihar, 13:00etan, Alegria de la Sierra eta Goikobalu abesbatzek kontzertua egingo dute eta, bukeran, luntxa izango da. Bestalde, 16:30ean, Paco Cuesta magoak eta Sabiron pailazoak umeendako saioak egingo dituzte. 19:00etan, Alegria de la Sierra dantza taldeak eta Al-Andalus abesbatza errozieroak jardungo dute eta 21:30ean afaria egingo dute.

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leioak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegi osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B-53 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN

Jatetxea

Garagartz auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

((112))
SOS DEIAK

Iban del Campo > Zinemagilea

"Esperientzia aberasgarria izan da arrazoi askorengatik; film laburrak egiteak adikzioa sortzen du"

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE
Iban del Campo arrasatearrak eskamentua du zinema kontuetan. Orain arte dokumental arloan murgildu da; pasa den egunean, *Lo bakarrak* fikziozko film laburra aurkeztu zuen Arrasaten. Lehenengoa du.

Zer moduz aurkezpena?

Oso ondo, desiratzen nengoen jendaurrean erakusteko. Arrasaten aurkeztu dut Udalak eman-dako dirulaguntza eskertzeko. Iritzi onak jaso nituen ikusle eta baita lantaldearen aldetik ere.

Gustura zaude, beraz.

Duda barik; esperientzia guztiz berria eta aberasgarria izan da, errepikatzeko modukoa.

Harkaitz Cano idazlearekin elkarlanean sortutakoa da.

Bai, urtetako lagunak gara eta aspalditik genuen elkarrekin lan egiteko gogoa. Gidoiaz gain, ekoizpenean ere parte hartu du.

Zer kontatzen du filmak?

Lo bakarrik egin ezin duen neska bat da istorioaren mamia; insomnioari aurre egiteko, ezezagun bati eskatzen dio laguntza.

Dokumentalak egin ostean, ezberdintasun asko aurkitu dituzu filma egiterakoan?

Asko. Aktoreekin lan egin dudan lehenengo aldia izan da. Bilboko bi aktore gazte dira protagonistak: Leire Olaran eta Iñigo Iraultza. Sekulako sorpresa hartz genuen casting-era hurbildu zen jende kopurua ikusita. Kanpotik ere etorri ziren.

Dekoratuekin lan egitea ere gauza berria izan da zuretzat.

Bai, istorio gehienetan kokatuta dago. Hasiera baten lagunen baten etxearen egiteko asmoa genuen arren, hiru erroda-gegun bakarrilk izanda ere, ordu gehiegi ziren etxeak okupatzeko. Donostiako Tabacalerako langileena zen etxe bat erabiltzeko aukera izan genuen gero. Aproposa zen, nahiz eta bi egunean jantzi behar izan genuen.

20 lagun izan zarete lanean.

Hori ere berria izan da niretzat, orain arteko proiektuetan bakarrik jardun dut-eta. Sekulako zortea izan dugu lanaren truke dirurik jaso ez duen talde profesionala eta jatorra aurkituta.



Iban del Campo zinemagilea, Arrasaten egin zuen aurkezpen egunean. LARRAIZT ZEBERIO

"Aktoreekin lan egin dudan lehenengo aldia izan da; eurentzako ere lehen aldia zen"

"Urtetako laguna dut Harkaitz Cano; aspalditik gura genuen elkarrekin lan egin"

Soinu banda Gose taldearena da.

Bai; gidoia idazten geundela Gosen seaska kantua entzun genuen, eta espresuki guretako eginda zegoela iruditu zitzagun.

Orain ze asmo duzu?

Jaialdietara bidali, Interneten bitartez zabaldu... ikusi egin behar! Proiektu gehiagotan parte hartzeko gogoa sartu zait, ezer zehatzik ez dut lotuta, baina aukera guztieta zabalik nago.

MUSIKA > ANDOINGO PIANO JAIALDIA

Arrasateko pianistek maila ona eman zuten

A.A. > ARRASATE
Andoingo Bastero kultura etxean izan zen III. Piano Lehiaketa aste bukaeran; ibarreko ordezkarriak izan ziren, horien artean, Arrasate Musikaleko 20 ikaslek parte hartu zuten.

Pieza klasikoko doinuak eskaini zituzten: bakarka jo zuten batzuk eta lau eskutara beste batzuk. Erakutsitako lan txukunarekin gustura itzuli ziren etxera; irakasleen esanetan, inoiz baino parte-hartziale kopuru handiagoa eta maila handia izan da aurtengo jaialdian.

DOMINA BANAREKIN ETXERA

Parte-hartziale bakoitza domina bana ekarri zuen, ohi den moduan, bakoitza erakutsitako mailaren araberako domina.

Hori horrela, hauek izan ziren arrasatearrek eskuratutakoak: hiru urrezko domina Maitane Mayor, Leire Retegi eta Lorea Church-ek eskuratu zituzten.



ARRASATEKO ORDEZKARIAK Jaialdiko parte-hartzialeak, Rakel Hernandez eta Isabella Blezien irakasleekin. ARRASATE MUSIKAL

Zilarrezkoak, berriz 14 izan ziren: Ainhoa Heriz, Enara Lamadrid, Gorka Barkero, Nerea Barriocanal, Nagore Gomez, Marina Lasa,

Maria Jaca, Mikel Barkero, Oihana Gonzalez, Eukene Dorronoro, Garazi Romero, June Ortiz de Landaluze, Sara Larrabe eta

Danel Cusi. Eta amaitzeko, hiru brontzezko: Maitane Lasa, Natalia Ortiz de Landaluze eta Leire Estevezentzako izan zirenak.

ARTEA

Iñigo Arregi artistaren arrakasta Madrilen

Interes handia sortu zuen Art Madriden izan ziren galerista eta adituen artean

A.A. > ARRASATE

Iñigo Arregi arrasatearra 14 urterekin hasi zen artelanak egiten. Margoak, eskulturak, grabatuak eta erliebeko marrazkiak egiten ditu. Azkenaldian, urtetako lanaren fruitua jasotzen ari dela azaldu du Arregik Arrasate Irratian. Horren adibide, otsailaren 12tik 17ra bitartean izan den Art Madrid esanguratsuan parte hartzeko aukera izan duela. Parte hartu eta sekulako arrakastarekin itzuli da etxera; salmentez gain, Espanian zehar lanak era-kusteko gonbidapen ugari jaso ditu. "Saltza garrantzitsua da, baina are gehiago erakusketarako gonbidapenak jasotzea. Galerista bakotzak normalean bere artistak izaten ditu; koto itxia izaten da. Jasotako eskauntzak aztertuko ditut orain, onena aukeratzeko", azaldu du Arregik, pozarren.

ERLIEBEDUN MARRAZKIAK

Bederatzi eskultura eta erliebean egindako zazpi marrazki eraman ditu Arregik Madrileko azokara. "10 bat urte ziren erliebedun marrazkiak egiten ez nituena, eta azokarako egtea pentsatu nuen. Gustukoak izan dira, asko izan dira argazkia ateratzera etorri zaizkidanak. Marrazkiak baino gehiago, eskegitako eskulturak direla esango nuke", dio.

> ANTZERKIA
Haurrentzako antzerkia, egunean

Datorren egunean, martxoaren 6an, oinekin egindako haurrentzako antzezlan berezia ikusteko aukera izango da Kulturan, 18:00etan.

Veronica González, jaiotzez argentinarra dena baina azkenaldian Italian bizi den aktoreak, bere oinak erabiltzen ditu horiek txontxon-gilo bilakatzeko. Haurren gozamenerako, hezur-haragizko txotxongilo horiei bizi-tza ematen die Gonzálezek, musikaren laguntzarekin, fantasia, erritmo eta kolorez betetako eszenatan. 3 urtetik gorako haurrendako gomen-dagarria da.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen □ bada **giro!**

TRLUTZ
TABERNA
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABAleta Tel.: 943 79 32 34

EZKUTU
TABERNA
Zatoz gure musikaz gozatera
Mitarte 9 ARETXABAleta Tel: 943 79 92 01

VALDEZATE
Bokatak eta plater konbinatuak
Araba ibilbidea 5, behea - Tel: 943 25 07 40

IOSU
taberna
harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08

DORLETA
DORLETA
Loteria primitiboak eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABAleta

OTZETA JATETXEA

BASABE
Menuak eta afariak

Gurea
TABERNA
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

HIRUSTA JATETXEA

hemen □ bada
giro!

Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABAleta 943 79 16 68

hemen □ bada
giro!

ATLETISMOA

Selekzioen Pirinioetako Txapelketa, bihar

X.U. > ARRASATE

Bihar egingo dute Selekzioen arteko Pirinioetako Txapelketa, Anoetan. Bertan, Bizkaiako, Gipuzkoako, Arabako, Andorrako eta Baionako selekzioak lehiatuko dira, eta Arrasatek hainbat ordezkari izango ditu Gipuzkoako selekzioan. Nagusien mailan, pertika jauzian Jonathan Perez lehiatuko da, eta Remi Diodado izango da 4x200 metroko errelebo lasterketan.

Maialen Axpe, berriz, 17 urtetik beherakoentzako kategorian hartuko du parte.

AMURRIOKO EMAITZAK

Horrekin batera, joan den astean jokatu zuten Amurriion Euskadiko krosa. Infantiletan Maria Jaka 13.a izan zen, eta kategoria berean Andoni Perez 9.a izan zen. Gaztetxoekin batera, klubeko beteranoek ere hartu zuten parte. Hala, Javier Mentxakak meritu handiko postua lortu zuen, 50 urtetik gorako kategorian bigarren azkarrena izan zen-eta, zilarrako domina, beraz.

Eta beteranotan baita ere, 55 urtetik gorakoentzako kategorian Cesar Diazek brontzea jantzi zuen.

> MENDIA

Martxoaren 8rako eta 9rako bi irteera antolatu ditu Besaidek

Batetik, martxoaren 9rako oinez egiteko mendi irteera antolatu dute. Egun horretan Lizarrustitik Sarastarrira egingo dute, eta handik Ataurera.

Eta, asteburu bererako mendiko eskia egiteko irteera ere antolatu dute, Arrens-etik Portaleterra. Informazio gehiago Besaideko egoitzan (943 77 30 66).

> XAKA

Arrasateko xakelarieiek Baionako laukotea hartuko dute etxearen

Arrasateko San Andres Xake Taldeak zail izango du aurten kategoriaz igotzea, baina azken unera arte ahalginduko dira horretan. Joan den asteburuan 2,5-1,5 galdu zuten Fortunaren kontra. Asteburuan, berriz, laugarren sailkatuta dagoen Baionako laukotea izango da Arrasaten: goiko aldera igotzeko aukera dute hor.

ATLETISMOA > ESPAINIAKO TXAPELKETA


Jonathan Perez bosgarren sailkatu da Espainiako Txapelketan, 5 metroko jauziaz

Arrasatekoak gutxien espero zuenean bost metroko jauzia egin eta profesional moduan jarduten dabiltsan pertika-jauzilarri asko gainditu zituen

KABIER URTZELAI > ARRASATE

"Egia esateko, ez nuen espero horrelako jauzi bat egiterik, hilabete eta erdian min hartuta egon naizelako, eta oraindik ondo erre-kuperatu barik nagoelako. Baino, bai, oso gustura itzuli naiz Valentziatik, errendimendu altuko zentroetan entrenatzeten duten atleta asko gainditu ditudalako". Oraingoan, egindako lanaren saria jaso du Perezek, eta joan den negutik barruan zuen arantzera ere aterada du: "Joan den urtean hainbat arazo izan nituen lesioekin; neguan hainbat atletekin kontzentrazioa egin zuten, eta ez ninduten deitu". Hala, Arrasatekoak onartu du Valentziaren eskuraturako bosgarren postuarekin bati baino gehiagorri muturretan eman diola, eta gauzak diren moduan, horrelakoetan ze gustura geratzen den norbera.

Bost metroko marka gainditza gutxi balitz, Perezek gertu izan zuen 5,10 metroko marka: "Hori da daukadan pena txikia,



2006AN Arrasateko atleta 2006ko Espainiako Txapelketan, airean.

ARTXIBOA

listoia 5,10 metrotan egonda gutxitik ez nuela gainditu". Hori egin izan balu, balio handiko bronetzko domina ekarriko luke txapelketatik.

Realeko atletak beste hitzordu bat izango du asteburuan, selekzioen Pirinioetako txapelketa "urrean ibili gura dut hor, ea aste barruan zelan entrenatzendudan". Txapelketa ondoren bi asteko atsedenaldia izango du, lesiotik erre-kuperatzeko beharrak dituenak.

HARROBIAREKIN LANEAN

Perezek bere lorpenengatik baino harrotasun handiagorekin egiten du berba Arrasateko klubean dituen pertika jauzilarien gainean: Maialen Axpe, Lide Pagaldai eta Lore Mar "Oso pozik nago, ondo entrenatzetan dabiltsalako. Anoetara eraman izan ditut, eta ilusio handia egiten die, esaterako, Naroa Agirrerekirik entrenatzearak". Hala, Pagaldai Anoetan izango da martxoaren 15ean, eta Mar eta Axpe Oviedon.



GOIENKARIA

Martxoaren 15ean jokatuko dute ligako azkena

Seniorrek amaitu dute liga -kopa hasiko dute laster-, eta martxoaren 15ean jokatuko dute emakumezkoek denboraldiko azken norgehiagoka. Gainontzeakoak moduan, azken partidu hori ere gogorra izango da, liderra izango delako Mojategin. Hala, aste barruan taldeko kide Aitziber Zumalde eta Aritz Garai Arrasate Irratian izan dira, emakumezkoen talde berriaren gainean berbetan. Balorazio oso positiboa egin zuten 30 neska batu dituztelako taldean, eta datorren denboraldian jarraitzeko asmoa erakutsi zuten, baita horretara animatu ere.

futbitoa zaldibar**EMAITZAK**

Cipris-Betrayer	7-3
Total Disaster-Dribbling	1-18
Bar Kokots-Dublin Irish Pub	2-1
Kalapatxak-Iluntz	4-4
Ekaitz Taberna-McAwen Dauen	3-16
Iturrioz Tab.-Saukelu Abian	3-3
Equs-Cicatrux	5-1
Lasagabaster-AT Celaya	3-8
THC-Iriztu Taberna	0-1
HLB 108-Abokajarro	4-4

PARTIDUAK

Otsailak 1, zapataua	Epaileak
09:50 Cipris-Dribbling	AT Celaya
11:00 Iturrioz-AT Celaya	Cipris
12:00 Betrayer-Dublin Irish	Iturrioz Tab.
13:00 Kalapatxak-Saukelu Abian	Dublin Ir.
16:00 Bar Kokots-McAwen Dauen	Cicatrux
17:00 Ekaitz-Cicatrux	McAwen Dauen
Otsailak 2, domeka	Epaileak
11:00 Total Disaster-Iluntz	Iriztu Tab.
12:00 Equs-Iriztu	Total Disaster
13:00 Lasagabaster-Abokajarro	Equs

SAILKAPENA

	P	J
1. McAwen Dauen	33	11
2. Dribbling	25	12
3. Betrayer	25	11
4. Cipris	25	11
5. Dublin Irish Pub	22	11
6. AT Celaya	18	11
7. Iriztu Taberna	18	11
8. Lasagabaster	17	11
9. HLB 108	16	11
10. Iluntz	14	11
11. Saukelu	14	11
12. Ekaitz	13	11
13. Iturrioz	12	10
14. Equs	12	11
15. Bar Kokots	12	11
16. Kalapatxak	11	10
17. Abokajarro	10	12
18. Cicatrux	9	11
19. Total Disaster	3	11
20. THC	-	-

THC taldea txapelketatik kanpora geratua, zigortuta

Joan den astean, THC taldeak Irizturen kontra jokatu behar zuen. Eta, Iriztukoak futbolean jokatzeko gogoz geratu ziren, THC taldea ez zelako norgehiagokara azaldu. Ez da hori egiten duten lehenengo aldia, partidu batera ez azaltzea, alegia; horregatik, antolatzaleek txapelketatik kanpo utzi dute THC.

Baina oraingo asteko zigorrak ez dira hori amaitzen; izan ere, Total Disaster taldeak fiantza galdu du, joan den astean partidu bat epaitzera ez agertzeagatik. Zapatuan, goizeko lehenengo orduko norgehiagoka epaitu behar zuten, Abokajarroren eta HLB 108 taldeen artekoan. Nahaste hori garesti aterako zaie; gainera, berriro gertatuz gero zigorra gogorrako da.

Zigorrak alde batera utzita, McAwen Dauen taldea dabil erakusten lehenengo faseko indartsuena dela; galduetik Ekaitz tabernakoei.

bote prontuen

Igor Arenaza > ING Nationale-Nederlanden-eko kudeatzailea

"Guk aurrezteko aholkuak ematen ditugu"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Futbola utzi eta gero, aseguru-etxeen munduan sartu da Igor Arenaza. Arrasaten dagoen ING Nationale-Nederlanden aseguru-etxeko bulegoko kudeatzaileetariko bat da bera, eta gaur egungo egoera ekonomikoa ikusita, aurrezte egoeari buruz hitz egin dugu berarekin, beste gauza batzuen artean.

Zer da ING Nationale-Nederlanden-ek eskaintzen duena?

Gu aseguru-banku bat gara: aseguru-etxea eta, era berean, aurreikuspenak eta inbertsioak ematen dituen entitatea. Batez ere, aholkularitza pertsonala eskaintzen dugu.

Jende asko dago, bere bizitza arriskuan ikusita, zuengana jotzen duena?

Jendeak, egungo egoera ekonomikoarenkin, beldurra dauka, batez ere, inbertsioei dagokienez. Guregana inbertsio hauek babestera etortzen dira, eta gu ere joaten gara bezeroaren gana. Guk gure burua eskaintzen dugu, eta aholkularitza pertsonala dohainik ematen diogu jendeari.



Aurreztea kosta egiten ei zaie askori. Zuek horretan nola lagunten diozue jendeari?

Guk aurrezteko dauden bide eta aukeen planteamenduak egiten dizkiegu bezeroei, dirua aurrezteko edo, diru aldetik larri badago, egoera hobetzeko. Guk eskainitako planteamenduen artean bezeroak aukeratzen du berarentzat egokiena dena.

Etxeko aseguruak ere egiten dituzue, ezta?

Lehia handia dago etxeko asegurueta, baina hori egiteko aukera ere eskaintzen dugu. Hipoteka laranja ateratzen denean, gehiago landuko dugu etxeko aseguruena.

Zuen eskaintzen dituzuen zerbitzuak nahi dituenak nora jo behar du?

Aldez aurretik barkamena eskatu nahi diegu gure bezero guztiei, leku aldaketa dela eta sor ditzakegun eragozpen guztien-gatik. Behin-behineko bulegoa Olarte kaleko 43. zenbakian daukagu orain. Hemendik eta 15 egun barru, baina, Maala Arrabaleko 29. zenbakian aurki gaitzake guregana etorri nahi duen edonork.

bere ustez



Maialen Gonzalez

Kolore txuri-urdina duen Reala

Bigarren mailan jokatzea zaila izango zela argi izan dugu real zaleok denboraldi hasiera-hasieratik. Jokalariet lehia-kortasun handiaren presiopean jokatu behar dute astero-astero eta, gainera, Badiolaren fitxaketak eta kargu aldaketak han eta hemen izan dira, halabe-harrez jokalariak egoera berriei ohitzera behartuz.

Horrek guztiak bere alde onak izan ditzake, baina etxeko jokalariet aski merezia duten protagonismoa galtze-

"Presidente berriak lau hilabetean taldea lehen mailara igotzea du helburu"

Arrasateko Institutuko 2. Batxilergoko ikasle eta irakasleak, Salamanca bisitatzen

Arrasateko Institutuko 2. Batxilergoko ikasle eta irakasleak, pasa den otsailaren 20tik 24ra, Salamanca egin zuten bidaia. Bertan ikusitako gauzen artean, Salamanca historiko eta artistikoa, Ciudad Rodrigo, La Alberca eta beste hainbat leku eder daude. Gaueko giroa ere bikaina izan zen Salamancan, izan ere, 40.000 ikasle inguru daude han, eta gauetan gazte asko irteten da kalera. Argazkia Fonsecan aterata dago, berriz ere Arrasatera itzulerako bidaia hasi baino pixka bat lehenago. Guztiek oso ondo pasa zuten, eta horregatik aurpegi triste eta nekatu batzuk...



ARRASATE INSTITUTUA

ko arriskua ere badute, jokalari berrien etorrera dela medio. Futbolzale eta realzale naizen aldetik, nire taldea lehen mailan jokatzen ikus-tea gustatuko litzaidake, baina ez nola edo hala.

Presidente berriak lau hilabetean taldea lehen mailara igotzea du helburu, horretarako taldea goitik behera aldatu behar badu ere.

Gogoan dut Anoetan Malagaren aurka jokatu zuen Real hura. Etxeko jokalariez jositako hamaikakoak jokatzeko grina eta kalitatea era-kutsi zuen, zaleok nahi dugun Reala, hain zuzen. Zintzoki, nahiago dut Reala beste urte batez bigarren mailan gelditzea, Izarren Ligam jokatuz etxeko jokalari gehienak aukian ikustea baino.

PUB
MAIZEA



arbolapeta
arrasate
beinko

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko
hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

AZPIEGITURAK > AUDITORIUMA

Arrazoi ekonomiko eta teknikoengatik ez dute egingo auditoriuma Seminarioan

Ondare artistikoak jasango lituzkeen kalteak ere aipatzen dituzte arrazoi gisa

Aurreko Udal Gobernuak eskatutako proiektua dagoeneko udaletxean dago

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Udal Gobernuak baztertu egin du auditoriuma Errege Mintegiko elizan egitearen ideia. Hain justu, asmo hori aurreko agintaldiko Udal Gobernuak jarri zuen abian eta dagoeneko proiektua eginda dago; Iñaki Azpiazu arkitektoak egin du auditoriuma Seminarioko elizan egokitzeko proiektua.

Oraino Udal Gobernuak hainbat arrazoi eman ditu proiektuari ezetz esateko eta arrazoiok oinarritu dituzte Ereite enpresa espezialduak, udal museoloa, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak proiektuari buruz egindako txostenetan, besteak beste.

Bestalde, txosten horiei guztiel gehitu behar zaie gaur egungo Udal Gobernuak egindako beste bat: Gipuzkoako beste herri batzuek dituzten antzeko azpiegiturarekin parekatu dute Seminarioko proiektua aforo eta kostoa dagokionez, eta emaitzak ez dira aldekoak izan, udal arduradunen esanetan.

Horrekin batera, udal arduradunek oso kontuan hartu dituzte herriaren etorkizunerako duten proposamena herriratzeko egin dituzten batzarretan jasotako iritziak.

EZEZKOA EMATEKO ARRAZOIAK
Seminarioan auditoriuma egitearen proiektu horri eezekoa emateko arrazoiak hiru dira,



SEMINARIOKO ELIZA Elizaren sarrera nagusia errespetatuko luke auditoriumak.

GOIENKARIA

nagusiki: ekonomikoak, teknikoak eta ondarearen babesari dagozkionak.

Arrazoi ekonomikoei dago-kienet, Udal Gobernuak uste du kostua desorekatua dela lortuko den emaitzarako -7.900.666,97 euroko aurrekontua du auditoriuma Seminarioan egiteak Azpiazuaren proiektuaren arabera.

Arrazoi teknikoen kasuan, hiru dira aipagarrienak, beste batzuk ere egon arren: batetik, izango lukeen aforo txikia -397 eserleku-. Ereite enpresak 2005ean egindako azterlanean dio auditoriuma bideragarria izateko, gutxienez, 500 lagunendako aforoa izan beharko lukeela Bergara moduko 15.000 biztanletik gorako herri batek.

Bestetik, akustikoki zalantza handiak sortzen ditu eliza berez

beste funtziobatzuetarako eraikin gisa pentsatuta dagoelako. Gainerra, erdiko ganga -eserlekuak harzen dituena- albokoetatik bereizteko jartzen den kristalezko itxiturak sonoritatea kaskarto egiten du. Horri irtenbidea emateko itxitura horri gortinak jartzen dizkio-te. Baina oraindik ere sonoritateak eskasa izaten jarraitzen duenez, erdiko nabean, bobedan, *orraxia* deritzen sistema jartzen zaio, sonoritatea hobetzeko. Dena den, hirugarren irtenbidea horrekin ere, sonoritatea ez da erabat egokia udal arduradunen esanetan, eta diote hori argi geratu dela egindako sonoritate probetan. Hain justu, sonoritate eskasena ematen duen ekitaldi mota zinema da: gutxienekoak ere ez ditu betetzen, udal iturrien esanetan.

ere gehitu dute udal iturriek, erretaula horma baino zabalagoa delako. Kontuan izanda, bestalde, erretaula dagoen lekutik kentzen, zaharberritzen eta kokaleku berria jartzen 321.000 euro inguru gastatuko zirela, udal iturriek azpimarratu dutenez.

Udal agintarien esanetan, horri guztorri gehitu behar zaio Jaurlaritzako Kultura Sailak 2006ko irailaren 15ean Udalera bidalitako gutuna. Batetik, gogora ekartzen diete orduko agintariei, Errege Seminarioko eliza Kalifikatutako Kultura Ondarea dela, Eusko Jaurlaritzaren Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 eta 96/2003 Legeak arautzen duenez, eta ondorioz, babes berezia daukala. Bestetik, gutunean adierazten dute 96/2003ko dekretuak diena errespetatuko behar dutela. Hori horrela, erretaulak bere lekuaren geratu behar du, ezin da lekuaz aldatu, eta atzeko XVII. mendeko horma ezin da bota.

UDALAREN ALTERNATIBA

Emandako arrazoi horiek guztiak direla medio hartu du Udal Gobernuak auditoriuma Seminarioan ez egiteko erabakia. Eta alternatiba ere eman du: Miguel Altuna institutuan egitea, Seminarioko jolaslekutik gertuen dagoen eraikinean. Izan ere, han eraiki daitetik azpiegitura berria hobeto egokituko litzateke gaur egungo beharretara eta, horrekin batera, baita etorkizunean sor daitezkeen behar berrietara ere.

IÑAKI AZPIAZUREN PROIEKTUA


Iñaki Azpiazu arkitektoaren proiektuak bi zatitan banatzen du auditoriuma: batetik, Seminarioko eliza hartzen du, eta bestetik, eliza ostean egingo litzatekeen kubo antzekoa -gaur egun Aranzadik erabiltzen duen zati bat hartuta-. Erabilerari dagokionez, helburua da askotariko emanaldiak egin ahal izatea bertan, besteak beste, kontzertuak, zinema emanaldiak, antzerkiak...

Ion Murgizu Pinturak
Pintura orokorrean


Fatxadak
Pintura Industriala
Dekorazio Pinturak

Bergara - Soraluze
Tf: 943 75 13 24 - 652777030

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



JAUJA
KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Sarrera nagusi gisa elizak duen bera aurreikusten du proiektuak eta 397 lagunendako eserleku kopurua. Horietaik 320 daude elizaren erdiko nabean, maldan eraikita, eta alboetako beste bi nabeak hutsik daude. Beste 77 eserlekuak bigarren altuera baten aurreikusten ditu proiektuak, koru aldean eraikitako plataforma batean. Elizak orotara 500 bat metro karratu ditu: erdiko nabek, 265 inguru; alboetako biek 185 inguru eta altueran eraikiko den plataformak 65 bat metro karratu.

Eserlekuendako lekua irabazteko, erdiko nabea erretularaino luzatzen du Azpiazuk eta horretarako erretaula kendu eta horren osteko horma botatza aurreikusten du. Hain justu, horren atzean kuboa egongo da, eta kuboan, agertokia.

Bestalde, eserlekuak dauzen erdiko nabea alboko bietaitik bereizteko kristalezko itxitura eginten dio. Hala ere, horrek hainbat sonoritate arazo eragiten ditu eta horrek ekititeko itxitura horri gortinak gehitzen dizkiote, baina hori ere ez denez nahikoa, *orrazia* delaiko sistema gehitzen diote.

ATZEKO KUBOA

Atzeko kuboa kutxa eszenikoa deritzona izango litzateke. Seminarioko jolaslekutik beginatuz gero, gaur egun Aranza-

dik margotu gabe duen fatxada zatia hartuko luke, gutxi gorabehera.

Hiru altuera ezberdinan dago banatuta -26,5 metroko altuera du- eta altuera bakoitzeko 497 metro karratu inguru ditu. Beheko solairuan kamioindako atea handia da, biltegi bat eta harrera gela, eta beharrezko tresneria agertokira igo ahal izateko kargasailua ere badago. Altuera bat gorago, kamerino indibidual zein kolektibo bana daude eta horrekin batera, erabilera askotariko beste bi gela txiki. Azkeneko solairuan agertokia dago. 240 metro karratu ditu eta horrekin batera, solairu berean, entsegu gela bat eta 65 eta 70 metro karratu inguruko bi gela daude. Eta horren guztien goiko aldean orratz eszenikoa dago, hau da, fokuak, oihala... eta halako gunea.

TABERNA ERE BADAGO

Azpiazuren proiektuak 100 bat metro karratuko taberna ere jasotzen du auditoriumaren osagarri gisa. Gaur egun Aranzadirako zein UNEDerako sarrera bera izango luke eta zehazki Aranzadiko hall-ean egongo litzateke taberna hori. Bestalde, auditoriumetik ere izango luke sarrera.

Komunen kasuan, arkueen azpian daude kokatuta, sarrera nagusiaren azpian.



Erretaula barrokoa lekutik ezin dela mugitu dio Jauriaritzak. GOIENKARIA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS
TIEN 21

Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

INGURUMENA > ZUHAITZ EGUNA

Basoa berreskuratzea da biharko Zuhaitz Egunaren helburu nagusia

Sentsibilizazioa garatzeko, landaketa publikoa egingo dute bihar, Elosun. Hiru zuhaizdun loteak ere banatuko dituzte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Hiru helburu nagusi ditu Udalak biharko, zapatua, antolatu duen Zuhaitz Egunak: bertako basoa berreskuratzea –aurten, haritzia; kontserbazio arazoak dituzten hiru espezie sustatzea: sagarmina, hagina eta gorostia; eta ezagutzera ematea herrian badirela Interes Naturaleko Guneak eta horiek kontserbatzeko ardura badagoela.

ZUHAITZ LANDAKETA, ELOSUN

Zuhaitz Eguneko ekintza nagusia Elosun egingo duten landaketa publikoa izango da. Horretarako, autobusa abiaturiko da 10:00etan, San Martin plazatik, eta landaketa eremura eroango ditu interesatuak. Landaketa 11:00etan hasiko da, eta haritzia berreskuratzearen gaineko azalpenak ere emango dituzte udal teknikariek. 12:30ean, ogitarreko eta edateko banatuko dute. Azkenik, hiru zuhaitz motarekin osatutako loteak banatuko dituzte; sagarmina, gorostia eta haritz bana daude lote bakoitzean eta halako 20 banatuko dituzte.



ZUHAITZ FERIA Aurreko zapatuan izan zen eta 20 bat saltzaile bat ziren. J.A.

BASOA BERRESKURATZEN

Bertako basoa berreskuratzeko ekimena biharko landaketa sinbolikoa baino haratago doa. Hain justu ere, Udalak ia bi hektarea landatuko ditu Elosun duen lurrailean.

Guztira 2.205 landare sartuko dituzte: horietatik %80 haritzak dira eta %20, haritzia osatzen duten beste espezie batzuk, hala nola gorostia, urkia, otsolizarra, astigarra, elorri zuria, elorri beltza eta sargarmina, besteak beste. Azpimarratzeko da landatuko diren zuhaitzen haziak bertakoak direla, hau da, Euskal Herriko espezieak.

BI EKITALDI

Aurreko zapatuan zuhaitz feria ere izan zen San Martin plazan eta udal arduradunek modu positiboan baloratu dute ekitaldia.

Aurten arte zuhaitz feria eta Zuhaitz Eguna egun berean egin izan dira, baina aurten bi egunean egitea erabaki du Udaleko Ingurumen Sailak. Azaldu dutenez, zuhaitz feria gehiago da salmentara bideratutako ekimena, eta Zuhaitz Egunak beste oinarri bat du: natura gaietarako sentsibilizazioa eguna izatea da helburua eta ingurumenaren aldeko ekintza egun gisa ulertu behar dela uste dute Ingurumen Sailean.

> OSASUNA

**Osasun mentalaren
gaineko hitzaldia Agifes
elkarlarekin**

La salud mental a la cola de las preocupaciones sanitarias du izenburua. Eguenean, martxoaren 6an, izango da, 18:30ean, Miguel Altuna institutuan. Hizlariak izango dira Arrasateko San Juan de Dios ospitaleko bi mediku: Carmen Prades eta Marlene Duran, hain zuzen ere.

> OSASUNA

**Pertsona nagusiei
laguntzearen
garrantzia berbagai**

Gizarteak eta familia pertsona nagusiei laguntzearen garrantzia delako hitzaldia antolatu du Nagusilanek eta Bizikasik. Hitzaldia astelehenean, martxoaren 3an, izango da, 19:00etan, Miguel Altunan. Hizlaria Lara Santamaria izango da eta nahi duten guztiei irekita dago.

> DEIALDIA

**Erramu-zapatuan
Seminarioko txosna
hartzeko deialdia**

Udalak egin du deialdia. Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten kultura edo kirol elkarretek eta herriko taldeek aurkez dezakete eskaera -300,51 euroko fiantza jarri behar da-. Eskaerak udaletxeen aurkezta behar dira eta epea bukatuko da martxoaren 4an, 13:30ean.

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

UDALA > AURREKONTUAK

Udalbatzak 31.163.198 euroko aurrekontu osoa onartu du 2008rako

Bizitasuna lortzeko, igo egin dituzte kultura ekitalditarako eta jaietarako partidak

Inbertsio nagusiak dira Mizpirualde eta Ipintzara bideratutakoak

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Astelehenean 2008ko aurrekontuak onartu zituzten osoko bilkuran. Aurrekontuok onartu ziren Eusko Abertzale Ekintza eta Aralarren aldeko bederatzi botoekin, EAJ eta PSE-EE alderdien kontrako sei botoekin eta EAko zinegotziaren abstentzioarekin.

Aurrekontu bateratua 31.163.198,50 eurokoa da, 2007koan baino %8,8 handiagoa. Kopuru horretatik Udalari dagozkio 27.684.300 euro; Udal Euskaltegiari, 549.274 euro; Mizpirualde zaharren egoitzari, 3.971.611,50; eta Bihargintza SAri, 1.686.000 euro.

Inbertsioetara, 7.349.360 euro bideratu dute eta zorra, %12,41eko da -2007 urtea likidatu gabeko datua-; iaz %12,40koa zen.

KALEKO GIROA BERPIZTU NAHIAN
Aitor Goiti Hazienda batzordeburuak azaldutakoaren arabera, aurrekontuak prestatzerakoan gobernu taldearen kezketako bat izan da -eta izaten jarraitzen du- gastu orokorra kontrolatzea. Horregatik, "nahiz eta aurten sarrera orokorra %10,4 igo den, gure gastua %6,3 igo da", esan du.

Bestalde, Goitik azpimarratu du kultura ekitaldiak, jaiak eta auzoak nabarmendu nahi izan dituztela aurrekontuetan, "kaleko giroari bizitasun handiagoa" eman nahi diotela. Hori horrela, kultura ekitalditarako eta jaietarako partidak %18,5 igo dira guztira, eta auzoen kasuan, %16,7. Gora egin dute baita ere, aurreko urteko datuekin alderatuta, euskarak -%10, euskaltegia kontuan hartu barik-, gizarte ongizateak -%7,6- eta kirolak -%14,6. Gainerako departamentuei dagokienet, mantendu egin da aurrekontua eta, kasu batzuetaan, kostua txikitu egin da.

EAJ-REN EZEZKOA

EAJren zerrendaburu German Muruamendiarazek, batik bat, bi arrazoi eman ditu aurrekontuei ezezkoa emateko: batetik, Ibargain egin den azkeneko etxe blokean Udalak dituen garajeak saldu nahi izana -50 bat. Muruamen-



IPINTZA Belar artifizialeko zelaia inbertsio aipagarrienetako da: 1.100.000 euro. J.A.

diarazek hau esan du: "Ez dugu ontzat ematen salmenta hori, herrian dagoen aparkaleku gabezia kontuan izanda, aparkaleku publiko erabilpena eman ahal zaileko". Hala, Ikerlekuko aparkaleku publikoari ematen zaion eraibila bera eman ahal zaiela uste du. Ezezkoaren bigarren arrazoia hau da: "Aurreko agintaldian guk abian jarritako bi proiektu, hau da,

Seminarioan auditoriuma egitea eta Arrizuriagan liburutegia, ez ditugula aurrekontuetan ikusi".

Horrez gain, zorpetzaren gainerako kezka ere azaldu zuen EAJko zinegotziak. Esan zuen aurreko urteetan jaisten joan dela zorra eta aurten, berriz, mantendu egin dela. Bestalde, aprobetxamendu urbanistikoaren harira ere izan zituen hitz batzuk Muruamendiarazek. Hain justu, "kontsekuente" izateko eskatu zion alkateari, "aurreko agintaldian aprobetxamendu urbanistiko diru iturri gisa erabiltzeagatik nire alderdiok kritikak jaso zituztelako".

Azkenik, Ipintzako belar artifizialeko futbol zelairako eta kanpoko igerilekurako bideratu diren diru partidak direla eta, esku zuen Agorrosinen etorkizunean egin daitezkeen beste interbentziobatzuk baldintza ez ditzatela. Horiaz, planteamendu orokor baten garrantzia nabarmendu zuen.

ALKATEAREN ERANTZUNA

Ibargaraiko garajeen harira Agurne Barruso alkateak erantzun zion Muruamendiarazi eurak ere kontziente direla herrian dagoen

aparkaleku gabeiaz eta baita mugikortasun arazoez ere. Dena dela, gehitu zuen ez dela teknikoki posible Ibargaraiko aparkaleku erabilera publikoa ematea, "Udalzaingoak egindako txostenak dioen moduan, besteak beste, sarrera bakarra dagoelako".

Auditorium eta liburutegien kasuan, alkateak zera erantzun zion Muruamendiarazi: "Saiatu gara gainerako alderdien iritzi eta ekarpenak jasotzen. Aurrekontu proposamena duela hilabete aurreztu genuen, eta, denbora izan duzuen arren, ez dugu ezer jaso".

Zorpetze mailari dagokionez, alkateak garbi laga nahi izan zuen kezkatzen duen gaia dela eta kontziente dela Bergarak duen zorrak. Dena den, zera azaldu zuen: "Aurtengo aurrekontuetan ez da zorra igo, aurreko urtekooa mantendu baizik, eta hori egin dugu pentsatzen dugulako herritarrek beharrak dituztela eta, beharrok asetzeko, inbertsioak beharrezkoak direla".

Ipintzako belar artifizialeko zelaiai dagokionez, esan zion Muruamendiarazi "lasai" egoteko, orain egingo diren lanek ez dituztelako etorkizuneko ekintzak baldintzatuko; are gehiago, "etorkizuneko ikuspuntuarekin" egin direla. Eta azaldu zuen aurtengo partidekin egingo dela belar artifizialeko zelaia, eta kanpoko igerilekuak egiten hasi baino ez direla egingo; lanik handienak 2009rako aurreikusi dituztela.

PSE-EE ETA EA ALDERDIAK

PSE-EEk honela arrazoitu zuen bere ezezko, besteak beste: "Aurreko agintaldia proiektuetan atzerakoia zen eta oraingoa ere bai. Bestalde, ez dugu ondo ikusten Ibargaraiko garajeak saldu nahi izatea, ezta komun publikoak ez egitea ere".


EAko zinegotzi Lauri Askargorta, berriz, abstenitu egin zen eta bota azaltzeko hau esan zuen: "Aurreko agintaldian, gobernuan ginenean, abian jarritako proiektuak ez ditut aurrekontuetan ikusi. Horregatik abstentzioa".

Inbertsio aipagarrienak

Mizpirualde berria	2.000.000€
Belar artifizialeko zelaia	1.100.000€
San Pedro kalea urbaniza.	560.000€
Baserrietarako ura	420.000€
Zabalotegi aretoa bukatzea	400.000€
Musika taldeendako lokala	300.000€
Hirigintzarako lursailak	300.000€
Cristo Obrero urbanizazioa	290.000€
San Antonio urbanizazioa	278.000€
Hilerrako kapera konpontzea	50.000€

ITURRIA: BERGARAKO UDALA

Aurrekontua batzordeka



- Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- Ziklomotorreko lizenzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gainditu motorraren azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta autoarena 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA

ARRAÑAGA
AUTORESKOLA


2008ko Zuhaitz Eguna

martxoak 1 larunbata

Basoa berreskuratzen

2008ko Zuhaitz Eguna ospatzeko, galduak hainbat harizti sail berreskuratzeko lanak egingo ditu Udalak. Elosun ere garai batean lursail honetan zegoen hariztiko zuhaitzak landatuko ditugu: haritzak, gaztainondoak, urkiak, sagarminak, gorostiak eta abar. Sentsibilizazioa garatzeko, landaketa publikoa egingo da martxoaren 1ean, Elosu auzoan.

Zatoz Zuhaitz Eguna ospatzera, gonbidatuta zaude!



Egitaraua:

- 10:00 Autobus publikoa San Martin plazan, Elosu auzoan egingo den landaketara joateko.
- 11:00 Landaketa publikoa. Bertan, hariztia berreskuratzeari buruzko azalpenak emango dira.
- 12:30 Ogitartekoak eta edaria banatuko dira bertaratutakoentzako artean.
- 13:00 Landatzeko zuhaitzen banaketa, bertako espezieak sustatzen lagundi nahi dutenen artean. Autobusa herrira.



Antolatzailea:



BERGARAKO UDALA
Ingorumen batzordea

Laguntzailea:



Diego Osuna > Margolaria

"Nire ibilbidearen bilakaera islatzen du margo erakusketa"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Diego Osuna berigarra pintore bezala ezaguna da herrian; baina gutxik dakite, etxeak margotzeaz gain, koadroak ere margotzen dituela. Kultura etxean zabaldu du Osuna lehen erakusketa; martxoaren 8ra arte dago zabalik.

Nolako harrera izan du erakusketa?

Oso gustura nago erakusketatik izaten ari den erantzunarekin. Ez naiz ezaguna; horregatik, lan handia egin behar izan dut erausketa aurrera ateratzeko. Baina herritarrek izan duten erantzuna oso ona izan da.

Herrian ez dute askok jakin-go koadroak margotzen dituzunik, ezta?

Bai, hala da. Jende askok sorpresa hartu du. Zera esaten didate: "Baina zuk ateak, etxeak eta horrelakoak margotzen dituzu". Izan ere, orain arte niretzako margotu izan dut, eta inork gutxik zekien koadroak margotzen nituenik.

Nola hasi zinen?

16 urterekin, pintore lanetan hasi nintzen eta, gutxi gorabehera, sei urtera, koadroekin hasi nintzen. Bezeroek eskatuta hasi nintzen; marmola imitatu nahi

zutelako, edo beste materialen bat imitatu nahi zutelako... horrela hasi nintzen.

Hartu duzu inoiz klaserik?

Bai, lehenengo Donostian ibili nintzen Paco Alvarezkin eta gero, bost urtez, Bergaran, Juanjo Altunarekin. Gainera, Altunak erakusketa asko gustatu zaiola esan dit; gustura nago.

Zer ikus daiteke erakusketa?

Orain arteko ibilbidea erakusti nahi izan dut. 25 koadro daude: marmol-imitazioa, paisaiak, natura hilak... Denetarik dago.



Diego Osuna, bere margoen aurrean.

EDU MENDIBIL

21 dominarekin itzuli dira Andoaindik

Musika eskolako piano ikasleek lan txukuna egin zuten aste bukaeren Andoainen jokatu zen III. Piano Lehiaketan. 21 ikasle joan ziren Andoainera, 8 eta 16 urte bitarteko ikasleak. Andoaindik 21 dominarekin itzuli ziren: bederatziz urrezko domina, 10 zilarrezko eta brontzezko bi. Bakarka jo zuten batzuek, eta lau eskutara, beste batzuek. Argazkian, ikasleak ageri dira, dominekin.



MUSIKA ESKOLA

> JARDUN
Kantu afaria antolatu du Jardunek Artatsen, datorren egubakoitzean

Datorren egubakoitzean, hilak 7, kantu afaria egingo dute, 21:30ean. Jardun euskara elkarretek antolatuta, Artatse elkartean egingo dute afaria, eta ondoren, kantuan. Dagoeneko txartelak salgai daude Pol-Pol, Kortazar eta Arrano tabernetan eta baita Jardunen bertan ere. Txartelen prezioa 12 euro izango da Jarduneko bazkideentzat; eta gainontzekoek 15 euro ordaindu beharko dituzte.

Euskara elkartekoek herritarrek animatu nahi dituzte Masterreka kaleko Artatse elkartean egingo den kantu afarian parte hartzera.

> MUSIKA
DJ saioak izango dira gaur eta bihar iluntzean Ziripot tabernan

Aste bukaera borobila antolatu dute Ziripot tabernan; gaur, gaueko hamaitetan, DJ Salas ibiliko da musika jartzen, eta bihar, zapata, DJ JL-Primoren txanda izango da. Hark ere gaueko hamaitetan eskainiko du saioa. Musika elektronikoa gustuko dutenek badute non aukeratu.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

HURBIL belar denda

Nova Linek Pisuaren Kontrolaren metodo
orekatu eta pertsonala garantizatzen dizu,
20 urte baino gehiagoko esperientzia
duen Profesionalen Talde zabalarekin.

Nutrizio plan bat eskaintzen dizugu
lor dezazun, goserik izan gabe!

Aurkituko gaituzu:

HURBILen
Domingo Irala z/g • BERGARA
943 76 30 08

Pisua eta bolumena
soberan badituzu...



falta
zaizu

Pisuaren kontrolean
arrakasta ziuratuta duzu!



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Jose Ramon Agirre > Mendizalea

"Zure oinak airean sentitzea izugarrizko sentsazio atsegina eta gogoangarria da"

JASONE ZABALA > BERGARA

Jose Ramon Agirre **Marron** ataudarra da. Bizitzaz guztia darama mendi artean eta mendi gailurretik parapentez jauziak egiten. Gaur ikus-entzunezko emango du (Aroztegi aretoa, 19:00), Pakistango Broad-Peak (7.200 metro) menditik egindako jauzian hartutako irudiekin. Lan honetaz eta mendi zaletasunaz hitz egin dugu harekin.

Gaur eskainiko duzun ikus-entzunezkoan, zer da bertara hurbiltzen denak ikusi ahal izango duena?

Oinarrian hegan egiteko irudiak eskainiko ditut, baina, neu-rrri berean, azken urte hauetan nik egin dudan ibilbide horren hausnarketa bat da, gizakiok hegan egiteko izan dugun amets horren hausnarketa bat, alegia. Ni ere erantzun horren bila ibili naiz, hain zuzen ere, gizakiak zergatik gura izan duen beti hegan egin. Lanaren oinarria pasa den urtean Pakistango Broad-Peak egindako hegaldi bat da, baina hori guztiiori hemen inguruau hartutako irudi batzuekin jantzi dut. Hegan egi-


tearen filosofia modu ludiko eta poetikoan azaltzea da nire asmoa.

Zer ematen dio zure moduko mendizale bati hainbeste metrotatik parapentean botatzeak?

Erronka guztiak bilakaera baten ondorio izaten dira. Nik mundu honetan urteak daramatzat. Ibilbide horretan, erronka hauek poliki-poliki gaintitzen joaten dira, gaintitze nahi horrek jomuga ezberdinak jarriten dizkizu. Gailurra jartzen da beti jomuga, eta ondoren zure burua jartzen da hegan egiteko trantze horretan. Nik menda horrela ulertzen dut. Zeruari begira, edo lainoei begira, hazi-zeari antzematen saiatzen naiz, gero hegan hasteko.

Parapente jauzia egiterakoan zein da gogokoen duzun momentua?

Azkenean, irudiak du indarra. Momenturik larri eta estuena parapentearekin hegan irteko momentua da. Irten onoren zure oinak airean sentitza izugarrizko sentsazio atsegina



Irudian, Jose Ramon Agirre.

JOSE RAMON AGIRRE

"Hegan egitearen filosofia modu ludiko eta poetikoan azaltzea da nire asmoa"

"Hurrengo proiektua Nepalen egingo dugu; bertako familia bat izango da protagonista"

eta gogoangarria da, airean zure amets hori hasten dela adierazten duelako. Oraindik ere hunkitu egiten naiz irudiok ikusita.

Zein izango da hurrengo proiektua?

Buruan dudan hurrengo proiektua Nepal inguruan dokumental bat egitea da. Bertako familia bat izango da protagonista, eta semeetako batekin 7.000 metroko mendi bat igoko dugu.

labe garaieta

EMAITZAK

Komando Piperrak - Errota-Gain	4-4
Deportivo Oriente - Irish Pub	3-8
Latinos.com - Niu Tim	7-10
Los Blus - Belengua	7-4
Hamaika Jintxi - Carboneros	3-7
Tiki-Taka - Iribide	Atzeratuta

PARTIDUAK

Martxoak 1, zapata, barruan	Epaileak
18:30 Tiki-Taka - Iribide	K. Piperrak
19:30 K. Piperrak - Belengua	Iribide
Martxoak 2, domeka, barruan	Epaileak
16:00 Latinos.com - Irish Pub	Errota-Gain
17:00 Tiki-Taka - Errota-Gain	Irish Pub
18:00 D. Oriente - Iribide	Latinos.com
19:00 Los Blus - Carboneros	D. Oriente

SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errtagain	40	15
2. Irish Pub	35	15
3. Komando Piperrak	35	15
4. Los Blus	31	15
5. Carboneros	28	15
6. Tiki-Taka	19	14
7. Niu Tim	19	15
8. Belengua	17	15
9. Hamaika Jintxi	10	15
10. Latinos.com	9	5
11. Iribide	9	14
12. Deportivo Oriente	0	15
13. El Mapet	0	10

Goiko aldeko oreka

Pasa den zapatu eguerdi, sailkapenean goian dauden Komando Piperrak eta Errota-Gain taldeen arteko partidua berdinetarekin amaitu zen. Horren ondorioz, Irish Pub taldea jarri da bigarren postuan, eta Komando Piperrak postu bat beherago. Asteburu honetan ikusi beharko da ea gauzek berdin jarraitzen duten edo berriz aldaketa dagoen.



GOIENA
asegurarte
artekaria

ORAIN DA MOMENTUA BGAE-EPSV KANPAINA

2008ko urtarrilaren 1ean, BGAE-EPSV arautegi berria martxan jarri zen; horregatik, parte-hartziale guztiak dituzten prestazioak bost egunean pasa ditzakete erakunde batetik bestera, inolako penalizaziorik sortu gabe, eta beti abantaila fiskal berberak edukita.

Aukera hau aprobetxa dezazun nahi genuke.



ARRASATE Antso Abarka 6
Tel.: 943 79 59 81 Faxa: 943 79 39 18
www.goienaaseguruak.com
e-posta: goiena@goienaaseguruak.com



BERGARA Zurradero 2
Tel.: 943 76 97 65 Faxa: 943 76 40 37
www.goienaaseguruak.com
e-posta: goiena@goienaaseguruak.com

Foto
Depilazioa

Azkenik
bukatu egin
da ilearen
arazoa



Depitol



EDURNE

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTROA

Aranburuzabala 42

ESKORIATZA

Tel.: 943 71 51 54

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**Hedabide guztietarako
telefono berria eta bakarra**

943 25 05 05

Goitb
Goiena Telebista

ASTELEHENeko
Goienkaria

Goienkaria

**ARRASATE
IRRATIA**

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

Gorka Gereño > Makrobiotikan aditua

"Makrobiotiko sano batek denetik jan dezake; oreka da bilatu behar duena"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Makrobiotikaren gaineko ikastaroa antolatu dute herriar batzuek. Apirileko egubakoitzetan egingo dute, 19:00etatik 22:00etara, eta izena dagoeneko eman daiteke Loramendin. Ikastaroa Gorka Gereño lasartearako egingo du, Donostia makrobiotika jatetxeko sukaldariak.

Zer da makrobiotika?

Makroda luzea edo handia eta biotika da bizitza; hortaz, *bizitza luzatzea* esan gura du berbak.

Eta bizitza luzatzea, zelan?

Elikaduran oinarritzen gara. Bakoitza oreaktu beharko luke bere menua, norberaren gorputzari ondo datorzkion elikagaietan. Hori bai, makrobiotikak eskatzen du lekuaren leku eta garaian garaiko elikagaiak jatea. Kanpotik etorritakorik guk ez dugu jaten.

Globalizazioaren garai honetan atentzia ematen du horrek...

Bueno, garai baten jaten zen moduan elikatzea da, besterik ez.

Hortaz, zein da helburua?

Norbera ondo sentitzea.

Eta lortzen da?

Bai, horixe. Baino elikadura aldatuta bakarrik ez. Benetako helburua lortzeko, bizi modua ere aldatu behar da: jana, lana, bizi modua... Dena oreaktu behar da. Menuak aldatzen eta oreaktzen hasten gara, baina gero gainera koak etorriko lirateke. Azken baten, beste ikuspuntu batetik bizi tenetik ikasi behar da.

Orduan, filosofia bat da?

Bai, hori da. Eta honen barruan fanatikoagoa izan zaitezke edo ez, denetik dago: gaixo daudenak eta sanoak. Makrobiotiko sano batek denetik jan dezake. Makrobiotika entzutean jendeak mugak ikusten ditu: haragirik ez dute jaten, esne-



Gorka Gereño, makrobiotika jatetxeko sukaldaria.

AMAIA ANTERO

"Makrobiotikak eskatzen du lekuaren leku eta garaian garaiko elikagaiak jatea"

"Hasierako pausoak azaltzeko da ikastaroa, eta sukaldaritza landuko dugu: menuak gertatu..."

kirik ere ez... Baino hori gaixo dagoen jendearen kasua da. Gainerakoek denetik jan dezakete; oreka da bilatu behar dena.

Zuek zerealetan oinarritzen duzue elikadura, ezta?

Bai, hala da, zerealetan eta barazkietan. Lekaleak ere jaten ditugu, eta horietatik, zerealekin nahastuta, proteinak lortzen ditugu. Hala, animalien proteinak kentzen ditugu. Hortaz, ohitura duena edo ondo sentitzeko zaintzen hasi gura duena.

Arriskutsua izan daitekeela ere esaten dute batzuek.

Zergatik? Guk bakarrik haragia kentzen dugu, eta horren proteinak beste era batera lortu. Haragiak koipe saturatua dauka, eta horrek hondakinak sortzen ditu gorputzean. Ordezkatzen, beste elikagai batzuk sartzen ditugu, algak eta belarrak, esaterako. Naturalago jatea da asmoa.

Eta fruta eta barazkiak?

Bai, horixe; ekologikoak. Fruta tropikalik ez dugu jaten; hemen goak. Eta garaian, garaikoa.

Zelakoa izango da ikastaroa?

Makrobiotika zer den azaltzen saiatuko naiz, hasierako pau soak argitzen. Eta sukaldaritza ikastaroa egingo dugu: menu oreaktuak gertatzeko ikasi, elikagai bakoitzarik zelan gertatu argitu... Edozein etor daiteke, kuriositatea duena edo ondo sentitzeko zaintzen hasi gura duena.

UDALA > UDAL AURREKONTUAREN BALORAZIOA

Udal aurrekontuaren alde daude Ezker Batua-Berdeak, "gure proposamenak jaso dituelako"

M.A. > ARETXABAleta

Otsailaren 18an onartu zuen udal-batzak 2008ko udal aurrekontua. Udal gobernuaren eta Ezker Batua-Berdearen aldeko botoekin egin zuen aurrera. Alderdi horretako Tomas Fernandez zinegotziak zera azaldu du: "Udal gobernuaren kudeaketak norabide ego-kia hartu du, EB-Berdeen

proposamen asko onartu dituztelako, hain zuzen, Aretxabaleta gizartekoagoa, justuagoa eta solidarioagoa lortzeko".

Hala, azaldu du berdintasun plana eta diagnostikoa egiteko 19.000 euro jaso direla aurrekontuan EB-Berdeei esker, eta 6.000 euro, Kurtzebarri eskolarako. Gainera, pozik dago Fernandez

"gizarte proposamen batzuk sartzea lortu dugulako", kirol etxe berrian erretiratua debalde sartzea aztertzea, esaterako. "Gehiago egin zitekeen", gaineratu du, eta kultura etxe berriko kudeaketa kontratazearekin ez datorela bat argitu du, "zerbitzuaren eta lanpostuen kalitatearen eska-sia dakarrelako".

EMAKUMEA > NAZIOARTEKO EGUNA

Berbaldia eta antzerkia egongo dira martxoaren 6an

Emakumeen indarkeriaren gainean jardungo dute, eta Oihulari Klownek egingo du antzerkia

M.A. > ARETXABAleta

Martxoaren 8an, zapatua, da Emakumeen Nazioarteko Eguna. Aretxabaletan, baina, egunean, hilak 6, izango dute gogoan, eta ekitaldi bi antolatu dituzte: berbaldia eta antzerkia.

INDARKERIA ETA PUBLIZITATEA

Loramendi Euskara Elkartea barruan dagoen Tril emakume taldeak antolatu du berbaldia. *Zelan egin emakumeen aurkako indarkeriaren kontra?* du izenburua, eta Arrasateko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Plataformako kideak etorriko dira horren gainean berba egitera. 18:30ean izango da ekitaldia, Kurtzebarri eskolako aretoan.

Berbaldia bukatutakoan, 19:30ean, eta Kurtzebarri eskolan bertan, antzezlana egingo dute Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta. Oihulari

Klown taldeak *Modelo clown contrapublicaria* antzezlana eskainiko die elkartutakoei. Virginia Imaz bergararra da antzezlana protagonista, eta publizitatearen eta modeloen munduaren gainean jardungo du. Hala, publizitatean erabilten diren mezua aztertuko ditu umorea, goxotasuna eta poesia erabilita, baina kritika ahaztu barik.

ARRASATERA

Martxoaren 8an ez da aparteko ekitaldirik egongo herrian. Tril emakume taldeak ohitura du more koloreko bandera jartzeko Herriko Plazan. Eta arrasaldean, Arrasateko emakumeek antolatzen duten manifestazioa joan izan dira. Aurten, 19:00etan izango da Arrasateko kaleetan, eta bukatutakoan ekitalditxoa egingo dute elkartutako emakumeek.



KURTZEBAARI ESKOLA

Antzerki Astea egin dute Kurtzebarrin

Antzerki jardunaldiak izan dituzte Kurtzebarri eskolako aste honetan. Urtero egiten dute, eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek jardun dute. Antzerkiarekin batera, bertoak, txotxongiloak, dantzak eta kantak landu dituzte. Gurasoek ere izan dute ikasleen lanak ikusteko aukera, eta beste behin ere arrakasta handiarekin bukatu dituzte jardunaldiok.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta



Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABAleta

EUSKARA > BARRIKETAN EGITASMOA

Berriketan egiten dute hainbat euskaldun zahar eta berrik astean behin

Ana Floresek eta Lola Caamañok kafe bat hartuaz
egiten dute euskaraz Koldo Zubizarretarekin


MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Udalak, Udal Euskaltegiak eta Loramendi Euskara Elkarteak 2006an jarri zuten abian Barriketan egitasmoa. Helburu bakarra du: astean ordu bete euskaraz egitea. Euskaraz ikasten dabiltzanak edo euskaraz berba egiteko ohiturarik ez dutenak dabilta horretan, Ana Flores eta Lola Caamaño, esaterako, eta Koldo Zubizarreta euskaldun zaharrarekin elkartzen dira martitzenero kafea hartzeko. Joan zen urrian sartu ziren egitasmoan, eta gustura dabilta hirurak.

ELKAR ABERASTEN

Aurrelik ez zuten elkar ezagutzen, eta Anak eta Lolak denbora behar izan dute lotsa albora uzteko: "Hasierako hoztasuna hasi gara berotzen, eta gero eta lasaiago egiten dugu euskaraz", dio Anak.

Eta badakite kide aparta dute-la; izan ere, euskaraz ondo baino hobeto egiteaz gain, oso gutxi erabiltzen diren bertako berba asko dakizki Koldok: "Egia da berba batzuk galduaz doazela, baina hizkuntza guztieta gertatzen dela esango nuke, baita gaztelanian ere. Baserri giroko berbak



HIRUKOTEA Koldo Zubizarreta, Ana Flores eta Lola Caamaño, kafetegi batean.

MIRARI ALTUBE

dira galtzen dabiltzanak, orain kaleko informazioa bakarrik daukatelako", azaldu du.

Giro ezberdinatan ibiltzen dira hirurak: emakumeak, seme-alaben inguruan; Koldok, ostera, lanaren inguruan dauka antolatuta bizimodua: "Baina interesgarria da; hala elkar aberasten dugu", dio Koldok. Eta gaineratu

du Anak: "Astean gertatutakoaren gainean jarduten dugu. Gainera, Koldok beti dakar gairen bat geratuta, isilik ez gaitezen egon".

HEZIKETA KONTUA

Euskaltegian euskarra batua ikasten dute: "Horregatik hizkuntza bi ikasten gabiltzala iruditzen zaigu askotan; umeek, esaterako,

arraro egiten dugula berba esaten digute", dio Anak. Koldo poztu egiten da ahalegin horretan dabilzalako: "Heziketa kontua dela uste dut herri baten bertako hizkuntza jakitea, eta gainera, ate asko zabaltzen ditu". Maiatzerako, euskaraz egingo dutela berba iragarri die Koldok, eta neskek barre egin diote.

65 korrikalari, Sahararen aldeko krosean

Joan zen domekan egin zuen Iesbaa elkarrean Sahararen aldeko herri krosa. Giro polita sortu zuten herrian, eta korrikalariak bikain ibili ziren. Ume eta gaztetxoek, 23 guztira, 900 metro egin zuten, eta helmugan lehena 10 urteko Ander Antxia izan zen.

Nagusiek lau kilometroko ibilbidea egin zuten herriko kaleetan, eta 42 korrikalarik jardun zuen, horietako 14, neskak. Lehena Beñat Arnaiz aretxabaletarra izan zen; nesken artean, Maier Etxebarria.



MIRARI ALTUBE

> GIZARTE ZERBITZUAK **Familia ugariendako, kirol etxeko tasaren murrizketa**

Udalak onartu du 2008ko aurrekontua, eta Gizarte Zerbitzuek adierazi dute familia ugarien dagoeneko egin dezaketen laguntza eskaera. Kirol etxeko tasa erdira murrizteko izango da eskainitako laguntza, eta baldintza bakkarrak jarri dute: familia ugarien titulua izatea. Hala, iaz ezarri zituzten baremoak kendu egin dituzte.

Udaletxeko Gizarte Zerbitzu Sailean egin behar dute eskaera interesa dutenek.

TXILARRA belar denda

Nova Linek Pisuaren Kontrolaren metodo
orekatu eta pertsonala garantizatzen ditzu,
20 urte baino gehiagoko esperientzia
duen Profesionalen Talde zabalarekin.

Nutrizio plan bat eskaintzen dizugu
lor dezazun, goserek izan gabe!

Aurkituko gaituzu:

TXILARRAn
Durana 35 behe • ARETXABAleta
943 79 10 15

Pisua eta bolumena
soberan badituzu...

NOVA
LINE

falta
zaizu

Pisuaren kontrolean
arrakasta ziuratuta duzu!



NOVA
diet

> AISIALDIA **Urkulura irteera gaztelekutik, patin eta bizikletekin**

Atxagazte gazteleku kideek gerto daukate martxoko egitaraua. Bihar, hilak 1, Urkulu urtegira joango dira patinekin eta bizikletekin ibiltzera; eta etzi, eskulanak egingo dituzte birziklatutako materialarekin. Hilaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dute, eta 9an, herri olinpiadak egingo dituzte.

Aste Santuko jai egunetan itxita egongo da gazteleku, baina hilaren 28tik 30era hiru eguneko irteera egingo dute Bermeoko Mañu aterpetxera. Interesa dutenek martxoaren 9rako eman behar dute izena, gaztelekuuan, eta 35 euro ordaindu.

ETXEBIZITZA > KASABLANKAKO ETXEBIZITZA TASATUAU

Zabalik dago Kasablankako etxe tasatuetarako izena emateko bulegoa

Bulegoa martxoaren 26ra arte egongo da zabalik Kale Barriko 30 zenbakian

Lau kupo bereitzuko dira Otadui Zuhaitziko 48 etxebizitza tasatuen zozketan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Martitzenean zabaldu zen Kasablankan egingo diren 48 etxebizitza tasatuausk eskuratu ahal izateko izena emateko bulegoa; hain zuen, Kale Barriko 30 zenbakiko beheko solairuan.

Bulegoa astegunetan egongo da zabalik: astelaren eta, 10:00etik 12:00etara; martitzetan, eguenetan eta egubakotzeten, 12:00etik 14:00etara; eta, eguznetan, 16:00etik 18:30era.

Bulegoa hilabete egongo da zabalik, martxoaren 26ra arte, eta bitartean, Otadui Zuhaitziko 60, 64, 66, 68 eta 70 zenbakietan, etxebizitz horiek eskuratu nahi dituzten eskariekin erregistro bat egingo dute. Eshaera orria betetzera orduan, honako dokumento



BULEGOA Kale Barriko 30 zenbakian zabaldu dute zozketarako erregistroa osatzeko bulegoa.

MIREIA BIKUÑA

tazioa aurkeztu behar da: alde batetik, identifikatzeko dokumentuak aurkeztu behar dira, elkarbizitza-unitatean 14 urte

baino gehiago dituzten kideen Nortasun Agirria, Etxebiden izena emanda dutenaren ziurtagiria edo elbarritasuna egiaztatzen duen ziurtagiria. Beste alde batetik, diru-sarrerei dagozkiien agiriak eroan behar dira, besteak beste, 2006ko errrenta aitorpena. Eta, azkenik etxebizitza baten jabe izanik, etxe beharra edukiz gero, arrazoiak azaldu behar dira.

tzaileen artean hiru etxe zozketatuko dira. Beste hiru etxe banatuko dira Etxebideko zerrendan lau urtez edo gehiagoz izena

emandu duten eskatzaileen artean. Azkenik, gainontzeko 41 etxeak kupo orokorrean zozketatuko dira.

Gainera, lehenengo etxebizitzen zozketa Oñatin erroldatuta egotearen baldintza betetzen duten artean egingo da, eta adjudikatu bariko etxeak geldituz gero, baldintza hori betetzen ez duten artean zozketa-tuko dira.

Edozelan ere, kupo bakoitzean etxebizitza barik geratzen diren eskatzaileek, bigarren aukera izango dute kupo oroko-reko zozketan.

ETXEA GARAJEAREKIN SALDUKO DA
Otadui Zuhaitzian eraikiko diren 48 etxebizitza tasatu guztiak garajearekin salduko dira. Etxebizitzak 80 eta 100 metro koadro artekoak dira, eta prezioak, 179.000 eta 230.000 euro artekoak. Gainera, etxe bakoitzaz garajearekin salduko da, eta garaje guztiak prezio berdina dute: 18.570 euro. Etxearen eta garajearen prezioa %7ko BEZA gehitu behar zaio.

Era berean, bai etxeak eta baita garajeak ere 'babestutako etxebizitza' kalifikazioa iraunkorra izango dute. Hortaz, hirugarren pertsona bati saldu nahi izanez gero, prezioa egingo da behin-behineko kalifikazioan finkatutakoa baino handiagoa izan.

ESKATZAILEEN BALDINTZAK

2006. urteko diru-sarrerak 27.000 eta 54.165 euro artekoak izan beharko dira

Kasablankako etxebizitza tasatuausk eskuratu nahi dituztenek Udalak zehaztutako hainbat baldintza bete behar dituzte. Zozketan parte hartzea ez da derrigorrezkoa Oñatin erroldatua egotea, baina horiek lehentasuna edukiko dute. Baldintza ekonomikoei dagokionez, eskatzailearen 2006. urteko diru-sarrerak hartuko dira kontuan. Hain justu ere, 27.000 eta 54.165 euro artekoak izan behar dira. Era berean, etxebizitzaren titular kide guztien diru-sarrerak hartuko dira kontutan azken zenbateko egiteko. Bestalde, etxe tasatuausk eskuratzeko eshaera egiten duten lagunek ezingo dute beste etxebizitzarik jabetzan eduki azken bi urteotan, Espainiako Estatuan.

Etxe tasatuen azalerak eta prezioak

SOLAIRUA	AZALERA	ETXEAREN PREZIOA	GARAJEA	AZKEN PREZIOA
Beheko	78,35 m ²	177.152 €	18.750 €	195.722 €
Beheko	81,13 m ²	179.805 €	18.750 €	198.375 €
Beheko	96,09 m ²	218.309 €	18.750 €	236.879 €
Beheko	106,45 m ²	231.380 €	18.750 €	249.950 €
Beheko	106,74 m ²	231.079 €	18.750 €	249.649 €
1., 2. eta 3. a	88,40 m ²	205.097 €	18.750 €	223.667 €
1., 2. eta 3. a	89,94 m ²	205.646 €	18.750 €	224.216 €
1., 2. eta 3. a	101,71 m ²	220.379 €	18.750 €	238.949 €
1., 2. eta 3. a	102,25 m ²	220.715 €	18.750 €	239.285 €

Oharra: Prezioei %7ko BEZA gehiatu behar zaie. Iturria: Oñatiko Udala.

> LANDAKETA
200 zuhaitz landatuko dituzte etzi, domekako Zuhaitz Egunean

Natur Eskolak antolatutako Inguruaren Astearen barruan, Zuhaitz Eguna ospatuko da etzi. Hain zuzen, 200 zuhaitz landatuko dituzte Aizkorri inguruan, besteak beste, gaztainondoak, gereziondoak eta gorostiak. Goizeko hamarretan irtengo dira autoz Foruen plazatik.

Bestalde, bihar, 09:00etan hasita, zappi mintegirekin zuhaitz feria egingo da plazan.

> ANTZERKIA
'¿Te acuerdas, abuela?' antzezlanerako sarrerak salgai daude

Martxoaren 8an, 22:30ean iragartzen den '¿Te acuerdas, abuela?' antzezlanerako sarrerak salgai daude kultura etxearen, 10 eurotan; hain zuzen, 10:00etik 13:00etara, bulegoan, eta 16:30etik 20:30era, harreran.

Axen Egaña. Olatz Beobide eta Mikel Laskurain dira, besteak beste, Hervé Jaqueren liburuaren oinarritutako lanaren protagonistak.

Musika eskolakoen kontzertua

Jose de Azpiazu Musika Eskolako neska-mutikoek kontzertua eskaini zuten eguztenean Santa Ana antzokian. Emanaldian, ikasturtean landu dituzten hainbat pieza eskaini zituzten.

Ikasleak hainbat taldetan banatu ziren, bakoitzak jotzen duen instrumentuaren arabera, eta, denetara, 18 kanta jo zituzten.



MIREIA BIKUÑA

Aurtengo aurrekontua iazkoa baino milioi bat euro txikiagoa da

Erabilera askotariko aretoa eta Ibarraundi ingurua egingo dituzte

Arau subsidiarioak herritarrekin batera aldatuko dituzte

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Eguazten iluntzean onartu zituzten 2008ko udal aurrekontuak. Ezker Abertzalea izan zen aurrekontuen alde bozkatu zuen talde bakarra. EA, EAJ eta PSE-EE abstentu egin ziren eta EB-Berdeak taldeak kontra bozkatu zuen. Elizateak taldeko ordezkaria, berriz, ez zen osoko bilkuran izan.

EAko Karmelo Lezetak argitu zuen abstenitzeko arrazoia zela udal gobernuak behin eta berriro esan duela aurreko agintaldian EAk gauzak txarto egin zituela.

EAJko Aitor Urrutiak, berriz, jakinarazi zuen Ogasun batzordeko presidentea izan arren bere taldea abstentu egin zela, euren proposamenak kontuan hartu ez dituztelako.

PSE-EEko Iñaki Pierrugesek ez zuen azalpenik eman, eta EB-Berdeak taldeko Juan Luis Merinok azaldu zuen ezezkoaren arrazoiak gerora emango dituela.

2007KOAK BAINO TXIKIAGOAK

Aurtengo aurrekontuak iazkoak baino txikiagoak dira, miloi bat euro inguruko aldea dute. Pedro Lasagabaster alkateak azpimarratu zuen aurtengoa "minimotako aurrekontua" dela, San Juan kale eta Dorletako lanen zorregatik baldintzatuta daudelako. "Aurten gerrikoan estutzen badugu, datorren urtean inbertsioak eta bestelako ekimenak egiteko moduan egongo gara".

UDAL AURREKONTUA > EZKER ABERTZALEAK BAKARRIK BOZKATU DU AURREKONTUAREN ALDE

6.121.916 euroko udal aurrekontua onartu dute



ERABILERA ASKOTARIKOA Udalaren eta Huheziren asmoa da Santa Anan erabilera askotariko lokala egitea.

IKER BARANDIARAN

Aurtengo inbertsio handiena erabilera askotariko lokalarena izango da. Udalak eta Huhezik bat egin dute helburu horrekin, eta proiektua idazteko partida bat onartu dute. Asmoa da erabilera askotariko lokala mojen zine zaharrean -gaztetxea ere izan zen eraikinean-, Santa Anan kokatzea.

IBARRAUNDI INGURUA HOBETU

Beste inbertsio garrantzitsu bat San Pedro eta Ibarraundi arteko ingurua hobetzeko izango da. Asmoa zen 700.000 euroko gastua egitea, baina ez dute diru nahi-korik, eta aurten lehenengo faseari bakarrik helduko diote: San Pedro auzotik Ibarraundi muse-

ora irteko errepeidea egitea, hain zuzen ere. Hortaz, gerorako utziko dute inguru horretan parke eta pasealeku bana egitea.

Bestalde, elizateak ere aintzat hartu dituzte, eta horiendako ados-tutako diru partiden artean auzo elkarreendako gordetakoak nabarmen daitezke: 60.000 bat euro

Aurrekontua sailez sail

Obra-Zerbitzuak	1.315.240
Ogasuna	1.140.040
Hirigintza	505.935
Kirola	439.938
Gizarte Ongizatea	391.129
Kultura	374.955
Hezkuntza	323.817
Elizateak	260.214
Museoa-Turismoa	253.430
Euskara	234.453
Gazteria	162.606
Sustapena	27.775
Telesko	94.784
Industrialdea	597.598
Gutzira	6.121.916

ITURRIA: ESKORIATZAKO UDALA.

bereiztu dituzte, Mazmelen eta Zarimutzen auzo lokalak egiteko aukerak izateko.

2009AN, ARAU SUBSIDARIOAK

Pedro Lasagabaster alkateak aipatu zuen bere taldearen asmoa zela aurtengo aurrekontuak herritarren esku-hartzearekin prestatzea, baina azken orduan izan dituzten ezusteengatik ez dela posible izan. Hala ere, nabarmendu zuen 2009an arau subsidiarioak aldatuko dituztela eta herritarren esku-hartzea bultzatuko dutela bai arau subsidiarioak aldatzeko eta baita aurrekontuak prestatzeko ere.

IKUSKIZUNA > IPUIN KONTAKETA

Gaur, egubakoitzta, 'Boni' Ofogo ipuin kontalaria Huhezin

Kamerungo ipuin kontalari horrek ibilbide luzea dauka narratzaile moduan; gaztelerez egingo du

I.B. > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitzta, Kamerungo Boniface Boni Ofogo NKamak ipuin kontaketa egingo du Huheziko areto nagusian, 22:30ean. Sarrera doan izango da, eta Udalak antolatu du, beste askotan moduan.

Ofogo Madril aldean bizi da aspalditik, baina sustraiak Kamerunen ditu. Hala, Ofogoren esane-

tan haurtzaroan jaso zuen ezagutza, ahozko ezagutza hain zuzen ere, oinarrizkoia izan da berarendako. Honela azaldu digu: "Nahiz eta horren ostean bestelako ikasketak egin nituen eta literaturaren bidez ezagutza asko jaso dudan, nire narratzaile lana ahozko ezagutzan oinarrizten dut, ezinbestekoa da niretzat".

1988an heldu zen Espainiara eta 1992a ezkero dihardu ipuinak kontatzen; hain zuzen ere, profesionala da zeregin horretan. Bere espezialitateak elezaharrak (fabulak), kondairak, mitoak eta Afrika beltzko usadioak dira. Horrez gain, azaldu digu aspaldian Afrikako eroismoa ere lantzen duela.

Ipuinak gaztelerez kontatzen ditu, eta Espanian, Euskal Herrian zein Hegoamerikan ibilia da ipuinak kontatzen eta Afrikako izaera transmititzen.



AFRIKAKO IZAERA Ofogok Afrikako izaera transmititzen du.

GOIENKARIA



JAIALDI HANDIAK Elorrioko Yakuzi taldeak, sari garrantzitsuak jasotzeaz gain, jaialdi handietan esku hartu du.

YAKUZI

MUSIKA > TALDE BETERANOEN KONTZERTUAK

Bilbo Hiriko irabazleak, Yakuzi, Inkernu tabernan

Egubakoitzean Elorrioko Yakuzi intentsitate handiko taldea eta zapatuan Erreneriako Boogie Van talde rock-zalea izango dira Inkernu tabernan

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Inkernu taberna gero eta ezagunagoa bilakatu da musika kontzertuen zirkuituan. Hala, gero eta talde gehiago jartzen dira Aitzorrotz kultura elkartarekin harremetan Eskoriatzan kontzertuak egiteko.

2006KO BILBO HIRIA LEHIAKETA
Gaur, egubakoitz, Elorrioko Yakuzi taldea izango da Inkernu tabernako agertokian, 22:30ean.

Taldeak *Hot Balneario* izeneko hirugarren diskoa aurkeztuko du; izan ere, 1998an abian jarri zutenetik izugarritzko bilakaera izan du. Hain zuzen ere, 2006an Bilbo Hiria musika lehiaketako irabazole izan zen pop-rock sailean. Horren aurrelik, baina, Espainiako eta Euskal Herriko aldizkari espezializatuetan kritika oso onak jaso ditu intentsitate handiko kantuak egiten dituen talde horrek.

ERRENERIAKO ROCK INDARTSUA
Erreneriako Boogie Van rock-zaleak ere hainbat sari irabazi ditu. Hala, Bilbo Hiria lehiaketarako sailkatu zen eta 2006an Donostia Hiria pop-rock lehiaketa irabazi zuen.

Boogie Van zapatuan izango da Inkernu tabernan, 22:30ean, eta laugarren diskoa aurkeztuko du. Black Sabbath eta Led Zeppelin ildotik abiatuta, stoner-rocketik hurbil dago aspaldian.

Lau piano jotzaile gazte, dominekin

Joan den zapatuan Andoainen Gipuzkoako eta Bizkaiko piano jotzaileen jaialdia egin zuten. Debagoieneko piano jotzaile gaztetxo ugari joan ziren hara.

Eskoriatzako lau ikasle izan ziren jaialdian, eta hainbat domina ekarri zituzten handik: 10 urteko Aitziber Erañak urrezko domina eskuratu zuen; adin bereko Eider eta Enara Markaidek, brontzea; eta 13 urteko Leire Zurutuzak, zilarrezkoa.



IKER BARANDIARAN

LANAK > AP-1 AUTOBIDEA

Herri sarreran biribilgunea egiteko lanak, uztailera arte

Herriko iparraldeko sarreran autobiderako lotura egiten dabilta hainbat enpresa

I.B. > ESKORIATZA

Joan den egubakoitzaz ezkerro Eskoriatzako iparraldeko sarrera erabat aldatuta dago, eta autoak Intxaurtxuetatik bideratzen dituzte, hain zuzen ere, autobiderako lotura egiteko lanak egiten dabilta-eta.

IBAIAREN NORABIDEA ALDATU

Bidegik dauka lan horien arduera, eta Ferrovial-Agroman eta Construcciones Sobrino dabil-

tza egiten. Horren harira, lanen zuzendaritza daraman Europistaseko ordezkariek jakinarazi dute puntu horretan Deba ibaiaren norabidea apur bat aldatuko dutela.

Horrez gain, ekainean bidegorriaren pasabidea bota eta berria jarriko dute. Baino, orduera arte, bidegorrian lasai asko ibili ahal izango da. Lanek ekainaren bukaera arte iraungo dutela aurreikusi dute.



SARRERA Autoak Intxaurtxuetatik bideratzen dituzte.

MIRIAN BITERI

ZERBITZUAK > OSASUN TXARTEL ELEKTRONIKOA

Osasun txartel elektronikoa eskatzeko aukera dago

Izenpe txartela ordezkatu, eta Osakidetzako zerbitzuak ere barruan sartuta daude

I.B. > ESKORIATZA

Jaurlaritzak erabilera askotariko osasun txartel elektronikoa sortu du. Txartel berri horrek Izenpe txartela ordezkatuko du, eta Osakidetzako zerbitzuak ere hartuko ditu barruan.

Jaurlaritzak Basaurin eta Beasainen egin ditu probak, eta esperientzia oso positiboa izan da. Izan ere, basauriarrak eta beasaindarrek osasun txartel elektronikoa eskatu dute, eta dagoeneko tramtazioan daukate.

ASTELEHENEAN HASITA

Orain Eskoriatzan izango da osasun txartel elektronikoa eskuratzeko aukera. Hala, aste-

lehenetik (martxoak 3) hilaren 14ra arte, KZgunean pertsona bat egongo da herritarrei arreta egiten, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

Jaurlaritzaren esanetan, osasun txartel berriarekin administrazioak eskaintzen dituen zerbitzu telematiko guztiak bideratu ahal izango dira.

Txartel berria ONA moduan izendatu dute: hau da, Osasun Nortasun Agiria. Ordenagailuan txartel irakurgailua erabiliz eta identifikazio gakoak sartuz, izapidez telematikoak egin ahal dira. ONA txartela Osasun Txartel Indibiduala (OTI) duten 16 urtetik gorako pertsonek eska dezakete.

> AISIALDIA

Irratsaioak egiten ikasiko dute aste bukaeran gaztelekura joaten diren guztiekin

Gazteleku martxoko egitaraua aditzerako eman dute Txatxilipurdiko eta Udaleko Gazte Zerbitzuko arduradunek. Bihar, zapatua, irratsaio bat egiten ikasiko dute; eta domekan, irrati tailer praktikoa egingo dute Bergarako Txapa irrati libream.

Hurrengo asteburuan, berriz, zapatuan frontenisean jokatuko dute eta domekan film laburren emanaldia egingo dute.

HIRIGINTZA > PIBOTEAK

Kalebarrenen eta plazan pibote mugikorrak ipiniko dituzte

Pibote berrieik sistema automatikoa bidez funtzionatuko dute, eta helburua da aste bukaeretan zirkulazioa mugatzea modu erosoago eta egokiagoan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Kalebarrengoa eta plazako obrak egin zituztenetik, aste bukaeretan oinezkoendako bakarrik izaten da gune hori eta ezin dira ibilgailuak bertatik pasatu.

Horretarako, aguazilarak piboteak ipini izan ditu eskuz astero-astero Kalebarrengoa sarreran eta Herriko Plazako irteeran. Piboteak zapatu eguerdian ipini izan ditu eta kendu, berriz, astelehen goizean.

PIBOTE BERRIAK
Orain beste pibote batzuk ipintzen dihardute bi toki horietan, eta sistema berriarekin dena automatikoa izango da, programatuta egongo delako. Hontzak, piboteotaz ez da aguazila arduratu beharko.

Gainera, Udaleko aparejadorre Valen Moñuxek esan digunez, "oraingo sistema egokiagoa eta seguruagoa da".



SEMAFOROAK Dagoeneko ipini dituzte 1,40 metroko altuera duten semaforoak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hemendik aurrera, Udalaren asmoa da herriko tarte hori zapatu eguerdian ixtea eta domekako azken orduan zabaltzea ibilgailuendako. Hala ere, edozein larrialdi sortuz gero, badaude plaza eta Kalebarrenera sartzeko aukerak. Dena dela, sistema elektronikoa denez, Udalak izango du aukera edozein momentutan zabaltzeko.

BI ASTE BARRURAKO GERTU

Dagoeneko ipini dute Kalebarrenen eta plazan pibote bana. Pibote horiek semaforo funtzioa izango dute. Hala ere, ez dira ohiko semaforoak izango. Pibote txikiak dira, 1,40 metroko altuera dutenak, eta bakoitzak bi argiditu: gorria eta berdea. Semaforo txiki horiekin Herriko Plazan goitik sartzeko itxita egongo da,

baina plazatik irteteko automatikoki zabalduko da automobilak pibotearen aurrean ipinitakoan.

Oraingo semaforoak ipini baditzute ere, sarrera bakoitzean pibote mugikor bat eta altzatutako bi izango dira. 200 mm-ko diametroa eta 600 mm-ko altuera izango dute, eta kolore gorri iluna.

Aurreikuspenen arabera, bi aste barru ipinita egongo dira.

ZINEMA

Zinema saioak kendu egin ditu Udalak

Saioetara jende gutxi joaten zelako erabaki dute emanaldiak kentzea

I. A. > ANTZUOLA

Aurten ez da zinema emanaldiak izango; ez udaberri eta uda partean egubakoitz gauean ematen zituzten helduentako saiorik, ezta domeka arratsaldeetan egiten zuten umeendako emanaldiak ere.

Zinema emanaldieta jende gutxi joaten zela ikusita, Udaleko Kultura batzordeak erabaki du bertan behera uztea saioak.

BALORAZIO OSTEKO ERABAKIA

Kultura batzordeak esan digu kultura ekitaldien balorazioa egiten dutela urte amaineran, eta ikusle kopuruak behera egin zuela ikusita hartu zela erabakia.

Hurrengo balorazioa egiten dutenean ikusiko dute zinema saioekin zer egin. Izan ere, kultura ekintza berriak antolatzeko aukera ere sor liteke urtetik urterea.

Kultura teknikariaren esanetan, "Antzuolako zinema eredua ez da beste herrietako bezalakoa; hontz, kentzeak beharbada ez du hain-besteko garrantziarik".

ZIRKULAZIOA > KALEA ITXITA

Buztinzuri eta Kalegoi arteko bidea ibilgailuendako itxita dago

Martxoaren erdira arte autobus geltokiak Antiguau eta Olaranen egongo dira, urbanizazio lanak direla medio

I.A. > ANTZUOLA

Buztinzuri eta Kalegoi lotzen dituen bidea itxi egin du Udalak, Kalegoiko etxe berrien aurreko urbanizazio lanak amaitzeko.

Bide tarte horretarako zoladura Antzuolako alde zaharrean ipintzen diharduten zoladuraren modukoa izango da. Izan ere, adokin moduko lurra 10-15 metroan zegoen asfaltoa ordezkatuko du. Horrela, kale guztia modu berean ipiniko dute.

Alde zaharreko kale horrek, hontz, adokineko zoladura izango du. Alkateak esan digu ez dute la baztertu etorkizunear herriko beste gune batuetan gauza bera egitea, Kalegoi edo Ondarra Plazan, esaterako, baina oraingoz ez dela obrarik egingo.

Udalak jakinarazi duenez, gutxi gorabehera 15 egunez egongo da itxita bidea. Oinezkoendako pasabide estua utzi duten arren, autorik ezingo da bertatik ibili urbanizazio lanak amaitu bitartean, martxoaren erdi ingurura arte, alegia.

AUTOBUSEK ARAZOA

Autoetan ez ezik, bestelako ibilgailuengau ere izango du eragina Buztinzuri eta Kalegoi arteko bidea ixtreak. Herri barruan ibiltzen diren autobusek sumatuko batez ere aldaketa.

Ondorioz, martxoaren 3an (astelehena) hasita, Bergarakit Zumarragara doazen autobusek Antiguau izango dute geltokia; Zumarragatik Bergarako doazen autobusek, berriz, Olaran etxearen aldamenean. Hori dela-eta sor daitezkeen trabengatik barkameña eskatu du Udalak.

Bergarakit datozen autobusak ezin dira kaleetatik pasatu, Sagastin sartuz gero Zumarraga aldera ezin direlako irten. Horretarako irtenbide bat adostu du Udalak Pesako arduradunekin: Zumarragatik Bergarako doazen autobusak Olaran etxe parean geratuko dira, lehen bezala. Bergarakit Zumarraga doazenek, aldiz, Antiguau utzikoa eta jasoko dituzte bidaariak. Izan ere, goitik behera datozen autobusak Zupide paretek sardaitezke herri erdira eta Kalebarrendik irten, lehen bezala.

> OSASUNA

Bularreko minbiziaren gaineko hitzaldia egingo du Katxalin elkarteak, martitzenean, Olaranen

Datorren martitzenean, martxoaren 4an, hitzaldia izango da Olaran etxearen, 18:00etan. Bularreko minbiziaren gaineko berbaldia izango da. Hizlariak jardungo du, besteak beste, bularreko minbiziaren arrazoiez, gaitza garaiz antzemateko egin beharreko azterketez, gaixotasunari aurre egiteko dauden tratamenduez eta aditu guztien esanetan horren beharrezkoa den prebentzioa.

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Emakumeen Katxalin elkarteak antolatu du hitzaldia. Egoitza Donostian duen elkartea horrek informazio hitzaldiak antolatu ohi ditu. Hizlaria Donostiako Onkologia Institutuko doktore Maria Jesus Mitxelena izango da.

> ANTZERKIA

Oihulari Klown taldeak 'Zai, beti zai' antzezlanan eskainiko du domeka arratsaldean Olaranen

Martxoaren 2an, domekan, Oihulari Klown taldearen eskutik antzerki saioa izango da, 19:00etan, Olaranen. *Zai, beti zai* antzezlanan eskainiko dute Rita Aldai eta Maria Alonso aktoreek. Sarrera hiru euro izango da.

Zenbait emakumek jaso duten heziketa afektiboaren inguruko parodia izango da. Ordubete inguru iraungo duen ikuski-zunean, erromantizismoaz, musuez, fideltasunaz eta desioaz jardungo dute, betiere modu dibertigarri eta didaktikoan. Izan ere, bi pailazoak sekula iristen ez den printze uredinaren zain egongo dira eta euren kezken berri emango diente ikusleei, haien barrez lehertzen ipintzeraino.

bere ustez



Sebastian Arantzial

Gertukoa
zaindu
behar dugu

M undu guztia garapen iraunkorren alde hitz politak egiten dituen garai hauetan, begi bistakoa da gure gizarte hau kontrako bidean doala. Petroliao eta erregaiak etengabe garestitzen doazenean, gure errepideetan gero eta auto gehiago dabil. Goizero poligonoa datozen auto gehienak gidariarekin bakarrik etortzen dira. Bestalde, ezinbesteko ohitura bihurtu zaigu erosketak egitera Hiper-Makro-Super-etara joatea. Ez dira urte asko, Elgetak biztanle

"Has gaitezen
egoera iraultzen,
denda txikietan eta
baserritarren
produktuak erosten"

gutxiago zituen garaietan, herrian bi harategi, arrandegia eta hiru janari denda zeuden. Gaur bi janari denda dau-de bakarrik.

Egungo garapenaren gurpil zoroari bueltaka jarraitzen badiogu, helduko da eguna lurrik *aski da!* esango duena eta etorkizun beltza utziko diegu gure ondoren-goei.

Has gaitezen egoera hau iraultzen gure eguneroko ohiturak aldatuz. Super-Hiper- etarako bidaia alde batera uzten eta herriko denda txikiak bultzatzen. Baita inguruko baserritarren produktuak komertzializatzeko sareak irekitzen. Horrela jakingo dugu zer erosten dugun eta zer jaten dugun. Gizakiok jaten duguna garelako.

((112))
SOS DEIAK



BALTXONGUA 1968ko maiatzean zabaldzu zuen denda Salvador kalean Maria Asun Agirrek.

L.Z.

MERKATARITZA > DENDA ITXIERA

Baltxongua bihar itxiko dute, 40 urteren ostean

"Ez naiz negar egitekoa, baina bihar agian malkoren bat edo beste botako dut", onartu du, hunkituta, erretiroa hartzen duen Maria Asun Agirrek

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Maria Asun Agirrek eta haren ahizpa Maribelek bihar, zapatua, zabalduko dute denda azken aldiz.

1968ko maiatzean zabaldzu zuten komertzioa *Baltxongokuek*. Harrezkero, 40 urte igaro dira eta asko aldatu dira gauzak bai den-dan, bai Elgetan: "Lehenengo denda txikia zen oso", gogoratzen du Maria Asunek. "Denetarik saltzen genuen: aspirinak, espartinak,

ontziak, papera... Azukrea, kafea eta antzerakoak zaku handietan etortzen ziren eta soltean saltzen genituen. Figurak ere saltzen genituen. Garai hartan kanpotar asko etorri ziren Elgetara bizi izatera, eta etxeak apaintzeko erosten zitzuten".

Pena handiarekin ixten due-la aitorru digu Maria Asunek: "Garai onak eta txarrak izan ditugu dendan, baina oroitzapen oso

onak ditut. Tertulia ederrak egin ditugu hemen! Familia giroa izan dugu beti".

ERRENTAN EMATEKO AUKERA

Salbador kaleko urbanizazio lanak tarteko erabaki dute Baltxongua ixtea: "Errentan eman gura dugu eta egin digute kuku bat, baina nahiago dugu lanak amaitu arte itxaron". Herrian, bitartean, jana-ri denda bakarra izango dugu.

IRTEERA

Gasteizko izotz pistara, martxoaren 15ean

Izenematea zabalik dago udaletxean, ludotekan eta gaztelekuau

L.Z. > ELGETA

Gasteizko izotz pistara irtee-ra antolatu du Elgetako Uda-lak. Martxoaren 15ean, zapatu, egingo dute, eta herritar guztiegi dago zabalik: "Arratsalde dibertigarria pasatzeko aukera dute herriko ume, gaz-te, heldu eta erretiratuek", adierazi du Udalak.

Izenematea zabalik dago udaletxean, ludotekan eta gaztelekuau. Prezia 10 euro da 18 urtetik beherakoendako, eta 12 euro, gainerakoendako. Ludotekako eta gaztelekuuko bazkideendako, sei euro da.

> ERRETIRATUAK
**Mahai jokoak egingo
dituzte martxoaren
5ean Ozkarbin**

Elgetako Erretiratuen Elkarteak mahai jokoak antolatu ditu martxoaren 5erako, eguaztena. Briskan, musean eta tutean arituko dira, 16:00etan hasita. Interesatuek ez dute zertan izena eman. Parte hartu nahi izanez gero, Ozkarbi Elkartera jo besterik ez dute esandako egunean.

GAZTETXEA > 12. URTEURRENA

Aste bukaeran hasiko dituzte urteurreneneko ekitaldiak

Gaur, ipuin kontalari
saioa dute gaztetxean
eta bihar, zapatua,
sukaldaritza tailerra

buruzko tertulia antolatu dute, 22:30ean. Martxoaren 8an, Umen Eguna egingo dute. Hau-rrendako jokoak eta tailerrak antolatuko dituzte gaztetxean goizez eta arratsaldez.

Urteroko bazkaria martxoaren 15ean egingo dute aurten gaztetxekoek. Trikibertso pote-oa, bazkaria, jokoak, bertsolari saioak eta kontzertua egin-go dituzte, besteak beste.

SAGARDOTEGIRA, APIRILEAN

Sagardotegirako irteera, aurten, apirilaren 19an egingo dute. 11:00etan irtengo dira Hernani-rantz Elgetatik eta gauerdirako itzultzea dago aurreikusita. Sagardotegian bazkaldu eta Hernanin poteatzea da asmoa. Laster zabalduko dute izena emateko epea.



Elgetarrak, ondo piano jaialdian

Ainhoa Monterroso, Maitena Mañarikua, Maria Sarasua, Maialen Zubiaurre eta Ibane Zubiaurre Andoingoa piano jaialdian izan ziren aste bukaeran. Irakaslea gustura agertu da ikasleek egindako lanarekin: "Aurreko urtean baino emaitza hobea lortu dituzte: hiru zilarrezko domina eta bi urezkoiak". Bergarako eskolan diharduen Iñaki Beristainek ere urea lortu du.

Jose Carretero > Ibarrako auzo alkatea

"Oso ondo iruditzen zait Ibarran bi auzo alkate izendatu izana"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Jose Carretero Ibarra auzoan izendatu berri dituzten bi auzo alkateetako bat da: Ibargioa, Iturrizuri eta Aita Gabirel kaleetakoak, eta Bizen-te Goikoetxea plazako auzo alkatea, hain zuzen ere. Hiru hilabete pasa dira Ibarrako auzo alkate izendatu zutenetik.

Urte asko dira Ibarran auzo alkaterik ez zegoela. Zer iruditzen zaizu orain bi auzo alkate izendatu izana?

Oso ondo iruditzen zait eta beharrezkoa zela uste dut, Ibarra auzoa ikaragarri hasi da-eta azkeneko urteetan. Herritarrei beti zailagoa egiten zaie udaletxera gerturatzea euren kezka eta kexak azaltzeko. Uste dut auzo alkatearen figura ezinbestekoa dela bizilagunen eta Udalaren arteko bitartekari lana egiteko.

Espero zenuen Ibarrako auzo alkate izendatzea?


Ba, egia esan, ez. Gainera, ez zegoen hautagai zerrendarik. Bizilagunek, dena dela, behin baino gehiagotan esan zidaten ni bozkatuko nindutela. Nik esan nien lanpetuta nembilela, baina nire izena irtenez gero ez nuela ezetzik esango, eta nire lana ahalik eta ondoen egiten saiatuko nintzela.

Udalak auzo alkateen arteko elkarlana bultzatu nahi du eta lantalde bat ere eratu du horretarako. Zer iruditzen zaizu?

Elkarlana beti da ona, eta oso ondo iruditzen zait. Dena dela, esan behar dut auzoetako eta kaleko bi mundu ezberdin direla. Batak ez du zerikusirik bestearkin. Baino beti esaten den moduan, bi buruk batek baino gehiago pentsatzen dute.

Udalak egin ditu dagoeneko zenbait bilera auzo alkateenkin. Ze emaitza eman dute bilera horiek?

Bi bilera izan ditugu Udalarekin: lehenengoan, auzo alkate guztiek bildu ginen Udaleko ordezkariekin. Oso positiboa izan zen. Jendeak lanerako gogoa azaldu zuen, eta Udalak, elkarlanerako asmoa. Horren adibide da antolatu berri duen ikastaroa, emergentziaren aurrean nola jokatu irakasteko Gasteizko suhiltaileek emandako ikastaroa. Bigarren bilera, Udal Ibarra-kо bizilagunekin bildu zen. Uste dut auzo guztiek gauza bera egin duela. Jendeak oso ondo baloratu zuen bilera hura. Udalak bere asmoak azaldu zituen eta bizilagunek euren kezkak jakinari zizkieten Udaleko ordezkarie. Jendeak ez dago ohituta Udal horren gertu izatera, eta oso ondo hartu zuten bilera hura.



Jose Carretero Ibarra izendatu berri dituzte bi auzo alkateetako bat da.

A. BARRUSO

"Auzoetako eta kaleko bi mundu desberdin dira; batak ez du zerikusirik bestearkin"

"Ni bizilagun arrunta naiz; nire lehentasunak auzokideen lehentasun berberak dira"

Zeintzuk dira zure auzoak dauzkan gabezia handienak?

Aparkaleku falta da, duda barik, arazo nagusia. Zoratu egiten gara non aparkatu topatzentzian traba egin barik. Udalarekin egon gara eta esan digute epe motzera aparkaleku gehiago egindo dituztela, lantzen dihardutzen plan orokorraren barruan dagoela hori. Dena dela, badakigu ez

"Txakurrak kalera atera eta poltsatxoa ahazten zaienei esan nahi diet gogoan ditugula"

"Aparkaleku falta da gure arazo handiena; zoratu egiten gara autoa non aparkatu topatzeten duzu? Nola heltzen zaizki zu haien kezkak?"

dela batere erraza, aparkalekuak egiteko ez dago leku handirik-eta. Zaborrarekin ere arazo larria daukagu. 400 pertsona balkoira irteten garenean bost zabor edukiontzia eta birziklatzeko beste lau ikusten ditugu. Gainera, horrek sekulako usaina botatzen du udan. Zaborraz hizketan ari garela aprobatxatuz, agur dezaket norbait?

Bai, noski.

Txakurrak paseatzera atera eta poltsatxoa ahazten zaien guztia agurtu nahi nituzke. Esan nahi nieke gogoan dauztagula eta beti bezain jator jarraitzea.

Bizilagunekin bilerarik egiten duzu? Nola heltzen zaizki zu haien kezkak?

Nik uste dut ez dagoela bilerarik falta handirik. Kalean asko ibiltzen naiz eta tabernan, igogailuan... edozein tokitan elkartzen zara bizilagunekin. Orduan kontatzen dizkidate euren arazoak.

Zeintzuk dira zure lehentasunak Ibarrako auzo alkate moduan?

Beti esaten dudan moduan, ni ere bizilagun edo auzokide arrunt bat naiz. Ez gehiago, ez gutxiago. Beraz, nire bizilagunen lehentasunak dira nire lehentasunak.

**> UDALA
Dirulaguntza deialdia elkarte eta fundazioendako**

Irabazi asmorik ez duten elkarte eta fundazioendako dirulaguntza deia egin dute. Euren jarduerek, baina, landa eremuetako adinekoen gizarte sustapena izan behar dute helburu.

Honako zereginetarako emango dira dirulaguntzak, besteak beste: hirugarren adinekoendako gela ibiltariak garatzeko; adinekoen ospakizunak, topaketak eta jolas jarduerak antolatzeko, edo lantegiak, hitzaldiak eta ikastaroak martxan ipintzeko.

Eskaerak aurkezteko epea 2008ko martxoaren 17an bukatuko da. Interesa dute nek Gizarte Ongizateko Foru Erakundera jo beharko dute, Gasteizera.

**> BERTSO TXAPELKETA
Agirre, Arriolabengoa eta Agirre, asteburuko kanporaketetan**

Arabako Bertso Txapelketa-ko bigarren eta hirugarren kanporaketak egingo dira aste bukaera honetan. Manex Agirre, Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre izango dira kanporaketa horietan finalaurrekoetara pasatzeko lehian. Bigarren kanporaketa gaur, barikua, izango da, Lantziegon, Luis R-ko upategian, 20:00etan. Andere Arriolabengoa izango da bertan. Hirugarren kanporaketa, berriz, zapatauan egingo dute, Laudion, Basalarrina elkartean. Manex Agirre eta Iker Agirreren txanda izango da zapatauan. Idoia Beitia aramaioarrak jarriko dizkie gaiak.

**> UDALA
Gaur goizean, barikua, argindarra moztuko dute**

Barajuengo transformadorean konponketa lanak egin behar dituztela-eta argindarra moztuko dute gaur, barikua; Barajuenen 09:00etatik 14:00etara bitartean, eta gainontzeko auzoetan, 09:30 eta 10:30 bitartean.

**> ZINEMA
'Hartz izan nahi zuen haurra' emango dute domekan**

Hartz artean haziko den ume baten istorioa ezagutzeko aukera izango dute domekan Aramaioko haurrek. Zinema-rekin hitzordua astero moduan 17:00etan izango da kultura etxearen.



HIRUERREKETA Pagadiak osatzen duten basoaren erdian jaiotzen da Deba ibaia Gatzagan, Hiruerreketan, hain zuzen.

M.A.

ARRANTZA > 2008KO ARAUDIA

Arlaban errekan eta Deba ibaiaren Gatzagako tartearen ezin da arrantzatu

Jaiotzen den lekutik Arabako mugan sartu artean ezin da arrantzan egin Arlaban errekan

Deba ibaia sortzen den lekutik, Hiruerreketatik, Intxulintxa baserriraino ere debekatuta dago

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua Gipuzkoako ibai eta erreketan egiten den arrantzaren gaineko araudia onartu berri du. Otsai-

laren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten, eta orduz gero indarrean dago. Harrapa daitezkeen espezieak zehaztu dituzte bertan, arrantzaren egiteko garaia ere bai, nor-

berak behar duen dokumentazioa ageri da, eta debekupean dauden erreken zerrenda jarri dute.

DEBEKUPEKO TARTEAK

Iaz legez, aurten ere debekatuta dago Gatzagako bi erreketan arrantzaren egitea: Arlaban errekan, jaiotzen den lekutik –Gure Ametsa jatetxe inguruko basoa– Arabako mugaraino egiten duen tartearen; eta Deba ibaian, jaiotzen den lekutik –Hiruerreketatik– Intxulintxa baserriraino dagoen tartearen. Debeku bera eza-

rri dute Eskoriatzako Bolibar errekan eta Aretxabaletako Urkulu errekan.

Gainerako tarteetan ez dute zehaztu debekurik, baina hainbat baldintza bete behar dituzte arrantzaleek. Salmonidoen denboraldia, esaterako, martxoaren 23an hasiko da eta uztailaren 31n bukatu; eta arrantzaren asteko edozein egunetan egin ahal izango dute, jaiegunkak ez diren martzenetan izan ezik. Karramarroen arrantzak debekatuta jarraituko du.

Bestalde, jakinarazi dute zebra muskuiluaren aurkako neurriak hartu beharko direla. Hala, arrantzaren erabilitako bitartekoak behar bezala desinfektatu behar dira, bereziki, salabarndoak, sareak eta botak.

DOKUMENTAZIOA

Arrantzaren egiteko ondorengo agiriak behar dira: ibai arrantzako autonomia baimena; urteko tasaren ordainagiria; nortasun agiria; eta, barrutietan arrantzaren eginez gero, dagokion baimena.

ALDUNDIA > DIRULAGUNTZAK

21.000 euroko dirulaguntza bideratu dute Gizarte Zerbitzura

Etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duen pertsona bakarra dago Gatzagan; telelaguntza dutenak, lau; eta eguneko zentrora ez doa inor

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008rako onartu zuen aurrekontuan, Gizarte Zerbitzura bideratutako laguntzak daude. Udalei zuzentzen diete, baina Aldundiak beregain hartuta dituen zerbitzuak ordaintzeko izan ohi dira. Gatzagaren kasuan, 21.165 euro jasoko ditu Udalak, hainbat zerbitzu ordaintzeko.

Laguntza behar duten autonomoen ardura Udalak dauka, eta mendekoena, Aldundiak. Hori jakinik, hona zerbitzuetara bideratutako kopuruak: etxeko laguntza zerbitzuaren dako, 11.481 euro; telelaguntzarako, 321 euro; pentsioendako, 1.948 euro; oinarrizko errentarako, 6.312 euro; banakako dirulaguntzen dako, 971 euro; eta ezinduen lagun-

tza teknikoaren kudeaketarako, 132 euro. Hortaz, guztira, 21.165 euro dago gatzagarrendako.

ARGIBIDEAK HERRITARREI

Gatzagan etxerik etxeko laguntza jasotzen duen pertsona bakarra dago, eta telelaguntza dute-nak, lau. Eskoriatzako eguneko zentrora ez da inor joaten, eta zahar etxeen ere ez dago gatzagarrik. Kontuan hartuta baserri asko daudela, eta horietan adinekoak bizi direla, Ainara Gabilondo gizarte laguntzaileak dio oso gutxi direla laguntza eskaera egin dutenak. Horregatik, Gizarte Zerbitzuak eskaintzen dituen laguntzen gaineko argibideak emango dizkiete herritarrei.

> EMAKUMEAK
**Martxoaren 8ko
bazkarirako
izenematea, zabalik**

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dute martxoaren 8an, zapatua, Gatzagako emakumeek. Urtero legez, Sorginak elkartea antolatu du, eta Gure Ametsa jatetxeen izango da bazkaria. Izena astelehenetik aurrera eman dezakete interesatuek Labidea denden.

Bestalde, gaur, otsailak 29, afaria egingo dute emakumeek Mariatxen Arantzabal kideari agur esateko. Maulandia jatetxeen izango da.

Eneko eta Iker Pou > Eskalatzaileak

"Espedizio guztietan egon da arriskua; ere, ez dago abenturarik arriskurik galduen"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Martitzenean izan ziren Eneko Pou (1974) eta Iker Pou (1977) anaia gasteiztarra. Arrasaten, Mondragon Unibertsitateak antolatu zuen ikus-entzunezkoan. *7 Pareta, 7 Kontinenten* proiektuaren gainean egin zuten berba, eta Patagonian egindako azkenaurreko abentura izan zuten saioko ardatz: "izan ere, Antartikako bidaia oraindik ezin dugu era-kutsi, amaitu barik dago".

Urteak daramatzazue bidaiaik egiten, baina duda barik orain amaitu duzuen 7 Pareta 7 Kontinenten da egin duzuen proiektu mardulena. Pozik?

Bai, duda barik, oso pozik geratu gara. 2002an aurkeztu genuen proiektu hori, 2003an hasteko, baina gero bistan geratu da baikorregiak izan ginela. Gure asmoa zen egitasmo hori hiru urtetan gauzatzea, eta ia bost urte behar izan ditugu. Hala ere, orduan finkatutako helburu guztiek bete ditugu, eta ezin gara kexatu, ez.

Proiektu hori burutzeko lan egiteko modua dezente aldatu behar izan duzu.

Bai, bai. Lehenago ere modu profesionallean jardutzen genuen, baina egia da 2003tik aurrera asko aldatu direla gauzak, profesionalizazioari dagokionez. Eskalatzairekin batera, planifikazio handia eskatzen zuen proiektuak, eta babesle asko lortu behar izatea; izan ere, aurrekontu handia behar izan dugu.

Bistan da aurrerantzean babes-leak lortzeko 7 Pareta 7 Kontinentemarketin kanpaina ona izan dela, ala?

Duda barik. Hasteko, orain arte egiteke zegoen proiektu bat izan da, eskaladari dagokionez guizan gara lehenengoak horrelako abentura bat egiten, hau da, kirol mailan badu bere balioa. Baina bestetik, komunikabideen artean oihartzuna izan duen proiektua izan da, jendeak jarraitu egin gaitu.

Alde horretatik, jakin duzue proiektu hori "saltzen".

"Gustura geratu gara amaitu berri dugun proiektuarekin, bai kirol arloan, eta baita oihartzuna izan duelako"

"Lehen, zaitasunak izaten genituen babes-leak lortzeko, baina egoera hori erabat aldatu da"

Beno, seguru nago gauzak hobeto egin daitezkeela, beti dagoelako zer hobetu. Baina, ez dut uste anaiak eta biok, eta inguruan laguntzen izan ditugun lagunek askoz ere gauza gehiago egin genezakeenik; azken batean, komunikabideen arreta lortu dugu.

Martitzenean onartu zenuten orain jende asko dagoela zuekin lan egiteko interesarekin.

Bai, alde horretatik gauzak erabat aldatu dira. Lehen espedizio bat antolatzeko batetik bestera ibili behar ginen babesle bila. Orain, berriz, ia kontrakoa gertatzen da. Hainbat telebista katek dokumentalak egin gura dituzte gurekin, eta babesleak gertu daude gurekin lan egiteko. Orain, urtea zelan antolatzea izaten da buruhausteetako bat, ez dugulako denborarik denekin nahi duguna egiteko.

Munduan zehar hara eta hona ibili eta gero, ze paretarek eta ze kontinenterek geratuko zinatekete?

Uf, erantzun gaitza da hori. Iku-entzunezkoan jarritako adibide bera jarriko dugu: Ama batizazpi seme-alaben artean aukeratzeko eskatuz gero horrelakorik ezin duela egin erantzungs Luke, eta gueregoa antzerakoan gaude. Guztien artean bat aukeratu beharrean, pareta bakoitzean bizitako esperientzia guztiek geratzen gara.

Oker ez banabil, Antartikara egindako azken espedizioan gorriak eta bi ikusi dituzue.

Bai, hala da. Abentura moduan, guztien artean handiena Antartikakoa izan da, baina orain momentuan ez ginateke hara itzuliko, seguru. Eta, itzultzekotan ez ginateke belaontzian joango [Barre].

Orokorean oso esperientzia gogorra izan da. Batetik, nabigazio kontuetan ez genuen inolako esperientziarik, eta Ushuaiatik Antartikarako bidea gogorra egin zitzagun. Bestetik, Antartika bera egoteko leku desegokia da, sekulako hotza egiten du han, eta arazoren bat izanez gero han ez dago laguntha eskatzerik, edo ez da horren erraza, behintzat.

Zerua Peak izan zen Antartikan han egin zenuten tontorra.

Bai, lehenengoz igo genuen mendi hura, eta izen hori jarri genion tontorrera iritsitakoan lurretik baino zerutik gertuago geundela uste genuelako. Horrenkin batera, *Azken paradisua* izenarekin izendatu genuen espedizio hura, egia esateko, munduan geratzen den azken paradisuan geundelako.



Iker eta Eneko Northanger belauntzian atzean "Zerua Peak" dutela. (Eskalada egin eta gero).



Madagascar 2004 (Bravo les filles bidea).



Trangoko dorrearen tontorrean (Karakorum 2005).



Totem P

Espedizioak alde batera utzita, zer behar da zuek darama-bizitza eramateko?

Lehenengo eta behin, argi eta garbi izan behar da horrelako apustu bat egiteko gertu zaude-la, izan ere, gauza asko utzi behar izaten ditugu alde batera. Normalean ez dugu egonkortasunik izaten, denbora gutxi eginen dugu etxearen eta batetik bestera ibiltzen gara urte osoan zehar.

Alde horretatik, guk beti gura izan dugu bizitza intentsitatez bizi, eta orain egiten duguna da

horrela bizitzeko modu onena. Izan ere, ez ginateke gustura bizi-ko egun osoan Gasteizen sartuta egongo bagina. Gainera, ikusi dugu zorte apur batekin bizi oso-rako gauza bat izan daitekeela, eta zorterik ez badugu, gure bizitzako etapa bat izango da; horren-bestez, topera aprobetxatu behar dugu.

Bidaiaaren edertasuna eta kirol lorpenaren zurrara erakusten duzue ikus-entzunezkoetan. Baina lana dago atzean.

"Guk beti gura izan dugu bizitza intentsitatez bizi, eta egiten duguna da horretarako modu aproposena"

"Zorte apur batekin gure ogibidea izango da hau; ez badugu horrenbesteko zorterik, gure bizitzako etapa bat"

izan
be"



JAVI BARAIAZARRA



Poleko horman, Tasmania 2005.

JAVI BARAIAZARRA

Gaur, esaterako, goiz osoa daramagu ordenagailuaren aurrean, artikuluak idazten. Dena ez da bidaia, eta dena ez da abentura, sekulako lana dagoe-lako espedizio bakoitzaren atzean, eta baita espedizioan bertan ere bai. Izan ere, bidai bakoitzat oporraldi bat moduan planteatuko bagenu ez genituzke kirol lorpen horiek lortuko.

Askok egingo dizueten galde-ra da hau: zein da hurrengo proiektua?

MOTZEAN

"Antartika abentura da, eta baita hara joateko bidaia ere"

Eskalatu dituzten hormen artean bat aukeratzeko gauza ez direla onartu dute Pou anaiek. Hona hemen, baina, espedizio bakoitzaren gaineko laburpena, berba gutxi batzuetan.

Yosemiteko (AEB) Kapitain paretan egindako *El Niño 8ba+/b* zaitasuneko bidea (2003):

Seguruenik orain arte egin dugun eskalada libreko saiorik onena izan zen Yosemiten egindako hura.

Asturiasken, Boulnesko Zun-beltz bidea 8b+ bilakatu zuten (2003):

Arriskua, beldur handia iga-ro genuen hor. Oso eskalada saio arriskutsua izan zen hura.

Madagaskarren (Afrika), Tsaranoro hormako *Bravo Les Filles* bidea (2004).

Hura izan zen orain arte egin dugun bidaiarik exotikoena. Eskaladak beste bete gintuen Afrikan egindako egonaldiak.

Tasmanian (Ozeania), Totem Pole (2005):

Egin dugun eskaladarik este-tikoena, ikusgarriena. Hara tele-bista kamerarik ez eramatea han-ka-sartzea izango litzateke.

Trangon (Asia), izenik gabeko dorrea (2005).

Burututako amets bat izan zen, Himalaian goi mailako eska-lada egin ahal izatea, alegia.

Patagonian (Argentina), Fitz Roy (2007):

Burututako beste amets, gaz-tatik gura izan dugulako Patagonian eskalatu, bai Fitz Roy eta baita Cerro Torren ere. Antartikan tontorra egitea berezia izan zen, baina Fitz Royko gailurrera iristea ere oso berezia izan zen guretako.

Antartikan, Three Pigs mendiko Zerua Peak tontorra (2008):

Zelako lekua den..., han bizi-za dugun abentura izan zen azpimarragarriena. Inongo duda barik, Antartika abentura da, eta ez han egotea bakarrik, haraino joatea ere sekulako bidaia da.

Askotan egiten digute galde-ra hori, bai, baina oraingoz ezin dugu erantzunik eman. Hainbat proposamen ditugu esku artean, gauza asko buruan, baina ondo aukeratu behar dugu egin gura duguna, eta jakin noiz hartu behar dugun atsedena. Aurrera dezakeguna da aurten film polit bat egin gura dugula *7 Pareta 7 Kontinenten proiektuan* batutako material guztiarekin, eta horrekin batera, liburu bat ere idatziko dugu. Hori da, oraingoz, aurre-ra dezakeguna.



IARRA Aritz Igartua UDAko erdilaria baloiarekin, Ibarra jokatutako aurreko partidu baten.

GOIENKARIA

FUTBOLA > PREFERENTEA ETA ERREGIONALA

Aretxabaletak pauso bat behar du domekan, aurrekoak harrapatzeko

Igor Gordobil-en taldeak zortzigarren dagoen Hernani hartuko du domekan, Ibarra (16:30)

X.U. > BERGARA
Aretxabaletak (38) pauso batera diu aurreko postuetan dauden taldeak. Liderra -Ordizia- zazpi puntuera badago ere, hirugarraren dagoen Berio ez dago horren urrun, lau puntuera. Oraindi hamaika jardunaldi geratzen dira azken esprinta egiteko, puntu asko daude hor, eta amore ematen ez badu, Aretxabaleta oraindi aurrekoen borrokan murgil daiteke, baita Mondra

(36) ere. Aretxabaletarrek Hernani (32) hartuko dute domekan, azken bi partiduak galdu dituen taldea.

Mondrak, berriz, bigarren astez jarraian etxetik kanpora jokatuko du. Joan den astean sailkapeneko azken taldearen kontra nagusitu ziren (2-3), eta oraingoan azken-aurreko lekuaren dagoen Touringen (21) zelaian jokatuko dute (zapatua, 17:00, Errenteria).

ALOÑA, REAL UNIONEN ZELAIRA
Oñatiako taldea (25) puntu beharrean da, joan den astetik hona egoera ez delako larregi aldatu. Azkoaga inen Hondarribiaren kontra batutako puntu (0-0) motz geratua, eta oraindi hiru puntuera daude jaitsiera postuak.

Gainera, kontrario gogorra izango dute bihar (17:30), bigarren dagoen Real Unionen zelaira egin beharko dute-eta bisita.

ERREGIONALA, ESTU-ESTU

Bederatzi jardunaldi geratzen dira erregionalean, eta hor ere gura beste emozio, Antzuolak eta Bergarak igotzeko lehian jarraitzen du-eta. Joan den asteko emaitzek ez zuten batere lagundu, eta bi taldeek atzera pausoa egin dute sailkapenean.

Hala, Bergarak (37) lider dagoen Amaikak Bat (43) hartuko du bihar Agorrosinen (16:30). Merinoren mutilek gehiago estu-dezakete sailkapena. Antzuolak (37), berriz, Amara Berri (27) taldearen bisita izango du bihar Estalan (15:30).

ATLETISMOA > EUSKADIKO KROS TXAPELKETA

Mari Sol Ramos eta Beñat Etxabe Euskadiko kroseko txapeldun izan dira

Lasterkari horiekin batera, ibarreko beste atleta askok marka onak egin zituzten, eta surrealdean sailkatu

X.U. > BERGARA
Joan den asteburuan egin zuten Amurrian Euskadiko Kros Txapelketa. Hala, Mari Sol Ramos eta Beñat Etxabe urrezko domi-narekin itzuli ziren. Ramos ema-

kumezko beteranoen kategorian nagusitu zen, eta Etxabe infantiletan gailendu zen. Kategoria horretan, hain zuzen, laugarren helmugaratu zen Beñat-en anai Jokin Etxabe, eta datorren asteburuan Zamoran izango dira biak, Lurraldeko Espainiako Txapelketan.

Gazte mailan, Sergio Gar-tzia oñatiarrak meritu handiko hirugarren postua lortu zuen; lasterketan zehar hainbat arazo fisiko izan zituen, horregatik ez balitz, aurrerago egongo litzateke. Eta, ezin alde bate-ria utzi Yerai Varelak egindako

proba: promes mailan txapeldunordea izan zen, eta sailkapen orokorrean 11. helmugaratu zen. Adi lasterkari horrekin, datorren astean -martxoak 8-Kluben Arteko Espainiako Txapelketan lehiatuko delako, Reala ordezkatzen.

BETERANOAK ETA SENIORRAK

Beteranoetara itzulia, aipatu Javier Menta-ka bigarren izan zela, eta Cesar Diez hirugarren. Eta, seniorretan 34.a izan zen Asier Urdanpilleta, Tasio Gomez 44.a, David Huebra 47.a, eta Raul Montiel 103.a.

PILOTA > ANTZUOLAKO ELKARTEAREN URTEURRENA

Olalderen 30. urtemuga ospatzeko jaialdia bihar

Eskuz binakako partiduak ikusmin handia piztu du: Aitor Mendizabal-Elkor eta Muruamendaraz-Berraondo bikoteak izango dira aurrez aurre

EDU MENDIBIL > ANTZUOLA Olalde elkartearren pilota sailaren 30. urteurrena ospatzeko jaialdia izango da bihar, zapatua, Antzuolako pilotalekuaren, 18:30ean. Jaialdiak ikusmin handia piztu du Antzuolan eta apustuak badira tarteak. Aitor Mendizabal-Elkor eta Muruamendaraz-Berraondo bikoteak izango dira aurrez aurre. Erretiratu berri den Aitor Elkorri omenalditxo bat eskainiko diote. "Pilota lagata daukan arren, gurekin kolaboratzeko geru egon da Elkoro, eta eskertze-koada", diosku Olaldeko presidente Fernando Letek, Aurretik, Gipuzkoako Pala Txapelketan Olalde ordezkatu duten Zabal-Manso eta Zabalo-Iturbek neurutu dituzte indarrak.

OMENALDIA 10 LAGUNI Jaialdian zehar, Olaldeko pilotaren alde lanean jardun duten hamar lagun omenduko ditu



ELKORO Erretiratu berri den Elkorri omenalditxo egingo diote bihar. ARTXIBOA

bihar. Hain zuzen ere, Valentín Zabalo, Jose Luis Kortabarria, Félix Agirre, Angel Mari Idiakez, Bittor Arbulu, Iñaki Arbulu, Juan Simón Aristi, Juan Tomás Erostegi, Josu Zabalo eta Jose Mari Mendizabal izango dira omendutakoak.

Antzuolako Udalaren eta Olalde elkartearren oroigarriak jasoko dituzte.

Besteak beste, dantzariek eta trikitilariek hartuko dute parte jaialdian. Gabiriako Eusebio Igarzabal bertsolariak Olaldearen omenez idatzitako bertoak kantatuko ditu trikitilarit taldeak. Zapatuko jaialdirako sarreko doanekoa izango da eta Olalde elkartearak zozketa bat antolatutako du pilotalekuaren bildutako artean.



GOITB

MUko 220 ikasle inguruk kirol jardunaldi izan zuten atzo

Mondragon Unibertsitateko kirol zerbitzuak antolatuta, 220 ikaslek hartu zuten parte atzo jokatutako VIII. Fakultateen Arteko Txapelketan. Musakola, Antoña eta Uarkapen jokatu ziren kirol askotariko partiduak; areto futbola, tenisa, frontenis, zapinako futbola, gomazko pala, squash, saskibaloia, xakea eta pilota partiduak. Kirol bakoitzeko irabazleek parte hartuko dute hurrengo eguztenean, martxoaren 5ean, jokatuko den Euskadiko Txapelketan. Atzoko kirol jardunaldiaren ostean, partaideek bazkaria izan zuten Arrasateko campusean. Goiko argazkian, atzo goizean jokatutako futbol partiduko irudi bat.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Real-Xerez
Domeka. 17:00. Anoeta

Sevilla At-Eibar
Domeka. 12:00. C. Depor.

Kadeteen euskal liga
Aretxabaleta-Cult. Durango
Zapatua. 15:30. Ibarra

Preferente maila
Real Union B-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Gal

Aretxabaleta-Hernani
Domeka. 16:30. Ibarra

Touring-Mondra
Zapatua. 17:00. Fanderia

Lehen mailako infantilak
Ostdar-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Michelin

Infantil txikien kopa
Urola B-Aretxabaleta B
Zapatua. 10:00. Argiñao

Hondarribia B-Arrasate B
Zapatua. 11:30. Ondartza

Alebin maila, txapeldunen fasea

Aretxabaleta-Ordizia
Domeka. 10:00. Ibarra

Arrasate-Elgoibar
Domeka. 11:00. Mojategi

Alebin maila, kopa

Urko B-Bergara
Domeka. 10:30. Unbe

Bigarren erregion. Igoera

Sanpedrotarra-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Trintxerpe

Landera-BTLS
Domeka. 15:30. Ugalde

Mondra B-D. Eguzki B
Zapatua. 15:30. Mojategi

Bigarren erregion. Kopa

Ikasberri-Elgeta
Zapatua. 17:00. Garmendipe

Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jaitsiera

Aloña Mendi-Orioko
Zapatua. 15:30. Azkoagain

Beti Gazte-Mondra
Zapatua. 16:00. Mastegi

Lehen mailako gazteak

Aretxaba. B Arizm.-Idiazabal
Zapatua. 17:30. Ibarra

Bergara B-Ikasberri
Zapatua. 18:15. Ipintza

Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jaitsiera

Aloña Mendi-Orioko
Zapatua. 15:30. Azkoagain

Beti Gazte-Mondra
Zapatua. 16:00. Mastegi

Lehen mailako gazteak

Aretxaba. B Arizm.-Idiazabal
Zapatua. 17:30. Ibarra

Bergara B-Ikasberri
Zapatua. 18:15. Ipintza

Ohorezko mailako kadeteak, igorera fasea

Real Sociedad B-Aloña Mendi
Zapatua. 10:30. Zubietza

Bergara-Lengokoa
Domeka. 11:30. Ipintza

Lehen mailako kadeteak, igorera fasea

Amaikak Bat-Arrasate
Zapatua. 16:30. Errortazar

Intxaurrondo-Aretxabaleta B
Domeka. 15:30. Matigoxotegi

Lehen mailako kadeteak, igorera fasea

Amaikak Bat-Arrasate
Zapatua. 16:30. Errortazar

Intxaurrondo-Aretxabaleta B
Domeka. 15:30. Matigoxotegi

Kadeteak, kopa

Ikasberri-Bergara B
Zapatua. 13:15. Garmendipe

Soraluze-Arizmendi
Zapatua. 11:00. Ezozia

Kadete Txiki. Kopa

Arrasate-Internacional B
Zapatua. 12:00. Mojategi.

Zapatua. 18:00. Iturriape

Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak
STL Bilintx-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Intxaurtxueta

Junior maila, gizonzkoak
BKL Caf-Bretaña Gar.Bergara
Zapatua. 12:15. Antzitzar

Easo A-MU
Domeka. 12:00. Bidebieta
Cafes Aiton A-B-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Benta Berri Pol.

Junior maila, emakumezkoak
CD Internacional A-Eskoriatza
Zapatua. 12:15. Mons.Pol
Carnicas San Marcial-Bergara
Zapatua. 16:00. Ondartza

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa
Bergara-Romo
Zapatua. 17:00. Labegaraieta

Ford Mugarrir Assasate-Gure Jorge Fernandez
Zapatua. 19:45. Musakola

Euskadiko emakumezkoen Txap.
Verkol Aloña Mendi-B. Zuazo
Zapatua. 16:30. Zubikoa

Euskadiko emakumezkoen Txap., gazte maila
Escuela Aiala-Verkol Aloña Mendi
Domeka. 11:00. Zarautz

Lehen maila territoriala
Arrasate-Eibarko Haritza
Zapatua. 18:15. Musakola

Bigarren maila territoriala
Usurbil-Bergara
Domeka. 11:00. Oiardo

Aloña Mendi-Amenabar
Zapatua. 16:00. Zubikoa

Gazte maila, gizonzkoak
La Bacaladera-Assasate
Domeka. 10:00. Ondartza
Aloña Mendi-Rotula Studio
Zapatua. 17:30. Zubikoa

Bergara-Pulpo
Domeka. 12:30. Labegaraieta

Gazte maila, emakumezkoak
Arrate Amaña-Citroen Chapime
Zapatua. 16:30. Ipurua

Citroen Chapime-Ereintza
Domeka. 10:00. Iturriape

Kadeteak, emakumezkoak
Escuela Aiala-Verkol Aloña Mendi
Domeka. 09:30. Zarautz
Bergara-Pulpo
Zapatua. 12:15. Labegaraieta

Lehenengo maila

Zurt Taberna-Aloña Mendi

Zapatua. 17:30. Azkotia

Hirugarren maila

Power Rangers-UDA Izotz

Zapatua. 19:00. Elorsoro

SASKIBALOIA

Gipuzkoako seniorrak

Easo At.-Candy Bergara-Zapatua. 18:00. Altza

Aloña Mendi-Donosti Dolphins

Zapatua. 17:45. Zubikoa

Mondragon Unibertsitatea-Aldapeta Nucleo

GOITB



Bergara eta Ford Mugarrir, etxearen

Bergarak Romo hartuko du eta Ford Mugarrir Gure Jorge Fernandez aurka neurituko ditu indarrak. Zapatuan jokatuko dute biek.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> FADOAK

Ventos de Saudade taldea bihar Elgetako Espaloian > **45**



> KOMUNIKALDIAK

Etorkizuneko komunikatzaleez jardungo dute Huhezin > **51**

> JAGOBA GAMARRA
Aretxabaletakoa da. Saskibaloi du gustuko; horrez gain, musika, zinea eta bidaiatzea ere bai. Laster Kroaziara egingo duen bidaia dabil prestatzen > **50**



Taun Taun Indian

AITZIBER ARANBURUZABALA > BERGARA

Bergarako Taun Taun txotxongilo taldea Indian izan da, urtarilaren 27tik otsailaren 3ra bitartean, New Delhiko Ishara International Puppet Festivalen parte hartzen. Astebeteko jaialdian, mundu osoko taldeak izan dira; horien artean, Euskal Herriko bi: Bergarako Taun Taun eta Gasteizko Teatro Paraiso.

Jaialdiko parte-hartzaile bakoitzak emanaldi bana egin zuen; Bergarakoek 2006an herrian aurkeztu zuten *Batuta* musikala erakutsi zuten. Ikuskizun horretan, mota askotariko txotxongilo eta teknikak erabiltzen dituzte: bi pertsonak manipulatzen duten tamaina naturalekoa eta *argi beltzak* deitzen diotena.

ESPERIENTZIA ABERASGARRIA

Bergarrik bost lagun izan ziren Indiako espedizioan: Itsaso Azkarate, Karlos Odriozola eta Iñaki Mata aktoreak eta Aitor Etxebarria eta Santi Ezkurra teknikariak. Jaialdian parte hartzeaz gain, New Delhiko Parun txotxongilo egilearekin batera Indiako telesistarako erreportaje bat grabatu zuten.

Bizitakoarekin pozarren itzuli dira etxera, eta baita Indian egindako harreman berrieikin, laster berriz ere atzerrira joateko bidea zabaldutelako; urrian Grezia, Bulgaria eta Txiprerako asmoa dute. Maiatzeko Singapurrako gonbita ere jaso zuten. > **44**

Taun Taun Indian

(43. orrialdetik dator)

Otsailaren 29an bergararrek ikuskizuna amaitu zutenean, Indi telebistakoak hurbildu zitzazkien New Delhiko Parun txotxongilo artistarekin batera, erreportaje bat grabatzeko proposatuaz. Proposamena gustuko, hurrengo goizerako Parunen auzoan egin zuten hitzordua. New Delhiko Kathputli Colony auzo bitxian bizi da Parun. Artisten bizitokia den auzoa da: titiriterok, akrobatak eta horrelakoak bizi dira han.

Parun bera ere pertsonaia bitxia dela kontatu dute Taun Taunekoek: "55 urteko artista da, tradizio luzeko titiritero familia bateko kidea. Haren etxeen, haren familiarekin eta lan egiten duen tailerrean ere egon ginen. Erreportajeak txotxongilo kontuak elkarri nola erakussten dizkiogun jasotzen du. Oso interesgarria izan zen. Rajastango fokloreatan oinarritutako harizko txotxongiloezin egiten du lan". Erreportajeak ikusteko aukerarik ez dute izan, baina harreman polit baten jaiotza izan zen dudarik ez dago; horren froga da aurten izango den Bergarako Mostrara gonbidatu dutela Parun.

Taun Taun taldekoak Indian lehenengo aldiz izan diren arren, hamaika herrialdetan izan dira dagoeneko Indiara eraman duten *Butata* ikuskizunarekin: Brasi-



TAUN TAUN INDIAN Parun artistarekin Indi telebistarako grabatu zuten erreportajeko une bat.

TAUN TAUN

len, Argentinan, Venezuelan, Holandan, Italian... Urrian Greziara, Txiprera eta Bulgariara joateko asmoa dutela azaldu du Karlos Odriozolak.

MOSTRA MAIATZETIK URRIRA

Taun Taun taldeak 21 urte bete ditu aurten eta bi urtero antolatzen du Bergarako Mostra; aurten 9. edizioa izango da.

Aurtengo edizioak hainbat berritasun izango dituela azaldu du Itsaso Azkaratek, Taun Tauneko kideak: "Orain arte maiatzean egin izan dugun arren, aur-

ten urrian egingo dugu. Data aldatzeko hainbat arrazoi aztertu ditugu: batetik, maiatzean herrian ekitaldi eta ospakizun asko daudela: Mundumira jaialdia, herriko jaiak... Hori horrela, urrian einez gero, herriko eskaintza kulturala urtean zehar banatzea lortuko genuke; eta data aldatzeko beste arrazoi nagusia Udalak urrirako Zabalotegi aretoa zabaltzea aurreikusten due-la da. Polita litzateke Zabalotegi Mostrarrekin estreinatzea".

Aurtengo egitarauari dago-kionez, oraindik ezer zehatzik lotuta ez dutela azaldu du Azkaratek: "Gauza ezberdinak eskaini nahi ditugu, mundu osoko ordezkarriek ekarri nahi ditugu aurten ere herrira; horien artean, Indian ezagutu dugun Parun gonbidatu dugu eta hark etortze-ko gogoa erakutsi du. Datozen hilabeteotan, Sevillako, Segovia-ko eta Lleidako jaialdietara joango gara eta mostrarako *fitxajeak* egiteko asmoa dugu horietan".

BULEGOA, KONPONTZE LANETAN

Taun Taun taldeko kideen artean, egun berargarra bakarra den arren, taldearen egoitza Bergaran dago, epaitegiaren ondoan. Eguanean etxera itzuli eta hurrengo egunean, Bergarako epaitegian jarritako bonbareen eztandaren ondorioz, Taun Tauneko bulegoan apurketak izan dira: "Sabaian pitzadurak egin ziren eta ondorioz, jausi egin da. Egunotan, igeltsero lanetan ari gara", azaldu du Odriozolak.

BIRA > HEGO AMERIKARA JOANGO DA APIRILEAN

Iñaki Matak 'Barreras' ikuskizunarekin bira egingo du apirilean

Apirlaren 3an Tenerifen abiatuko duen bira Mexikon amaituko du apirlaren 17an

'Barreras' ikuskizunak gurpildun aulkian dagoen gizonezkoaren egunerokotasuna erakusten du

A.A. > BERGARA

Iñaki Mata antzuolarra Taun Taun taldeko sortzaile eta kidea da. Taldearen ikuskizunetan parte hartzeaz gain, bakarkako ikuskizunak ere egiten ditu. Apirlaren 3an Tenerifera abiatuko da, eta gero Costa Rica, El Salvadorra eta Mexikora; *Barreras* ikuskizuna egiteaz gainera, txotxongiloak egiten irakasteko hainbat tailer emango ditu.

Gustura da Mata sortu zaison aukeragatik: "Bi managerrekin egiten dut lan: Estatuan batekin eta atzerrian beste batekin. Zor-tea dut, taldeak ez didalako proiektu pertsonalak aurrera eramateko trabarik jartzen".

'BARRERAS'

Egun, hiru ikuskizun eskaintzen ditu Matak: *La princesa y la flor*, *Txmina* eta *Barreras*. Hastearen biran, *Barreras* egingo du.

Gurpildun aulkian dagoen gizon baten azalean sartzen da. Panpina batek bultzatutako gurpildun aulkian, kalean dituen oztopoak -arkitektonikoak eta orokorrean gizartea jarritakoak- azaltzea du oinarri ikuskizunak. "Egune-

roko egoera arruntak antzezen ditut: komun baten bila edo eskailerak jaisten saiatzen naiz...", azaldu du Matak.

Eskartertu handia du antzuolarrak panpinagintzan. Taun-Taunen hastapenetatik horretan jardun du. Era guztietako hartzaleendako ikastaroak ematen ditu, txotxongiloak hurbiletik sentiaraztea du helburu.

Ofizialki iazko Gijongo jaialdian aurkeztu bazuen ere, aurrez Bilboko Guggenheim museo kan-



'BARRERAS' Iñaki Mata Lisboako Ezinduen azokan.

IÑAKI MATA



LANEAN Iñaki Mata etxean panpinak egiten.

IÑAKI MATA

Arianne Unamuno > Ventos de Saudade taldeko

"Oso berezia da fadoa, eta gu segituan liluratu gintuen"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Izen portugesa izan arren, Soraluzeako ditugu Ventos de Saudade taldeko kideak. Fadozale amorratuak dira eta bihar, zapatua, emanaldia egingo dute Elgetako Espainian antzokian, 22:30ean. Sarrean 6 eurotan daude salgai. Arianne Unamuno abeslariarekin egin dugu berba.

Nolatan Soraluzeko talde bat fadoak eskaintzen?

Soraluzen herriko musika jaialdi bat egiten da urtero, ekain aldera, Galipot kalean. Udaletxeren atzealdean dagoen kale estu horietako bat da eta bossa nova, Afrikako kantuak, tangoak, fadoak eta abar eskaini izan ditugu azken urteotan. Gure kasuan, fadoak erabat *engantxatu* gintuen eta 2005ean hasi ginen konertzua egiten. Hasiera baten hiru lagun ginen taldean eta 2007an Jon Basauri guitarra jolea gehitu zitzaien.

Eta zer dauka fadoak hain era-kargarria izateko?

Oso berezia da, sentimendu sakonak adierazten dituelako, oso espresiboa delako, poetikoa,

tristeza eta malenkoniatua, alaia ere bai zenbaitetan... Guri ikaragarri gustatzen zaigu eta Euskal Herrian ez dagoenez aukera handirik fadoak entzuteko, bada, taldea sortzea erabaki genuen. Orain dela urte batzuk ez genuen fadoa ezagutzen eta orain, berri, hor ari gara, ezagutzera emateko ahaleginetan...

Portugesek lotura berezia daukate saudadearekin...

Nostalgiarekin, herrimina-rekin lotzen da saudadea, baina beraiek "la presencia de la ausencia" dela esaten dute, ezaren iza-na nonbait.

Fadoak kantatzen sufriztea egokituko zaizue orduan...

(Barre) Ez, ezta gutxiago ere. Tokatu izan zaigu jendea hunkitzea gure emanaldietan, eta hori da gure helburua: saudade haise batzuk ekartzea. Jendeak eskertu egiten ditu. Eibarren bi emanaldi egin ditugu: *Eibar Kantu* jaialdian eta Coliseo antzokian, eta ordutik hona, handik eta hemendik deitzen digute... Donostiako Tabacaleran eta herri txikietan ere jo dugu, eta, egia esan,



Ezkerretik hasita, Jon Basauri, Ane Ugalde, Arianne Unamuno eta Domentx Uzin, Ventos de Saudade taldeko kideak.

ESPAÑA

"Espresiboa, poetikoa, malenkoniatua, alaia ere bai zenbaitetan... oso berezia da fadoa"

"Hamabi bat kantu joko ditugu Elgetan, fadista handi eta ezagunen bertsioak"

komunikabideetan oihartzuna izan dute gure emanaldiek. Uda bitartean baditugu hainbat emanaldi lotuta. Martxa onean goaz azkenaldian. Ea horrela jarraitzerik daukagun...

Zelako emanaldia egingo duzu Elgetan?

Hamabi bat kantu joko ditugu. Amalia Rodrigues, Mariza, Misia eta halako fadista handi eta ezagunen kantuen bertsioak dira

denak: *O silencio da guitarra, Lisboa antiga, Uma casa portuguesa, Maria Lisboa...*, eta beste hainbat. Ordu eta laurden inguru emanaldia izango da.

Portugesak xarma berezia dauka kanturako, ala?

Bai, nik ez dakit portugesez hitz egiten, baina egia da hizkuntza oso goxoa dela. Eta goxotasun hori fadoetan transmititzen da, zalantzarak ez.

ANTZERKIA > DOMEKAN ARRASATEN

'Sommer jaunaren istorioa' ekarriko digu Jose Ramon Soroizek Amaia antzokira

Patrick Süskind idazle ezagunaren lana euskaratu du Txalo taldeak; Jose Ramon Soroiz da antzezle bakarra

E.M. > ARRASATE

Hainbat urtez katalanez ikusgai izan den Patrick Süskinden lana euskaratu du Txalo taldeak: *Sommer jaunaren istorioa* antzeztuko du Jose Ramon Soroizek domekan, martxoaren 2an, Arrasateko Amaia antzokian. Emanaldia 19:30ean hasiko da.

Süskindek ospe handia lortu zuten El perfume eleberriagatik. Oraingo honetan haurtzaroko eta nerabezaroko pasarteak landu zituen.



SOROIZ 'Sommer jaunaren istorioa' antzezlaneko aktore bakarra. TXALO PRODUKZIOAK

Testua bizitzaren misterioetan zehar barneratzen den balada eder bat da. Jose Ramon Soroiz aktorea da antzezle bakarra; malenkoniaz eta umorez beteri-

ko kontakizun bat eskainiko du. Bere oroitzapenetan gizon misteriotsu baten irudia agertzen da behin eta berriz... Testuaren itzulpena Lourdes Oñederrarena da.

BERTSOLARITZA > OÑATI

Bihar hasiko da Oñatiko Bertsolari Txapelketa

Datozen hiru zapatuetan izango dira saioak eta finala, martxoaren 29an

E.M. > OÑATI

Bertsolak 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldiaren barruan, Oñatiko V. Bertsolari Txapelketa jarriko dute abian bihar, zapatua. Urte osorako zehar taldean aritzen diren lagunak, elkarren aurka kantari izango dira bihartik.

Hamabost bertsolariko taldea lehiatuko da aurtengo bertsolari txapelketan. Bihartik hasita, hiru kanporaketa jokatuko dira finalistak aukeratzeko. Kanporaketa bakoitzetik, bi bertsolari sailkatuko dira zuñean finalerako. Ez da lehia makala izango.

HAMABOST LAGUN LEHIAN

Bihar, zapatua, Urko Egaña, Joseba Lasagabaster, Egoitz Aizpuru, Ander Lizarralde, Andoni Goitia eta Josu Igartua jardungo dute bertsotan. Bestalde, hurrengo zapatuan, martxoaren 8an, Joseba Igartua, Xabier Pascual, Julen Romaratezabala, Mikel Kortabarria, Gorka Larrea eta Iñaki Olaldearen txanda izango da.

Azkenik, martxoaren 15ean, Arantzazu Sagarzazu, Egoitz Atxaga, Endika Ruiz, Iñaki Igartua eta Beñat Alberdi egingo dute saioa. Esan bezala, sei onenak sailkatuko dira martxoaren 29ko finalerako.

INMOBILIARIA
ibargarai 3 • BERGARA
Tel./Fax: 943 76 97 97
www.inmokorost.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Aranerreka 75 m². Eguzkitua.
- Elusu baserria. Berrieta.
- Bidekuntzeta 60 m². Berrieta.
- Ibarraei 74 m². Ondo.
- San Juan. Bifamiliala.
- Zubiaurre 70 m². Berrieta.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 60 m². Berrieta.
- Barrenkale 82 m². Berrieta.
- Lokala 86 m². Erdialdean.

Antzuola:

- Buztunzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.
- Antiguia 80 m². Eguzkitua.

Eskoriatza:

- Baserria. Berrieta.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Teleforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Matxiategi, 61 m², oso ondo
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin
- San Pedro, 88 m², ondo
- Ibarraei, 80 m², oso ondo
- Artekale, 70 m², oso ondo
- Koldo Elizalde, 87 m², oso ondo
- Mugertza, 60 m², berria, aukera ona
- Zubieta 70 m², ondo
- Urdangarin p., 132 m², berritzeko
- Irizar p., 89 m², oso ondo
- Matxiategi, 73 m², berritzeko
- Bidekuntzeta, duplexa, berritzeta
- Aranerreka, 80 m², oso ondo
- Etxebizitza berrien erakuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81 m², oso ondo

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdaldean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Aretxabaleta. Belorrietan. 110 m². Sukaldea, hiru logela, egongela handia, bi komun eta bi balkoi. Garajearekin. Igogailua. Toki lasia. Erdjantzia. 605 75 14 34 edo 649 47 90 75.

Arrasate. 117 metro koadroko etxebizitza salgai Zerrajeran. Lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Garaje eta guzti. 650 10 02 10 edo 943 79 96 63.

Arrasate. Maalaik Errabalean 72 metro koadroko etxebizitza eta 30 metro koadroko lokal komertziala salgai. 628 35 21 61.

Arrasate. Udalpe kalean etxebizitza salgai. Guzti jantzia. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi zabalda dauka eta dena kanpoaldera begira. Gaseikoz berokuntza indibiduala. 685 72 81 32.

Arrasate. Zerrajera kalean 80 metro koadroko etxe salgai. Bi logela eta bi komun. Dena kanpoaldea begira. 656 77 94 32.

Bergara. Erdialdean etxebizitza salgai: bilogela, sukaldea, komuna, sala eta despentsa; trasteleku eta garajea. 626 13 45 94.

Bergara. Erdialdean, Simon Arrieta plazan, 57 m². Bi logela, trasteleku eta igogailua. 649 63 11 74.

Bergara. Zabalotegi etxe salgai. Hiru gela, egongela, sukaldea eta bainugela. 665 75 52 11.

Bergara. Zubiaurren guztiz berritutako etxebizitza salgai. Bergailua eta ganbarekin. 619 41 39 72.

Durango. Tabiran, parkearen ondoan 90 metro koadroko etxebizitza salgai. 4 urte. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta balkoi bat. Oso eguzkitsua eta ia berria. 59,5 milioi pezeta. Aukeran garaje, trasteleku eta ganbara. 616 09 46 79.

Etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Igogailua dauka, hiru gela, sukaldea, komuna eta ganbara. Aukera onean: 137.032 euro. 645 71 76 25 edo 946 81 21 97.

Eskoriatza. Etxebizitza salgai San Pedro kalean, 73 m². Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea eta balkoi. Guzti berritua eta eguzkitsua. 615 70 99 18.

Nafarroa. Urederra inguruan etxea salgai. Bi solairua ditu (123 metro koadro). Gutiz berritua. 943 76 00 03.

Oñati. 63 m²-ko apartamentua salgai Arantzazuko Ama kalean. Etxabea (baxua). Sukalde-egongela, bi logela eta komuna. Sukaldea guztia jarrita, kalefazioa, alarma, eta abar. Dena berria, estreinatzeko. 669 73 18 23 edo 657 77 91 74.

Oñati. 70 m²-ko etxebizitza berria salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea ederra, komuna, egongela argitsua eta trasteleku argi-patioan. Altzari berriekin oso ongi jantzia. 270.500 euro. 652 70 12 49.

Oñati. 70 m²-ko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Berria, igogailua eta berriko guztiz jantzia. Leku onean kokatua. 617 05 86 27.

Oñati. Bidebarrieta kalean, Errementari plazan 100 m²-ko duplexa salgai. Guzti jantzia. Balkoi. Garaje handia. 665 71 48 30.

Oñati. Duplexa salgai erdialdean. 105 m². Lau logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 635 71 41 39.

Oñati. Etxebizitza salgai Arantzazu kalean. Berri-berria. Garajearekin. Prezio onean. 608 54 40.

Oñati. Etxebizitza salgai Olakua auzoan. Hiru logela, sukaldea, bainugela, egongela, trasteleku eta garaje itxi barne. Guzti erberriuta. 657 72 25 07 edo 665 72 87 89.

Oñati. Zubillaga auzoan. 79 m².

ANTZUOLAKO UDALA**Lan eskaintza publikoa****Kale garbitzaileen lan poltsa sortzeko deialdia.****Baldintzak:**

- 16 urte beteta izatea.
- Eskolaritate-egiaztaiza izatea.
- B-1 gidabaimena edukitzea.
- 1. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea izatea (hautaketa prozesuan egin ahal izango da euskara proba hizkuntza maila kreditatzeko).

Eskabideak aurkezteko epea:

2008ko martxoaren 3tik martxoaren 10era arte (biak barne).

Azterketa eguna: martxoaren 14an, goizeko 9etan, udaletxeen.

Oinarriak: udaletxeen jaso daitezke.

Antzuolan, 2008ko otsailaren 25ean



ANTZUOLAKO UDALA

ANTZUOLAKO UDALA**Lan eskaintza publikoa****Udal eraikinen garbitzaileen lan poltsa sortzeko deialdia.****Baldintzak:**

- 16 urte beteta izatea.
- Eskolaritate-egiaztaiza izatea.
- 1. hizkuntza eskakizuna eta bere kasuan
- 2. hizkuntza eskakizuna edo titulu baliokidea izatea (hautaketa prozesuan egin ahal izango da euskara proba hizkuntza maila kreditatzeko).

Eskabideak aurkezteko epea:

2008ko martxoaren 3tik martxoaren 10era arte (biak barne).

Azterketa eguna: apirilaren 1ean, goizeko 9etan, udaletxeen.

Oinarriak: udaletxeen jaso daitezke.

Antzuolan, 2008ko otsailaren 25ean



ANTZUOLAKO UDALA

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05

sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.
PREZIO BEREZIA: EGUBAKOTZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERRO, 30 EURO.

Goiiena

Komunikazio Zerbitzuak

LAN ESKAITZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak behar du:

KAZETARIA

Baldintzak:

- Euskaraz jakitea.
- Idazten trebea izatea.

Balaratuko da:

- Kazetari edo antzeko titulua izatea.
- Hedabideetan edo komunikazio enpresaten esperientzia izatea.
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Atzerritako hizkuntzak jakitea.
- Kamera aurrean aritzeko dohainak edukitzea.

Bidali curriculuma helbide honetara:

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2.
20500 ARRASATE
idazkaritza@goiiena.com

Curriculuma aurkezteko azken eguna:
2008ko martxoaren 4a.

Goiiena

Komunikazio Zerbitzuak

8/ DENETARIK**801. SALDU**

Altus markako mendiko umeen motxila gorria salgai. Egoera onean. 665 73 65 95.

Dynastar markako Look eskiatzezko fijazioak salgai. Oso egoera onean. 100 euro. Astegunean deitu 22:15etik aurrera. Telefonoa: 667 94 52 12.

Logela. Gazte batzentezko logela salgai. Armairua, 90cm-kobi oine. Bata bestearean azpijan, idazmahaia, apalak eta arkoia. Egoera onean. 300 euro. 656 73 80 92.

Olympus E-410 argazki-kamera digitala saltzen dut. ED 14-42mm eta 40-150 mm-k objektiboekin. Erabilgabe dago. 650 euro. 660 80 09 71.

Orbea Arribizketa. 2005ekoan. Euskaltel-Euskadi taldearen erreplika. Dura-Ace osagariak. 1.700 euro. 656 76 89 44.

Pefiscola. Bungalowa salgai. Hondartzatik 100 metroa. Logela, sukaldea, jangela, bainugela, terraza handia eta lorategia ditu. Kirolgunea txirristekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

Pultsometroa salgai. S410 modeloa, CD-ROMabarne. Merkea eta egoera onean. Telefonoa: 685 76 44 77.

7/ ANIMALIAK**701. SALDU**

Txakurkume bi salgai. Emeak, zuri-beltzak. Lau hilabete dituzte. Txertoa jarrita. 200 euro bakoitzat. Deitu telefono honekara: 659 77 97 04.

806. GALDU

Betarekoak. Arrasaten, erdialdea eta ospitalea artean graduatutako betarekoak galdu ditut. Ixtura zaharra dute: beltzak dira eta borobilak. 678 30 42 02.

Oñati. Otsailaren 9an, domekan, txaketa bat galdu nuen, urdin iluna, Benetton etxeakoa, 4 urteko mutikarena. Errementeri plazan. Arikita baduzu, udaltzainei eman edo Maibi denda ditzan, mesedez, 646 95 80 62 edo 943 78 14 80.

807. AURKITU

Belarritako otsailaren 26an Bergarako osasun zentro eta taxi geltokiaren artean belarritako bat aurkitu nuen. Emakumezkoena da eta bola txuri batekin. 943 76 46 90.

Forro polarra aurkitu nuen otsailaren 9an. EHSF markakoa da, umearia. BAZEN atzi zuen. Deitu bertara. 943 25 20 00.

LAN POLTSAK AZTERKETA EGUNAK

GIZARTE LANGILEAK: martxoak 5, goizeko 10etan

LIBURUZAINAK: martxoak 6, goizeko 10etan

LIBURUZAIN LAGUNTZAILEAK: martxoak 4, goizeko 10etan

KULTURA LAGUNTZAILE



Borja Calvo lasartearra eta **Arantzazu Ugalde** arrasatearra martxoaren 1ean ezkonduko dira Lasarteko udaletxean. Bazkaria Hondarribian, Arroka Berri jatetxean egingo dute eta eztei-bidaian Alemaniara joango dira. Koadrilakoen partetik, zorionak!



Mikel Irizar eta **Mirari Azkune** oñatiarrak martxoaren 1ean ezkonduko dira Oñatiako udaltxean. Eztei-bidaian Zeelanda Berri joango dira. Etxeko partetik, zorionak eta ondo pasa, bikote!



Jesus Martin eta **Amaia Etxeberriarteun** bergararrak martxoaren 1ean ezkonduko dira Labegaraietako elizan. Bazkaria Oñatiako Etxe-Aundi jatetxean egingo dute eta bidaian Thailandiara joango dira. Zorionak, familiako partetik.

hildakoak

- **Raimundo Oianguren Idigoras.** Aretxabaletan, otsailaren 18an. 52 urte.
- **Jose Iza Otadui.** Arrasaten, otsailaren 19an. 71 urte.
- **Jesus Maria Bernabe Etxebarria.** Arrasaten, otsailaren 20an. 83 urte.
- **Marcelina Escribano Dominguez.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 94 urte.
- **Gregorio Azkarraga-Urizar Zaraoa.** Bergaran, otsailaren 21ean. 76 urte.
- **Felix Amozarrain Abarrategi.** Arrasaten, otsailaren 23an. 69 urte.
- **Roque Martinez Peña.** Bergaran, otsailaren 23an. 80 urte.
- **Hipolito Astigarraga Azkarreta.** Oñatin, otsailaren 24an. 96 urte.

ESKER ONA

Roque Martinez Peña

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 25an, 80 urte zituela.

Josu, Maria, Jaione, Iñaki, Arrate eta Margarita Iñurrategi: eskerrik eman nahi dizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkutuenoi.



Bergaran, 2008ko otsailaren 29an

ESKER ONA

Gregorio Azkarraga-Urizar Sarraoa

Arrasaten hil zen 2008ko otsailaren 21ean, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkutuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Angiozarren, 2008ko otsailaren 29an.

URTEURRENA

Matilde Juldain Lazpiur

2007ko martxoaren 5ean hil zen, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza martxetenan, martxoaren 5ean, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

8. URTEURRENA

Oier Carballares Badiola

Maite zaitugu.



Zure familia.
Eskoriatzan, 2008ko otsailaren 29an.

URTEURRENA

Juan Garro Abarrategi

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 2an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguzaten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 71 25 11. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Antzuola:

Itzarr liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN,

bietan, argitaratz geru, **120 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle.



Babeslea:

OROLORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amillaga auzoa 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 - Fax.: 943 76 94 76
maribi@orolore.com



Bidaia ezin hobea



OROLORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

bila-bila 7



sudokua

8								
7		3	9			1		
	6					3		
1	9	7						
4		1	5		9			
		3	8		2			
5			3					
6		9	4			7		
2						8		

hitz gezidunak

	Ipar	▼	Egurats	▼	Banan bana	▼
	Meza emailea	►	Arratiako	▼	Mehatxuak	
Mesedezi!	Mesedezi!	►				
	Eako	►				
Iharra	Iharra	▼	* Irudiko hiriburua			
	Katilu txikia	►	Katu ar			
Atletismo proba	Atletismo proba	►			Nor atzizkia	►
	Gipuzkoan, dut	►			(Zah.) Zakur	
Kanpo, at			Italiako diru zaharra	►		
	Zorroa	►	Inuit, boka-lilk gabe		Errepikatuz, gorotza	►
					Bokala	▼
					Iodoa	►
					Otx!	

hieroglifo a

Ez oso lagunak.



hizki salda

Euskal Herriko 5 mendate.

U	R	D	U	Ñ	A	I	D	R
U	A	N	I	A	Z	T	R	E
B	R	R	I	G	P	Z	Z	R
A	E	A	A	T	I	O	B	A
D	U	L	E	G	R	R	R	Z
A	N	K	A	A	O	E	I	A
T	O	G	E	T	Z	A	E	R
X	S	M	T	O	E	O	R	A
O	P	A	K	U	A	T	A	B

bono fotoa



Argazkian ageri den baseria Arrasateko Musakola auzoan dago.
Nola du izena?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta


soluzioak

O	P	A	K	U	A	T	A	B
X	S	M	T	O	E	O	R	A
T	O	G	E	I	A	E	I	A
A	N	K	A	O	B	R	R	Z
D	U	L	E	T	R	Z	Z	R
A	P	A	I	Z	A	B	B	
K	I	K	A	R	A	A	K	
Z	E	R	R	O	M	N		
M	A	R	A	T	O	I	A	
D	E	T	L	I	R	A		
L	A	N	D	A	K			
K	A	R	T	E	R			

Jergolifikoak: Etsaiak.

2	7	4	3	5	1	9	6	8
6	3	8	9	4	2	1	5	7
9	5	1	8	6	7	3	2	4
5	6	7	4	9	3	8	1	2
3	4	2	1	8	5	7	9	6
1	8	9	7	2	6	5	4	3
4	1	6	5	7	8	2	3	9
7	2	5	6	3	9	4	8	1
8	9	3	2	1	4	6	7	5

K	A	R	T	E	R	A	I	I
L	A	N	D	A	K			
D	E	T	L	I	R	A		
M	A	R	A	T	O	I	A	
K	I	K	A	R	A	A	K	
Z	E	R	R	O	M	N		
A	P	A	I	Z	A	B	B	
I	I	G	B					



Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela

zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOAK

Ekarri txartela MARTITZEN EGUDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Filipinos galletak

150 g-ko paketea

1,19 €

Hiru eramanda, hirugarrena doan.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako Luis Ma Egañaren dako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Jauregi etxeak.

BAKEA OIHUKATU!



eusko
alkartasuna

herriarenahotsa



euskoalkartasuna.org

Jagoba Gamarra > Banku zuzendaria

"Saskibaloiaiak ez dit ematen bankuko lanak besteko buruko minik"

Jagoba Gamarra aretxabaleta-rra ezaguna da gure artean, saskibaloit kontuak direla eta.

Baina gutxik jakingo dute saskibaloiaz aparte badituela bestea zaletasun batzuk Gamarra:

zinema eta musika, esaterako. Eta ahal duenean bidaia-tu ere egiten du. Dagoeneko

badabil prestatzen abuztuan Kroazia aldera egiteko asmoa duen bidaia.

JASONE ZABALA > ARETXABAleta

Jagoba Gamarra (Aretxabaleta, 1977) Gasteizen jaio zen, baina txikitik Aretxabaletara eterri zen bizi-zera. Saskibaloizale amorratua, Arrasateko taldean jokatzen du. Ogibidez, BBVA bankuko Azpeitiko bulegoko zuzendaria da.

Aita gasteiztarra, saskibalojokalaria eta entrenatzailea, zu Gasteizen jaioa... Zaila saskibaloia ez den beste ezer gustatzea, ezta?

Ni Gasteizen jaio izateak eta lehen bi urteak han bizi zeak baino eragin askoz handiagoa eduki du nire aitari saskibaloia hainbeste gustatzeak. Oso txikitatik bizi izan dut hori etxeen; oraindik umea nintzela Mendi-zorrotzara joaten ziren gurasoak lagunekin Baskonia ikustera... Azkenean, amak ere ez du beste erremediorik eduki eta gustura ikusten ditu hark ere saskibaloit partiduak.

Lehen entrenatzailea, 9 urte zenituelan, aita izan zenuen.

Bai, hura izan zen nire lehenengo entrenatzailea Almen ikastolan, eta izan dudan garrantzi-tsuna, gainera; federatu moduan jokatzen hasi baino askoz lehenago hasi nintzen baloiarekin aurrera eta atzera harekin. Nirekin beste jokalariekin baino askoz gogorragoa zela esango nuke, baina, azkenean, horrek asko balio izan dit.

Alebin mailan, gainera, Euskadiko selekzioarekin Espainiako txapelduna izan zinen. Nolakoa izan zen esperientzia?

Zenbat urte pasa diren kontratzean gezurra ematen du... Hasiera batean esan zidatenean aukeratuta nengoela, ez pentsa hain ongi pasa nuenik; Aretxabaletatik kanpora hainbeste egun pasatzeak ez zidan grazia handirik egiten. Astebete pasa genuen Bilbon entrenatzen eta gero txapelketa Valladoliden jokatu genuen. Hasierako duden ondoen, dena oso ondo joan zen, txapeldun gelditzeaz aparte lagun onak egin genituen, esperientzia ahaztezina izan zen.

Hala eta guztiz ere, Zuzenbide Ekonomikoa ikasi zenuen Deustuan. Nolakoa izan zen ikasle garaia Bilbo aldean?
Argi neukan saskibaloitik bizitza oso zaila izango zela eta beti zaindu nituen ikasketak. Unibertsitatera joatean, gauzak zeharo ezberdinak ziren. Egunero egi-



ten nuen Deusturaino joan-etorreria, eta gogorra izan zen garai hura, orduan taldeak EBA mailan jokatzen zuen-eta. Lehen bi urteak izan ziren gogorrenak: gutxi jokatu, lo gutxi egin, ikasteko astirik, edo gogorik, ez... Edozelan ere, atera nituen ikasketak aurrera.

Labidez Azpeitiko BBVAren bulegoko zuzendaria zara. Zer da gogorragoa, eguneroko bankuko kontuen gorabeherak eramatea ala entrenatu eta jokatzea?

Horretan ez daukat inongo dudarik; saskibaloia eguneroko estresa kentzeko tratamendu oneña da niretzat. Egia da, ordea, batzueta gogorra egiten dela lanetik irten eta entrenatzera joan behar izatea, eta, agian, gero eta sarriagotan gertatzen zait hori. Hala ere, saskibaloiaiak bankuko lanak besteko buruko mina emango balit, aspaldi utzita edukiko nuen.

Saskibaloiaiak gain zure zaletasunen artean musika eta zinema ere badaude.

Lehen, askoz gehiago joaten nintzen zinemara, negu partean ia domekero, eta, denboratxo bat pasa ostean, poliki-poliki hasi naiz berriaz martxa hartzen. Ikusi dudan azkena *American gangster* izan da, Denzel Washington-en. Horretaz gain, musikazalea izan naiz beti; nahiko heavyak ginen gure lagun artean, baina badirudi urteak asko leundi gaituera. Hala ere, benetan gustura ikusiko nuke Metallica edo Iron Maidenen kontzertu bat, abesti zaharrak jotzen, noski.

Horrekin guzti horrekin orain-dik ere baduzu denbora bidaia-ren bat prestatzeko. Nora joango zara laster?

Aste Santuan, agian, azken orduko bidaia txikiren bat egindo dut, lauzpabost egun, ez oso urrutti; abuzturako, ordea, aspalditik nahi nuen bidaia bat presatzea espero dut Kroazia ingurura. Seguruenik, autoa hartu eta Frantzia hegoaldea de Italia ikusiaz bertaraino joango gara.

Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Ile gutxiagorekin eta kana gehiagorekin, seguruenik! Horretan ez dut askorik pentsatzen, egia esan. Suposatzen dut nahiko bizitza normala edukiko dudala eta antzerako lan batekin.

PERTSONALA

Herria: Aretxabaleta. **Adina:** 30 urte. **Ikasketak:** Zuzenbide Ekonomikoa, Deustuan. **Irakurri duzun azken liburua?** *Ángeles y demonios*. **Biziorik baduzu?** Egubakoitz gaueko patata *brabak* sagardoarekin. **Maniarik?** Edozeini galdetuz gero, beharbada pila

bat, nik neuk ez dakit zein esan. **Bidaiatzeko leku bat:** Itsasoa eta eguraldi ona daukan edozein. **Bizitzeko toki bat:** Euskal Herriko edozein leku. **Amets bat:** Aurten mailaz igotzea. **Gustuko hondartzza bat:** Zarautz. **Saskibaloiai jokalari bat:** Drazen Petrovic.



IKASLEAK Jardunaldiak Huhezik antolatu ditu. Argazkian Huheziko ikasleak GOITBn praktiketan.

XABIER URTZELAI

UNIBERTSITATEA > KOMUNIKALDIAK 08

Jardunaldien ardatza izango dira etorkizuneko komunikatzaileak

Enplegatzaileek Huhezin azalduko diete gaur egungo komunikatzaileei zein ezaugarri eskatzen dizkieten eta nola dagoen lan merkatua komunikazio esparruan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean aurten kalera-tuko da Ikus-entzunezko Komunikazio ikasketak amaituko dituen lehen promozioa. Hori dela-eta, *Etorkizuneko komunikatzaileak* izango da aztergaia martxoaren 5ean egindo dituzten Komunikaldiak jardunaldieta.

Horrela, fakultateak erakutsi nahi die komunikatzaile berriei nola dagoen lan merkatua komunikazioaren esparruan. Enplegatzaileak izango dira Huhezin, eta azalduko dute, besteak beste, zein ezaugarri eskatzen dizkieten gaur egungo komunikatzaileei.

MAHAI-INGURUAK ETA HITZALDIAK Mahai-inguruarekin hasiko dituzte jardunaldiak. *Hedabide tradizionalak XXI. mendean* izenburu-pean jardungo dute Martxelo Otamendi Berria-ko zuzendariak, Aritz Agirre Euskadi Irratiko albistegietako zuzendariak eta Joseba Iriondo kazetari eta komunikazio gaietako *freelance*-ak.

Bi hitzaldi izango dira gero: Luis Fernandez CodeSyntax-eko langileak *Interneteko komunikatzaile profesionala* hitzaldia egingo du. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako komunika-

zio zuzendari Izaskun Ellakuria-gak, berriz, *Durangoko Azokan ikusten ez dena* hitzaldia.

Fikzioaren egoera ikus-entzunezkoetan mahai-inguruuan jardungo dute gero Asier Altuna zinema teknikari gidoilari eta zuzendariak, Itxaso Atutxa 3Koma produkzio-etxeko zuzendariordeak, Arri Granados K2000ko Eduki Departamentuko zuzendari eta *iPásalo!* saioko zuzendari eta ekoizle exekutiboak eta Itziar Mena EIKEN Ikus-entzunezko Klusterreko zuzendariak.

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA Martxoaren 3a izango da Komunikaldiatarako izena emateko azken eguna. Matrikula 25 euro izango da eta ikasleek eta langabeek doan izango dute. Horretarako, ordainagiria eta mezua bidali behar da helbide honetara: sarrera@huhezi.edu.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/berogi
/bastida
/briz-
aseguruak
/BZ-sistemas
/bolosukaldeak
/denetik

/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/ezuzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/goizargi

/gorkatxi
/gorla
/gurea
/gutzizeder
/hamakataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jrcacing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabala
/kizkur

/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/ohiak
/ogizun
/optico
/otzeta
/pando
/perifpar
/puerta-ingles
/richimaior
/tabernaberri
/udalatz

/udalaitz
/urdeki
/ugarterotza
/urbjeta
/urko
/vitoria
/zaindusz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejateke.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.liliura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.blark.net



berriak

> ERREPORTAJEA
Artzaintza tradizionala eta modernoa ezagutuz

Datorren astelehenerako Julen Iriondok prestatutako erreportajeak lehengo eta egungo artzaintzaren gaine-ko azalpenak emango ditu. Hau da, artzaintza tradiciona- laren eta modernoaren arteko konparazioa egindo du. Artzaintza tradizionalaren eredu Idiazabal herria hartu du Iriondok eta artzaintza modernoaren erakusle, berriz, Gomiztegiko artzain eskolan lan egiteko moduak, Oñatin.

> KANTARI
'Kantari' ikuskizuna bigarren bueltan da Goiena Telebistan

Joan den astean amaitu ziren *Kantari* ikuskizuneko saioak, eta datorren astean hasiko dira berriz ere ikuskizunak hasieratik eskaintzen. Beste behin, beraz, Debagoieneko herrietako ume eta gaztetxo-ak taula gainean ikusteko aukera egongo da.

Saioak, orain arte bezala, martinetan eta eguenetan eskainiko dira, GOITBko *Beriak* saioaren ostean, 20:15ean, hain justu ere.

> ARRASATE IRRATIA
Irratian lantzen direnak Interneten entzuteko aukera

Oraingo astean bloga estreinatu dute irratikoek. Hain zuen, *Goiena.net* webgunean sartuz gero, eskumako zutabeen aurki daiteke irratia-kin konektatzeko bidea. Egu- nez egun lantzen dituzten albiste, elkarrizketa eta bes- telakoak entzun ahal izango dira, norberak gura duenean, blog berri horretan. Eta entzu- leen iritzi, kexu, eskaera eta bestelako mezuak helarazteko bidea ere zabaldu dute.

> ARRASATE IRRATIA
Hauteskundeen zuzeneko jarraipena egingo dute irratian

Hauteskunde kanpainaren lehenengo astean egin duten moduan, bigarren astean ere politika kontuak zuzen-zuze- netik jarraituko dituzte Arrasate Irratian. Besteak beste, alderdi politiko guztie- takor dezkarien asmo eta mezuak helarazikoz dizkiete irratiko entzuleei.

Baina, jakina, guztia ez da izango politika. Eta, adi- bidez, Zuhaitz Eguna eta sexologia kontuak ere landu- ko dituzte.

'GU TA GUTARRAK' > EGUAZTENA, 22:15

'Gu ta Gutarrak' bertso ikuskizuna, eguaztenean

Joan den astean
Oñatin egin zuten
'Gu ta Gutarrak'
ikuskizuna eskainiko
du Goiena Telebistak

GOIENKARIA > ARRASATE

Gu ta Gutarrak ikuskizunaz gozatzeko aukera eskainiko du Goiena Telebistak datorren eguaztenean. Oñatiko gazteleku- uan egin zuten *guitarrek* emanaldia joan den astean, eta saio hori izango da GOITBko eskainiko duena.

Oñatiko gazteleku- uan izan ziren Unai Iturriaga eta Igor Elortza eta *guitar* gonbidatua izan zen, nola ez, Ruper Ordorika. Kasu horretan, abestea gain, gitarraz ere lagundu zituen oholtza gainean zeudenak. Bertso eskolaren 25. urteurrenaren ospakizunetako bat izan zen.



'GU TA GUTARRAK' Oñatiko gazteleku- uan eskaini zuten emanaldian. GOIENKARIA

TASIO ERKIZIA, 'ILUNPEAN'-EN > EGUBAKOITZA, 22:15

'Ilunpean' saioak euskal herritar ezagunak ekartzen ditu GOITBko platora

GOIENKARIA > ARRASATE

"Zailena izaten da jendea lortu eta Arrasatera ekartzea", dio Iker Barandiaranek, *Ilunpean* saioako aurkezleak. Hala ere, lortzen du euskal herritar ezagunak Goiena Telebistara ekartzea. Horren adibide dira elkarriketatu dituen

Odile Kruzeta, Mari Carmen Gar- mendia, Xabier Silveira, Iñaxio Arregi, Miguel Madariaga, Anton Olariaga, Oihana Maritorena eta beste asko. Gonbidatuen ibilbide- aren errepasoak egiten du saioan, baina, horretaz gain, "saiatzen naiz pertsona horien alderdi eza-

gunak lantzeaz gain, beste alderdi ezezagunagoak ateratzen", dio Barandiaranek.

Gaurko *Ilunpean* saioan Tasio Erkizia izango du gongidatu Iker Barandiaranek. Lesakarra sortez, 10 urterekin egin zituen maletak Oñatiko Agustindarren seminariora joateko. Harrezkero lagun asko ditu han. Elizgizon iza- tea bere bokazioa ez zela ohartu zenean utzi zuen eliza mundua betiko. Hain zuzen, politikan eman dituen urteek egin dute Erkizia ezagun; izan ere, Herri Batasuneko mahai nazionaleko kide izan da urte askoan Erkizia.

telebegi

Edorta Arana > www.goiena.net/blogak/hamaika

Tipula salda

Ameriketako Estatu Batuetako hauteskundeetan parte hartzeko aukerarik ez edukitzearik kanpaina arrutitik ikusteko parada ematen du. Hautagaiak izan gizon ala emakume, zuri ala beltz, demokrata ala errepublikar, pelikula baten gidoian bezala ageri zaizkigu.

Mitinak, zerutik behera datozen puxika edota kolore- tako papertxoak, hizlarien keinuak, jendea txaloka eta "we can" famatuak eskaleta, atrezzo eta gidoiko lerroan idatzitakoak dirudite. Espektakuluaren izenean onargariak, baina bere horretan hutsalak.

Frantziako eta Espainiako hauteskundeen inguruan antolatutako lehia mediaticoak ere ikuspegia hotz beraz hartzen ari naiz, aurtengoan. Tipula efektua sumatzen dut han eta hemen: azaletik hasi eta barruko geruzak kendu, bata bestearen atzetik, eta mamirik ez duela.

Ikuspegia horretatik, kamera bati begira antolatutako ekitaldiak, argazki tarako irribarreak, etxearen jasotzen ditugun panfletoak, telebistako eztabaik, peajeko elkarriketak eta abarrek negarra eta asperdura bitarteko zerbaite eragiten didate, tipulekin bezala.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Tasio Erkizia, *Ilunpean* saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berri, eta sexologia kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoan
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko:
943 25 05 05 (irratia@goiena.com)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarraren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

GOITBko programazioa

Egubakoitzza, 29

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Animalia. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Hitz bitan. 18:45 Albisteak. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gertutik. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 1

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Klusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Gertutik 13:00 Eltze beroa 13:30 Erreportaje. 14:00 Berbaire. 14:30 Errepor- tipi ttapa. 15:00 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hitz bitan. 19:30 Klip @ 20:00 Ur eta lur. 20:30 Berbaire. 21:00 Euskal artzainak. 21:30 Erreportaje ttipi ttapa. 22:00 Erreportaje. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 2

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Berbaire. 13:00 Euskal artzainak. 13:30 Jazmina. 14:00 Animalia. 14:30 Eltze beroa. 15:00 Musikantoi. 15:30 Erre- portaje. 14:00 Ilunpean. 14:30 Errepor- tipi ttapa. 15:00 Ur eta lur. 15:30 Eltze beroa. 16:00 Ger- tutik. 16:30 Marrazki bizidunak. 19:00 Jazz gauak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erre- portaje ttipi ttapa. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Gertutik. 22:45 Erre- portaje. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 3

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje-Tti- pi TTapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilun- pean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:15 Ber- baire. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaur- koak. 17:47 Ikusmira. 18:15 Klusten. 18:45 Berriak. 19:15 Gertutik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportaje. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 4

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Gertutik. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klipa. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Ber- baire. 22:15 Animaliak. 22:45 Berriak. 23:15 Iku- smira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportaje. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 5

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze berioa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animaliak. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ger- tutik. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Klusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Euskal artzainak. 22:15 Gu ta gutarrak kon- tzertuan. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Eus- kal artzainak. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animaliak. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marraz- kiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Ber- baire. 22:15 Animaliak. 22:45 Berriak. 23:15 Iku- smira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriozt 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otarra Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

Bergara / Zurradero 10 / 943 76 94 55

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXEA MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri Etorbidea 7 / 943 53 39 90

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kirodegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

Bergara / Ibargarai 16 / 943 76 15 75

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA Nerea

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlek zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA

Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943

Otsailak 29-Martxoak 6

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzateneko egurdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Bertsolaritza



OÑATI

> V. Oñatiko Bertso Txapelketako lehen saioa egingo dute bihar, zapatua

Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta, txapelketa egingo dute, eta bihar izango da lehen kanporaketa, Pako tabernan, 18:00etan, Urko Egaña, Joseba Lasagabaster, Egoitz Aizpuru, Ander Lizarralde, Andoni Goitia eta Josu Igartuarekin.

Kontzertua



ELGETA

> Fadoak abestu eta joko ditu Plazentzia-k Ventos de Saudade taldeak

Arianne Unamunok ahotsean, Domènec Uzinek guitarra portugaldarraren, Jon Basaurik guitarra espanyarren eta Ane Ugalde flautarekin fadoak eskainiko dituzte bihar, zapatua, Espainian, 22:30ean.

Kontzertua



ARRASATE

> Motociclon rock taldeak diskoa aurkeztuko du gaur gauean 3.60 aretoan

Madrilgo Motociclon punk-rock taldeak *Himnos del extrarradio* diskoa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan. Discípulos de Dionisos eta Porco Bravo taldeek ere joko dute kontzertu horretan.

martxinetik egubakoitza: 09:00-14:00 eta 17:00-19:00; zapatuan, 17:00-20:00; eta domekan, 12:00-14:00 eta 17:00-20:00.

BERGARA

> Alfonso Romeraren margola-nak ikusteko aukera dago

Alfonso Romera Arrabal margolariaren lanak erakuskean daude San Antonioko Gure Ametsa elkartean martxoaren 2ra bitartean.

Avilakoa izatez, Bergaran bizi da aspalditik Alfonso Romera; Miguel Altunako irakaslea izan zen 1968tik, eta erretiratuta dago orain. Ricardo Azkargortaren margo ikasle izan zen 2003. urteaz geroztik.

Bisita ordutegia: 19:00-21:00.

BERGARA

> Kute Erdabideren margolanak daude Nahikari tabernan

Kute Erdabidek 14 lan ipini ditu erakusgai Nahikari tabernan. Akuarelak dira, eta Euskal Herriko txokoak hartu ditu gaitzat. Ricardo Azkargortarekin dihardu ikasten. Beart Bergarako arte elkartearrekin hainbat taldeko erakusketan parte hartu du, eta honakoa da bere lehenengo bakarkako erakusketa.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan dago erakusketa.

OÑATI

> Anfibioen eta narrastien gaineko argazki erakusketa

Ingorumen Astearen barruan, *Anfibioak eta narrastiak: aniztasuna eta kolorea* delako argazki erakusketa dago kultura etxeen. Aranzadi Zientzia Elkartea prestatako erakusketa da.

Etxira arte, 18:30etik 20:30era bitartean.

ELGETA

> Emili Cadiñanosen eskulanak ikusteko aukera egongo da

Emili Cadiñanosek eskulan erakusketa ipiniko du Espaloia kafe antzokian etzi, domeka.

Hil osoan egongo da erakusketa bisitatzeko aukera.

BERGARA

> Diego Osuna bergararraren erakusketa ikusteko aukera

Diego Osuna Hurtado margolari bergararrak erakusketa ipini ditu hainbat lan. Kultura etxeen dago beroiek ikusteko modua, astegunetan, 18:00-21:00, eta zapatuan, 12:00-14:00 ordutegian.

Martxoaren 8ra arte dago zabalik.

Ospakizunak

ARRASATE

> Biona tabernaren agurra dela-eta, hainbat ekitaldi izango dira

Biona tabernaren agur ekintzak antolatu dituzte: gaur,

Musika

ARRASATE

> '25 hits of Mondra' diskoaren azken aurkezpen kontzertua

Material Rechazado taldeak eta talde gonbidatu batek 25 *hits of Mondra* Arrasateko 25 taldek egindako diskoa aurkezten kontzertua egingo dute.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 23:00etan.

ARRASATE

> Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua egingo dute gaur

Hainbat musika-tresna joko dituzte, baina, batez ere, biolina.

Udaletxean, 18:30ean.

BERGARA

> Zazpi taldek punk-rock kontzertua egingo dute

Foxy Boxy, Ostikua potroan, Sospechosos, Golpe de Estado, Cold Revenge, No hay solución eta Junzai txetxera taldeek joko dute.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 18:00etan.

ESKORIATZA

> Yakuzi taldeak kontzertua egingo du Inkernun

Yakuzi taldeak Estatuko talde onenaren eta Pop-rock saileko talde onenaren sariak irabazi zituen 2006ko Bilbo Hiria lehiaketan. *Hot balneario* diskoko abestiak joko dituzte.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

OÑATI

> Ganbara Txiki taldeak eman-dia egingo du domekan

Oraingo hiru-hilabetean jorratutako piezak abestuko dituzte. Horrez gain, abesbatza bosgarren urteurreneko diskoa prestatzen dabil, eta horko abestiak kantatuko dituzte. Sarrerak salgai daude kultura etxeen.

Etzi, domeka, Santa Anan, 19:30ean.

Antzerkia

ARRASATE

> 'Sommer jaunaren istorioa' bakarriketaren antzezpena

Sommer jauna ez da antzezlanean agertzen; herriko guztiendako, misterio bat da. Jose Ramon Soroiz erantzun batzuk ematen saiatuko da Patrick Süskind idazlearen lanaren moldaketa horretan.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

ESKORIATZA

> Boni Ofogok Afrikako ipuinak kontatuko ditu gaur

Kamerundarra da Boni Ofogo; bere herrian, ahozko da informazio edo jakintza guztia jasotzeko era. Ahozkotuna du tresna nagusi bere lanean. Helduendako ipuinak kontatuko ditu, gaztelaniaz.

Gaur, unibertsitatean, 22:30ean.

ARRASATE

> Umeendako 'Teatrino dei piedi' edo oinen antzezlanza

Veronica Gonzálezek, beste edozeinek moduan, bi oin ditu. Baina bere oinak bereziak dira: absurdua eta poesia uztartzen dituzten istorioetan bizi diren pertsonaiak antzezten dituzte. Fantasiazko, erritmozko eta kolorezko eszenak antzezten dituzte oinok.

Ikuskizun hori 3 urtetik gorako umeei zuzenduta dago.

Eguenean, hilak 6, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan.

OÑATI

> 'Te acuerdas, abuela?' antzezlaneko sarrerak, salgai

Martxoaren 8an, 'Te acuerdas, abuela?' antzezlanera egingo dute Santa Ana antzokian, eta horretarako sarrerak salgai daude kultura etxeen.

Hauxe da ordutegia: goizez,

10:00-13:00 (bulegoan salduko dituzte), eta arratsaldez, 16:30-20:30 (harreran salduko dituzte).

10 euro kostatzen dira sarrerak.

Erakusketa

ARRASATE, ESKORIATZA

> 'Hondakinak: amesgaiztorik ez!' delako erakusketa dago

Mankomunitateak antolatuta, hondakinen, beroien kudeaketaren eta gaur egungo egoeraren inguruko erakusketeta dago. Helburua da jendeari hausnarketa eragitea, gaur egungo ohiturak eta egoera aldatzeko daukagun aukeraz ohartarazteko.

Kulturaren dago etzira, domeka, arte; martxoaren 3tik 17ra, Eskoriatzako Ibarraundi museoan egongo da.

Arrasaten, 17:30-20:30; Eskoriatzan,

PROPOSAMENA



ESKORIATZA

> Saharako Errepublikaren urteurren festa

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoak 32 urte ditu, eta hori ospatzeko Euskal Herri osorako festa egingo du Euskal Herriko Sahararen Lagunen Koordinadorak. Magia, Saharako tea, argazki erakusketa... egongo dira plazan, 11:00etan; 13:00etan, saharra-egoeraren gaineko hitzaldia; eta 14:30ean, bazzaria -txartelak salgai daude Azkoaga Enea Hotelean.

Bihar, zapatua, Eskoriatzako plazan; bazzaria, pilotalekuan.

BERGARA

> Diego Osuna bergararraren erakusketa ikusteko aukera

Diego Osuna Hurtado margolari bergararrak erakusketa ipini ditu hainbat lan. Kultura etxeen dago beroiek ikusteko modua, astegunetan, 18:00-21:00, eta zapatuan, 12:00-14:00 ordutegian.

Martxoaren 8ra arte dago zabalik.

Ospakizunak

ARRASATE

> Biona tabernaren agurra dela-eta, hainbat ekitaldi izango dira

Biona tabernaren agur ekintzak antolatu dituzte: gaur,

egubakoitza, 19:00etan hasita, pintxoak, txistorra...; bihar, zapatua, 17:00etan, kontzertuak: Arrasateko hainbat musikari The Clash taldearen bertsioak jotzen, Never Surrender...; eta, iluntzean, karaokea eta ezustea.

Ospakizunak, gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua.

ARRASATE

> Andaluzia Eguna ospatuko dute Al-Andalusen asteburuan

18. urtez, Andaluziaren Eguna ospatuko du Al-Andalus kultura elkartea. 13:00etan, kontzertua egongo da; bukaeran, mokadua. 16:30ean, umeendako ikuskizuna izango da; 19:00etan, Al-Andaluseko koru errozieroen eta Sueños de Andalucía dantza taldearen emanaldiak; eta 21:30ean, bazkide eta lagunendako afaria eta Los Tarantos taldearen emanaldiak.

Bihar, zapatua, Al-Andalusen egoitzan, Zigorrolan.

BERGARA

> Santu Martirien eguna ospatuko dute Osintxun

Santu Martirien egunean, 11:00etan hasita, Osintxuko talogileek jardungo dute goiz osoan; 12:00etan, Moises Azpiazuko, Arrasateko Lore Gazteetako eta Osintxuko Musirakako dantzariekin emanaldia egingo dute. Goiz osoan, trikitilariak ibiliko dira.

Etzi, domeka, izango dira ospakizunak.

Ikuskizunak

BERGARA

> 'Aire-airean' ikus-entzunezko, Broad Peak-en gainean

'Aire-airean' delako ikus-entzunezko emango du Jose Ramon Agirre Marron-ek, Broad Peak (8.047 m) mendieren ingurukoa. Claudia Bertorelli, Unai Elorriaga, Juanra Madariaga, Iñaki Zubeldia eta Garbiñe Tolosaren hitzak jasotzen ditu ikus-entzunezkoak.

Gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan.

Bestelakoak

ELGETA

> Ardo-dastatzea egongo da egunean Espaloian

Azpilikuetak ardo-dastatzera gidatuko du egunean, hilak 6, Espaloia antzokian.

Ardo-dastatzea 20:30ean hasiko da.

ARRASATE

> Iturripe elkartea 'Elias' ikustera joango da Bilboro

Urabe auzoko Iturripe elkartea irteera antolatu du martxoaren 7rako Bilboko Euskalduna Jauregian izango den kontzertura joateko. Bilboko Orkestra Sinfonikoak eta Iruñeko Orfeoiak Mendelssohn-en *Elias* lana aurkeztuko dute. Irteera 18:30ean izango da, Uribe eta, gero, Garibaiako geltokian.

Izena emateko: 620 55 99 79.



Pozos de ambición ***

Zuzendaria: Paul Thomas Anderson.
Aktoreak: Daniel Day Lewis, Paul Dano, Paul Sunday.
AEB: 2007.
158 min. 13 urtetik gorakoendako.

Pozos de ambición ez da film komertzialegia; izan ere, originaltasuna eta kontatzeko modu desberdin topaketa da bere helburua. Paul Thomas Andersonen *Magnolia* ikus-teko aukera izan duenak badaki zuzendariaren lanak sailkapen zailkoak direla: bide berriak zabaldutako eta normaltasunetik ihes egin nahi du; hari-harian mugitzen den horietako da. Bere lanak gehiegikerian erortzeko arriskuan daude. Unibertsabitxi horretan sartzea lortzen duen ikusleak gozatzeko aukera izango du, baina hori lortzen ez duenak, agian, zinematik ihes egingo du.

Pozos de ambición Upton Sinclairren *Petroil* izeneko eleberrian oinarrizten da, eta honen protagonista nagusia Daniel Plainview (Daniel Day-Lewis) dugu. Plainview, behetik hasita, eta petrolioari esker, oso gizon boteretsua izatera heltzen da. Urte askotako bidaia horren bidez, elipsi handiak direla barne, pertsonaiaren jokabideak bestentzat eta berarentzat dituen ondorioak ikusiko ditugu. Pertsonaia oso konplexua, indartsua, krudela, handizale eta anbiguoan dugu; nolakoa den susmatzen dugun arren, ezinezko da bere erraietaraino sartzea.

Andersonek proposatzen digun bidea aldi berean era-kargarria eta bihurria da. Kontatzeko modua momentu batzuetan zehatza, deskribatzailea eta hitz gutxikoa da, beste batzuetan, berriz, portzita eta gehiegizkoa. Filma nahiko abstraktua eta bitxia da, baina musikak eta soinuaren erabilera sentzasio horiek eragoztekoi balio dute.

Azken baten, *Pozos de ambición* kontrasteetako filma da, eta, orokorrean, oso ondo dagoen arren, batez ere azkeneko eszenan, bai Paul Thomas Anderson zuzendariak bai Daniel Day-Lewis aktore nagusiak neurriaren sena galtzen dute.

Antonio Zabala

Zinema

ARAMAIO KULTURA ETXEA

Hartzia izan nahi zuen haurrea
Domeka: 17:00.

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Arma fatal
Asteleneha: 20:30.

BERGARA AGORROSIK

Promesas del este
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:30.

ELGETA ESPALOA ANTZOKIA

Sandokan
Domeka: 17:30.

NUEVE VIDAS

Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

En el valle de Elah
Egubakoitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Asteleneha: 19:30.

DONKEY XOTE (euskaraz)

Zapatua: 17:00.

Domeka: 17:00.

EIBAR UNZAGA

Sweeney Todd
Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka: 17:00, 22:15.

Asteleneha, martxitena eta eguztena: 19:30, 22:15.

FLORIDA-GURIDI

27 vestidos

18:00, 20:15, 22:30.

JUNO

18:00, 20:15, 22:30.

Caramel

Egubakoitza: 17:30.

Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

Asteleneha: 19:30.

ASTÉRIX EN LOS JUEGOS OLÍMPICOS

Egubakoitza eta zapatura: 15:45, 17:55, 20:10, 22:25.

Domeka: 12:15, 15:40, 17:55, 20:10.

Rise

12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Alvin y las ardillas

12:15, 15:50, 17:50.

Waz

12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Ahora o nunca

20:20, 22:20, 00:20.

La guerra de Charlie Wilson

12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

30 días de oscuridad

Egubakoitza eta zapatura: 00:40.

Domeka: 22:25.

Juno

12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

El niño de Marte

12:15, 20:20, 22:20, 00:20.

Expiación

19:45, 22:10, 00:35.

Franklin (infancia)

12:15, 17

Jumper

12:15, 16:00, 17:00, 18:00,

19:00, 20:00, 21:00, 22:00,

23:00, 00:00, 00:50.

Gauerdi saioak, egubakoitza eta zapatuak.

Eguerdiko saioak, domekan.

Asteleneha, ikuslearen eguna (jaiegunk 13.00).

Ahora o nunca

AEB, 2007. Zuzendaria: Rob Reiner. Aktoreak: Jack Palance, Morgan Freeman, Sean Hayes.

4 meses, 3 semanas, 2 días

2007. Zuzendaria: Cristian Mungiu. Aktoreak: Ion Sapardau, Anamaria Marinca.

91 min. 18 urtetik gorakoendako.

Otilia eta Gabita Erramianiko uni-

bertsitate batzen ikaskideak dira,

komunismoaren azken urteetan.

Juno ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Jason Reitman. Aktoreak: Jennifer Garner, J.K. Simmons.

92 min. 13 urtetik gorakoendako.

Juno nerabeak bere buruari ezarri-

tako arauak bakarrak jarraitzen ditu.

Halako baten, haundi geratuko da.

La guerra de Charlie Wilson

AEB, 2007. Zuzendaria: Mike Nichols. Aktoreak: Tom Hanks, Julia Roberts.

97 min. 13 urtetik gorakoendako.

Charlie Wilson AE Betako Kongresuko kidea afganier garlerie

lagunten hasten da Soviatar Batasunaren inbabio garalan.

El niña de Marte

2007. Zuzendaria: Justin Chadwick.

Aktoreak: Natalie Portman,

Scarlett Johansson, Eric Bana.

115 min. 18 urtetik gorakoendako.

Boleña ahizpak, Ana et Maria,

euren familiaren askozoguren bikti-

ma dira, eta euren artean lehiatuko

dira Enrique VIII.a erregearenengatik.

Pozos de ambición

AEB, 2007. Zuzendaria: Paul

Thomas Anderson. Aktoreak:

Daniel Day Lewis, Paul Dano.

158 min. 13 urtetik gorakoendako.

Plainview-k, isilpeko informazio bat-

eskera, mendebaldeko herrixka bat-

petrolio-itsaso bat deskubrira-

du, eta H.W. semearrekin joango da

Boston-era zorte bila. Han, Eli

Sunday apaizaren Mendekoste

<p

Gaur urteak bete dituzte!

OTSAILAK 29 Lau urtean behin izaten duit otsailak 29 egun, eta aurten horrela suertatu da. Gaur da eguna

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
 Egun berezia da gaur: otsailak 29 egun ditu. Hori ez da urtero geratzen, lau urtean behin baizik. Hala, otsailaren 29an jaiotakoek ondo merezita ospatuko dute gaur urtebetetzea. Ibarrean egun berezi horretan jaiotako hainbat lagun aurkitu ditugu.

NOIZ OSPATZEN DUTE?
 Gehienek esan digute, urtea bisurtea ez denean, aurreko egunean ospatzen dutela urtebetetzea; hau da, otsailaren 28an. "Hala, hila behintzat errespetatu egiten dugu", esan du Mireia Muruamendiaraz Arrasatekoak. "Gainera, nire betiko lagun bat otsailaren 28koa da eta harenkin batera ospatu izan dut", gaineratu digu. Arrasateko Agustin Carmonak, berriz, urtea bisurtea ez bada ez du ospakizunek egiten. "Ni 29koan naiz; horiaz, hilak ez badu 29rik, ez dut ospatzen. Aurten, baina, ospakizun handia egin beharko dut", azaldu digu Carmonak, aurten zer egingo duen galdetuta.

Gipuzkoa mailan badago elkartea bat bisurteen eguna modu berezian ospatzen duena; haien Donostian, Igeldon elkartzen dira. Aurten, 500 lagun inguru elkartzea espero dute.

URTEAK, LAUNAKA
 Lau urtean behin betetzen dituztenez urteak, adina launaka zebatzeko ohitura duenik ere badago. Bergarako Justi Larrañagak, esaterako, 18 urte dituela esan digu: "Baina 50 urteko semea daukat", gaineratu du barrezka. Agustin Carmonak ere 17 urte dituela esan digu.

Mireia Muruamendiarazek, berriz, hauxe esan digu: "Oraindik ez naiz launaka zebatzan hasi, baina etorriko da garaia!".

Zorionez edo zoritzarrez, egun berezian jaiotza egokitu zitzaien guztie; hala, badakite bereziak direla. Nork bere istorio eta bitxikeriak ditu kontatzeko, baina guztiek dute zerbait komunean: gaur urteak betetzen dituztela. Bada, zorionak eta urte askotarako!

OSPAKIZUNAK Bisurtea ez bada, gehienek 28an ospatzen dute urtebetetzea; edo ez dute ospatzen

LAUNAKA Egun berezi honetan jaiotakoek launaka zenbatzen dituzte urteak; gazteak dira, hortaz...



Agustín Carmona, Mari Carmen Sanchez, Gabriel Basterra, Mireia Muruamendiaraz eta Mari Angeles Lasaga.

ARANTZAZU EZKIBEL

ahobero

"Terroristekin ez dut inoiz politikaz negoziatuko. Ni hitzezko gizona naiz. Zezena adarretatik heldu behar da eta gizona hitzetik"

Mariano Rajoy > PPko hautagaia

Badirudi ahaztu egin duela gobernuan egon zirenean egin zutena. Ikusi egin beharko da, Moncloara iritsiz gero, zer egiten duen. Beharbada, zezenak harrapatu egingo du.

iturri onetik

Apirlaren 20an jokatuko da Aloñako igoera; aurten go IV. edizioa izango da

Aloñako IV. igoera apirlaren 20an jokatuko da. Izena emateko epea oraindik ez dute zabaldutu; hain zuzen, martxoaren 21ean zabalduko dute epea. Egun horretatik aurreera apirlaren 11 arte eman ahalko da izena Oñatiako lasterketan. Mendian federatuek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzeakoek 18. Aloñako lasterketak 15,5 kilometro ditu eta 2.200 metroko gorabehera du.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

Trena galtzen

E uropar Batasuna sei estatuk sortu zuten, eta 80ko hamarkadan bazituen hamabi kide, tartean espainiar estatua. Orduko da Euskadi 13. kidea izango zen iragarpena, superstizioaren aurrean bulartsu ageri zen herriarena. Bi autonomien ondoren, estatua lortu eta Europaren sartu. Harrapazak!

Ordutik honako hogeitzi urte inguruan, Europan hamasei estatu berri sortu dira eta Batasuna iritsi da hogeita zazpi kideetara. Eta Euskadi –edo dena delako– ez dago tartean. Horrenbeste tren galdu arren, gure politikari independentistek jarraitzen dute "hurrena gu, hurrena gu!" iragartzen, loteria kontu simple bat balitz bezala. Hau da, Europak eta munduak balizko euskal estatua onar dezaten, aurrez etxeko-lan mordoa egin beharrik ez balego bezala.

ai, ene!



Infusio poltsa eusten duen pinguino-erlojua

Pinguinoaren mokoan infusio poltsa jarri eta ezarritako denborra pasatakoan, automatikoki ateratzen du pinguinoak poltsa.

www.dogguie.com

kutxaZabal Deba
ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMA PRESTAKUNTZA IKASTAROAK 2008
GERIATRIAKO LAGUNTZALE DIPLOMA
 1. promozioa
 www.kutxa.net

2008ko apirila

Gizarte laguntzarako Prestakuntza

BERGARA

zer nahi duzu bihar?

Tokia: Bergarako UNED.

Iraupena: 252 ordu (apirilean 3an. Ostegunetan: 17:00etik 21:00etara. Ostiraletan 17:00etik 21:00etara.

Hizkuntza: Gaztelania

Datak eta ordutegiak:

Hasiera: apirilaren 3an. Ostegunetan: 17:00etik 21:00etara. Ostiraletan 17:00etik 21:00etara. Zapatuetan: 9:00etik 14:00etara

Matrikula epea:

martxoaren 1etik apirilaren 1era.

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Bergarako UNED. *Gizarte laguntzan Trebatzeko Eskola.*

Tel.: 943 76 90 33

Matrikula internet bidez egiteko: www.uned.es/ca-bergara

kutxa